

Talaia Feminista

2024.
urteko
dosierra

DOSSIER **fem**
TALAIA FEMINISTA

Izenburua

Talaia Feminista. 2024. urteko dosierra

Egilea

Talaia Feminista

Itzulpena

Aiora Jaka Irizar

Disenua eta maketazioa

Lubaki Grafik Faktory

Inprimaketa

Gertu inprimategia (Oñati)

Argitalpen data

2025ko urtarrila



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa

Kode Legala

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/>

Aurkibidea

Aurkezpena	7
-------------------------	----------

2024: Biolentzia areagotu den urtea	9
--	----------

Sarrera.....	9
1. Indarkeria matxista.....	11
1.1. Indarkeria matxistaren aurkako borrokaren instituzionalizazioa.....	11
1.2. Erreakzioa: Mugimendu feminista.....	12
1.3. Ortzi-mugak	14
2. Lurraldea	15
2.1. Laborantza-sektorearen interpelazioak	16
2.2. Megaproiektuak	17
2.3. Trantsizio berde eta digitala.....	17
2.4. Erresistentziak.....	18
2.5. Ortzi-mugak	19
3. Gerrak eta gatazka armatuak.....	21
3.1. Testuinguruaren azalpena.....	21
3.2. Gerrek emakumeen* aurkako indarkerian duten eragina	22
3.3. Feministak gerraren kontra: ortzi-mugak.....	23
4. Eskuin-muturra.....	25
4.1. Aurrerakadaren arrazoiak	26
4.2. Feminismoaren aurkako erreakzioa?	27
4.3. Ortzi-mugak	29
5. Ondorioak.....	29
5.1. Indarkeria sistemikoak hartzen dituen formen berrordenamendua.....	29
5.2. Indarkerien aurkako erresistentziak	30

Berdintasun-politika publikoak	33
---	-----------

Sarrera.....	33
1. Berdintasun-politika publikoen sorrera Euskal Herrian (1978-2023)	35
1.1. Berdintasun-politika publikoen bilakaera.....	35
1.2. Ibilbide honetan azpimarragarriak diren gakoak	38
2. Berdintasun-politika publikoen analisisa: Lorpenak, zailtasunak eta ikaspenak	41
2.1. Analisia 1. Berdintasun-politika publikoen estrategia duala: berdintasun-politika espezifikoak eta genero-zeharkakotasuna	41
2.2. Analisia 2. Mugimendu feministaren papera eta interlokuzioa berdintasun-politika publikoetan: egindakoaren balantzea eta ikaspenak	47

3. Berdintasun-politika publikoak aurrera begira:	
Zer jauzi eman behar ditugu eraldatzaileak izan daitezen?	48
3.1. Berdintasun-politika publikoen estrategia dualari buruz eztabaidatzeko ondorioak eta jauzi-proposamenak.....	49
3.2. Euskal Herrian berdintasun-politika publikoak bultzatu eta garatzeko egituren inguruko ondorioak eta jauzi-proposamenak	50
3.3. Berdintasun-politiketan mugimendu feministaren papera eta interlokuzioari buruzko ondorioak eta jauzi-proposamenak	50

Osasun mentala: Gaixotu dugun mundu baten sintoma gara 52

Sarrera.....	52
1. Datuetatik harago	53
1.1. Datuek erakusten digutena	53
1.2. Hainbat galdera datuetatik harago.....	54
1.3. Egun dagoen mina itzela da	56
2. Osasun mentala, osasun-sistema eta osasunaren ulerkera mendebaldarra	57
2.1. Gaurko osasun-sisteman osasun mentalari eskaintzen zaion arreta	57
2.2. Gure osasun-sistemaren oinarriak	60
3. Ezinegonaren jatorri sozialak	64
3.1. Gaixotu dugun mundu baten sintoma gara	64
3.2. Prekarietate materiala.....	64
3.3. Gure jendartearen bestelako korapiloak: tentsio kolektiboak	65
3.4. Gazteria, gure gizartearen ispilu	69
4. Ortzi-mugak.....	69
4.1. Osasun-sistemaren aurrean egiten ditugun aldarrikapenak.....	70
4.2. Deiak feminismoari	71
4.3. Osasun-burujabetza eta buru-ardura.....	74

Aurkezpena

Talaia Feminista proiektuak aurrera jarraitzen du. Berri pozgarria, Euskal Herri feminista amesten eta lortze aldera ari den komunitate honetako kide sentitzen garen emakume* independentsita edo/eta subiranistontzat.

Dakizuenez, gure asmoa da urte bakoitzean zehar gertatutakoari feminismotik begiratzea, denon artean baloratzeko ea gure herriaren eraldaketa feministaren bidean, aurrera edo atzera goazen.

Lehenbiziko dosierra argitaratu genuen 2024an sei gai hausnarketa-gune hartuta: eguraldiaren iragarpena erabili genuen atziakia gisa, krisi ekosozialari buruz hitz egiteko; Greba Feminista Orokorra, Euskal Herriko Mugimendu Feministak mahai gainean jarritako zaintza lanen auzia kontuan hartzeko; bizitzaren garestitzearen atzean dauden arrazoiak saiatu ginen identifikatzen; indarkeria matxistari buruz hitz egin genuen aurreko urtean hedabideen arreta berezia bereganatu zuten gertaeren harira; eta abaya soineko arabiarra debekatzeak emakumeongan* duen eragina ere izan genuen hizpide.

2024ko dosierra beste era batean egitea erabaki genuen:

Batetik, koiuntura analisi labur bat egin nahi genuen, gure ustez, nagusiak izan diren urteko gertakarien inguruan, haien arteko gako komunak bat detektatzeko asmoz.

Bestetik, aurreko dosierrean jorratu gabe gelditu zitzaigun gai bati heldu nahi genion, alegia, berdintasuneko politika eta egitura publikoen egoera Euskal Herrian.

Gai horrekin batera, osasun mentalari buruz hausnartzeko parada hartzea erabaki genuen, jendartean bezala, gure artean ere kezka berezia dugulako.

Hiru eginkizun horiek burutu ahal izateko, urtean zehar aritu diren lantaldeen hausnarketak biltzen ditu dossier honek.

Gororatu, askotariko iriztziak ditugun emakumeok* osatzen dugula Talaia Feminista, beraz, guztioz ez dugu nahitaez partekatzen testuan jasotzen den guztia. Are gehiago, desadostasunak eta eztabaida eraikitzaileak dira gure arteko orube komuna. Prozesuan sinesten dugulako, adostasun berriak eraikitzeak eta desadostasun berriak topatzeak lagunduko digutelako denon arteko kosmobisioa sortzen Euskal Herri feminista lortze aldera.

Talaia Feminista

Oharra:

Emakume* terminoa asteriskoarekin erabiltzen dugu baliagarria zaigulako, sexu-genero sistemak inposatzen duen binomiotik harago, gure bizipen, ibilbide, ahalmen eta askotariko identitateak barne hartu ahal izateko (bollerak, trans, ez-binarioak...). Emakume terminoa asteriskorik gabe erabiltzen dugunean, espresuki binomio hori iraunarazten duten egoerei erreferentzia egin nahi diegu. Adibidez, eskuin-muturrak emakumeak babesteari buruz hitz egiten duenean, begirada kontserbadorea berreraikitzen ari da, nor den emakumearen eta emakume izatearen esanguraren gainean.

2024: Biolentzia areagotu den urtea

Sarrera

Zaila da koiunturari eta egiturari arreta orekatu bat eskaintzea. Kontua ez da analisi estruktural bat egitea, ez eta unean uneko gertaerak besterik gabe zerrendatzea ere. Aitzitik, sistemaren egiturari buruz dugun ezagutzatik abiatzea da gure asmoa, eta ikustea zein joera ari diren funtzionatzen gaur egun, horien artean bereiziz iragankorrak izan daitezkeenak (soilik koiunturalak) eta gelditzeko etorri direnak (egiturazko bihurtzeko). Azkenik, zenbait jazoera zehatzek egiturazko dimentsio ezezagunago batzuk jartzen dituzte agerian, ez daudenak aski finkatuta ezagutza komun feminista gisa. Gertakari horiek aztertuz, euskal gizartean eta Euskal Herri feminista bateranzko trantsizioan duten eraginaz hausnartuko dugu.

Ikuspegi horretatik abiatuz, 2024ari lau angelutatik begiratzea erabaki dugu. Bakoitzak bere horretan duen interesagatik hautatu ditugu batetik, eta laurek elkarrekin markatzen duten norabide komunagatik bestetik, laurek erakusten baitute indarkeria esplizitua areagotzen ari dela eta haren aurrean erresistentziak sortzen ari direla. Hauek dira aztertutako gaiak¹:

- Indarkeria matxista: Gai hau nahitaez lantzekoa zen, hedabideetan bereganatu duen arreta zabala aintzat hartuta. Urtean zehar osatzen joan garen albisteen datu-baseak argi eta garbi erakusten digu fenomeno hau. Urtarril eta urri artean bildutako 131 albisteetatik ia erdiak, 64, gai honi lotutakoak dira (eta igoera nabarmena izan da uztailetik aurrera).
- Lurraldea: 2024an megaproiektu ugari egin dute aurrera Euskal Herrian. Aldi berean, traktore-martxa edo mobilizazio garrantzitsuak antolatu dira landa-eremuetan. Urte honetan onartu da EAEn, era berean, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legea. Beharrezkoa da horren guztiaren irakurketa feminista bat egitea.
- Gerrak eta gatazkak: 2024ko gatazka larrienetako bat Gazako genozidioa izan da, eta horrek sendotu egin du diskurtso militarista. Genozidio horrek, ordea, ezin ditu beste gatazka ireki batzuk estali. Aitzitik, arazo horiek agerian jartzera eta eztabaidatzera eraman behar gaitu.

1 2023ko dosierrak (Talaia Feministaren webgunean eskuragarri: <https://tinyurl.com/26uzj694>) aztertu zituen jada lurraldearen gaia ("Eguraldiaren iragarpena aztergai" atalean) eta indarkeria matxistarena ("Rubiales, Mario Lopez, PPDA eta indarkeria matxista" atalean). Hala eta guztiz ere, 2024an badira gai horiek berriro lantzerik garamatzaten motibo argiak.

- Eskuin-muturra: 2024an izandako hauteskundeetan izugarri indartu da eskuin-muturra, bereziki estatuz gaindi (Europako Parlamenturako ekaineko hauteskundeetan) eta zenbait estaturen barruan (estatu frantsesean, Austrian, AEBetan...). Euskal Herrira ere iritsi da indartze hori. Baina... zer dago hauteskundeez harago?

Analisi honetan, galdera hau planteatu nahi izan dugu: ea lau gai hauei batera begiratuta indarkeria areagotu egin dela ondoriozta dezakegun. Erantzuten saiatu aurretik, garrantzitsua da azaltzea zein modutan ulertzen dugun indarkeria. Kontzeptu zabalegi eta behar bezala zehaztu gabe bat erabiltzen badugu, dena indarkeriatzat jotzeko arriskua dugu, eta horrek indarkeriak hartzen dituen askotariko formak eta berezitasunak ikusteko gaitasuna galtzera eraman gaitzake.

Lehenik eta behin, sistema biozida batek bere burua iraunarazteko duen tresna edo teknologia-tzat jotzen dugu indarkeria. Beste hitz batzuetan esanda: dossier honetan, ez dugu eztabaidatuko indarkeria erresistentzia-mekanismo gisa erabiltzearen zilegitasunaz edo zilegitasun ezaz, ezta indarkeriaren birbanaketa baten alde egitearen egokitasunaz edo desegokitasunaz ere.

Bigarrenik, indarkeriak gutxienez bi forma hartu ditzakeela ulertzen dugu. Alde batetik, esplizitua izan daiteke, lotsagabea, gorputzen materialtasunean zuzenean eragiteko gauza. Bestetik, sinboliko edo epistemologikoagoa izan daiteke itxuraz. Indarkeria-forma sinboliko edo epistemologiko honek indarkeria esplizitua estal dezake. Adibidez, supremazismo zuriaren gainean eta kolonialismoaren eraginpean eraikitako subjektibitate batzuetatik, pertsona arrazializatuen heriotzek ez dute minik ematen (edo ez hainbestekoa). Alegia, Judith Butler parafraseatuz: indarkeria erabiltzen da erabakitzeko noren bizitzak merezi duen deitoratzea eta norenak ez. Indarkeria sinboliko hori, zenbaitetan, hain izan dezakegu barneratua, autodiziplinamendu-mekanismo bihurtu baitaiteke. Zentzu horretan, feminismoek agerian utzi dute itxurazko borondatekerian oinarritutako mekanismoek (adibidez maitasunak) heteropatriarkatuaren iraupenean duten eragina.

Indarkeriaren askotariko formen aurrean, erresistentziak garatzen dira. Erresistentziak ez ditugu ulertzen defentsarako bitarteko huts gisa (sufritutako indarkeriaren aurkako babes gisa). Baizik eta baita ekintzarako eta sormenerako tresna gisa ere: erresistentzia egitea alternatibak sortzea da. Arakatu nahi dugu zer erresistentzia artikulatzen dituzten feminismoek eta beste sektore batzuek aldaketa politikoa eta soziala sustatzeko. Zer ari garen egiten eta zer egin nahi dugun galdetu diogu geure buruari; zer zantzu ikus ditzakegun jada beste erresistentzia-forma zabal eta sendo batzuk artikulatzeko.

Azkenik, funtsezkoa da azpimarratzea koiunturaren azterketa hau Euskal Herriaren lurraldean errotuta dagoela. Ez du asmorik joera globalei antzemateko. Bai, ordea, joera global horiek gure lurraldean izan ditzaketen ondorioez hausnartzeko, aldi berean ulertuz Euskal Herria ere agente aktibo bat dela, eta bertan abiatzen diren dinamikek ondorioak dituztela bere mugetatik kanpo.

1. Indarkeria matxista

Nabarmen patriarkalizatutako jendarte honetan nagusi den indarkeria matxistaren egiturazko karakterizazioaren barruan, nahiko egoera eta errealitate ezohikoak aurkitu ditzakegu une honetan, eta beharrezkoa da egoera eta errealitate horiek modu koiuntural batean aztertzea. Arrazoia ez da, edo ez soilik, indarkeria matxistaren kasuak areagotu egin direla kuantitatiboki (salaketek edo hedabideetako eta sareetako informazioek egunez egun izan duten hazkundean oinarrituta), baizik eta egungo egoera leherkor honekin eskuz esku doazen elementu berri batzuk hasiak direla agertzen².

Gure azterketa-eremua Euskal Herrira mugatzen bada ere, ezin dugu alde batera utzi egoera sozial globala, are gutxiago aintzat hartuz gero nolako lotura duen gerrekin, gatazka armatuekin eta eskuin-muturreko agintariek eta indar neoliberalak zuzentzen dituzten estatuetako errepre-sioarekin.

1.1. Indarkeria matxistaren aurkako borrokaren instituzionalizazioa

Indarkeria matxistaren aurkako borrokan, joera batzuk oso modu nabarmenean agertu dira ga-rai honetan; joera horiek dira hemen aztertuko ditugunak. Azpimarratzeko moduko lehenengo joera hau da: gero eta instituzionalizatuago dago indarkeria matxistaren aurkako borroka, eta, haren barruan, emakumeen* aurkako indarkeriaren aurkakoa. Kontu-sail gehiago aurrekontue-tan? Biktimak artatzeko bitarteko gehiago? Emakumeak babesteko polizia gehiago? Nolanahi ere, emakume* guztiei eragiten al die horrek? Zenbait indarkeria esplizitu normalizatzen eta beste batzuk isilarazten edo ukatzen ari diren honetan, mezuak kontraesankorra dirudi.

Aipa ditzagun feminismoaren pretentsio hegemoniko honen punturik gatazkatsuenak:

- Indarkeria sexistarekin lotutako gaien erregulazio legal gero eta handiagoa. Goranzko joera hau kaos-egoera bat sortzen ari da legegintzan, bereziki arauak aplikatzeko eta administra-zioekin koordinatzeko orduan. Edukiari dagokionez, legeak bere egiten ditu hitzak, eta birdefi-nitu eta inposatu egiten ditu hainbat kontzeptu, indarkeria zer den eta zein kasutan gertatzen den zehaztuz, eta, batez ere, indarkeria hori sufritzen duten subjektuak nor diren erabakiz.

2 Indarkeria matxistari buruzko albistearen kopurua ikaragarria da. Esanguratsua iruditzen zaigun egoera bat aipatzera mugatuko gara hemen: joan den udan hainbat herritako festetan gertatutakoak argi erakutsi digu eraso matxista eta lgtbifobikoen eremu bilakatzen direla festak behin eta berriz, eta aldi berean mugimendu feministak erantzun- eta prebentzio-gaitasun miresgarria duela: 13 eraso Baionan, 24 San Ferminetan eta 11 Gasteizen ("Brigada moreak, autodefentsa feministan bidelagun", Haize Oiarzabal Aizpuru, Berria, 2024ko abuztuak 13, <https://tinyurl.com/232mbgg6>). Aldi berean, aipatzekoak dira han-hemenka sortu diren ekimenak; besteak beste, puntu moreak edo salake-ta-telefonoak (adibidez, "Eraso matxistak eta LGTBI+fobikoak salatzen dituzte telefonoak aurkeztu dituzte Gasteizko jaietarako", Manex Usarralde Garmendia, Argia, 2024ko abuztuak 1, <https://tinyurl.com/274b3qts>).

- Hiperlegeztatze horretan, legeria penalaz baliatzeko joera sarria ageri da, emakumeen babesarako adierazle gorena delakoan; aldi berean, emakumeak biktimatzat jotzen dira, arauak hala deskribatzen baititu. Legearen arabera, biktima horiek eskubide jakin batzuen jabe bilakatzen dira, eta horrek etengabeko bereizketa eta norgehiagoka sortzen du. Ondorioz, pertsona asko alor horretatik kanpo geratzen dira askotan.
- Gatazkak judizializatu egiten dira, eta Estatuak ibilbidearen etapa guztietan esku hartzen du (prebentzioan, detekzioan, salaketan, prozeduretan, zigorretan eta prebentzio-neurrietan), modu ia derrigorrezkoan. Alor penaleko judizializazio hau poliziaren esku-hartze gero eta handiagoarekin dago lotuta ezinbestean. Gainera, ez dago botere judizialik bere epaiak beteazteko gai denik ez baldin badu torlojua koska bat gehiago estutzen beste prozedura judizial batzuk abiatuz eta berriro poliziaren esku-hartzea bultzatuz. Horixe da urruntze-aginduen eta ordaindu gabeko pentsioen kasua. Prozesu judizialen aterki inguratzaile moduan, esan beharra dago ez direla batere eskuraerrazak justizia eskatzen duten emakumeentzat*. Justiziaria iristea, non emakumeak* biktimak eta laguntza-eskatzaileak baitira, ez da batere erraza, justizia profesionalizatu eta klasista baten ezaugarri guztiak baititu, arrazista eta sexista izateaz gain. Funtsezko arazoa da, era berean, aurrez aurre izatea zapalkuntza patriarkalaren baldintzak indarkeria moduan gorpuzten dituen pertsona zehatza.
- Prozesu hau gertatzen ari den bitartean, laguntza-eremu berri hauei arreta eskaintzeko zerbitzu publikoak ahultzen eta arrakalatzen ari dira, pribatizazioaren bidez prekarizatu egiten baitira laguntza hori eman behar dutenen arreta eta lan-baldintzak.

Ezin da azpimarratu gabe utzi, hala eta guztiz ere, emakumeen eskaerak artatzeko eskumenak eta zerbitzu publikoak Administrazioak bere gain hartzea lehentasunezko zeregina dela estatu demokratiko batean. Eta, zalantzarik gabe, horrek emaitza positiboak ditu, esaterako datuak lortzea eta ikertzea, zerbitzu publikoak sortzea, profesionalizazio-maila garrantzitsuak lortzea, indarkeria bera ikusgarri egitea, indarkeria matxisten kontrako mezuak zabaltzea, ohiko indarkeriak (berezik ingabeen aurkakoak) gertatzen diren eremuetan prebentzio-neurriak hartzea...

Analisi-, eztabaida- eta konfrontazio-ariketa garrantzitsu bat da administrazioak beren gain hartzen ari diren eginkizun horien elementu negatiboak non agertzen diren erreparatzea.

1.2. Erreakzioa: Mugimendu feminista

Instituzionalizazio-fenomeno horien ondoan, nabarmentzekoa da mugimendu feministaren ahalmen ikaragarria. Harrigarria da zenbat mobilizazio, greba, kale-hartze, protesta, jardunaldi, salaketa eta aldarrikapen egiteko gai izaten ari den. Herrialde honen historian ez dirudi inoiz antzekorik egin denik aktibatutako pertsonen kopuruari eta aniztasunari dagokienez. Aktibismo feminista hau oso modu indartsuan ari da garatzen: emakume* talde askotara ari da iristen, eta subjektu plural, barne-hartzaile, intersektional, ireki eta kutsu transnazionalako bat definitzen du, hitza eta

ekintza hartzen ari dena. Eta ez soilik nahikoa dela esateko eta indarkeria gehiagorik onartuko ez duela oihukatzeke, baizik eta antolaketa-forma berriak probatzeko.

Aktibismo honek gogor egiten du indarkeria matxisten aurka. Gogor gaitzesten du zapalkuntza patriarkala, bere forma, hedadura eta adierazpen guztietan. Haren aurrean, antolatzen eta aliantza berriak eraikitzen saiatzen da, eta subjektu plural hau finkatzen, nabarmenduz heteropatriarkatua aspal-ditik dagoela lotuta, aliantza bereizezin batean, kapitalarekin, kolonialismo arrazistarekin eta politika biozidekin, zeinak sarraski-gerra, genozidio eta lurralde-suntsipen gisa ere aurkezten baitzaizkigu³.

Antolakuntzaren aldeko apustua egiteaz gain, marko instituzionaletik kanpo (baina ez nahitaez haren kontra) kokatzen diren mugimendu feministak indarkeria matxistari erantzuteko bidegurutze konplexu batean daude.

- Fokua zabaltzen ari da, eta, ondorioz, indarkeria jasaten duten emakume* guztiei erreparatzen zaie, ordena heteropatriarkaleko subjektu disidenteak barne: ahots propioa aitortzen ez zaien adingabeak, zeinek indarkeria bikarioa sufritzen baitute askotan; tratu baztertzalea jasotzen duten emakume* arrazializatu eta migratuak, zeinek egoera are larriagoak jasan behar izaten baitituzte paperik ez badute. Ez da inor utzi behar aldarrikapenetik eta borrokatik kanpo, eta denei ziurtatu behar zaie justizia lortzeko bidea, dela egia aitortuz, kalteak erreparatuz edo indarkeria errepikatuko ez dela bermatuz.
- Sare sozialen bidezko salaketek eta haien bidez lortzen den elkartasunak oso modu nabarmenean ikusarazten dituzte eraso eta jazarpenak, baina, aldi berean, horrek baliabide eta sare sozialak modu perbertsoan erabiltzera bultzatzen du jendea. Garrantzitsua da, beraz, tresna horiek modu zuzenrean baliatzea. Horrek ez du eragozten, noski, aldi berean justizia penal ofizialera jotzea. Izan ere, inori ukatu ezin zaion tresna izateaz gain, emakume* guztiei erraztu behar zaien baliabidea da. Norberak jakingo du zein modutan erabil dezakeen, baina azpimarratu behar da berez ez dela punitibista.
- Biktimek eta laguntzaileek inpunitate-sentsazio gero eta handiagoa izan ohi dute. Erasotzaile bat lotsarazten duen edozein salaketak, izan judiziala nahiz ez, erreakzio patriarkal antolatua-rekin egiten du topo. Morboa piztu eta elikatzeko beti prest dauden sare eta tertuliek berehala aipatzen dituzte ustezko erasotzaileen aurkako lintxamenduak. Ustezko erasotzaileak berehala ukatzen ditu ekintzak, edota biktimaren onespenezekin egin zirela adierazten du. Negazionismoa da diskurtso nagusia. Ez da onartzen biktimaren kontakizuna, eta hari egozten zaio guztiaren errua, beste behin ere, ez duelako berari dagokion rola bete.

3 "Garai paradoxiko bat bizi dugu [...]. Irabazten goazen heinean, feminismoaren hedatze eta berriztatze sendo baten bidez, galtzen goazela ere sentitzen dugu, areagotzen ari delako bizitzak mehatxatuta daudelako sentsazioa eta indarkeria biziagotzen ari delakoa. Indarra dugu, eta, aldi berean, indarkeria dugu" (Silvia L. Gil, Horizontes del feminismo. Conversaciones en un tiempo de crisis y esperanza, 2022, Bajo Tierra, 33. or.).

- Aldi berean, ziurgabetasun-sentimendu sakon bat ari da hazten, bereziki gazteengan, eta horrek premiazko egiten du erasorik gabeko espazio seguruak lortzea. Bada halako alarma bat festa-eremuen eta gune masifikatuen inguruan, askotan hedabideek berek sustatua. Horrek, azkenerako, kontrol eta debeku gehiago ekar ditzake leku jakin batzuetara sartzeko.
- Hausnarketa hauek guztiek eta beste hainbatek protokolo-kontuak birplanteatzera daramatzate mugimendu feministako sektore batzuk, bai prebentzioaren alorrean, bai erasoei eman beharreko erantzunaren alorrean. Adibidez, ez da onartzen neska adingabeei poliziak edo nagusiek laguntzea baldintza seguruetan etxeratu daitezen.

1.3. Ortzi-mugak

Gure ortzi-mugan, zenbait auzi interesgarri ikusten ditugu, ekarpen esanguratsuak egin ditzaketenak alor honetako eztabaida eta ekintzetan.

Komeni da indarkeriaren kontzeptuari buruzko eztabaidak doitzen jarraitzea. Auziaren mutur batek indarkeria-kasu guztiak definitu eta zerrendatu behar direla defendatzen du, edozein direlarik ere haien larritasuna eta eragina. Beste muturrak, berriz, kasu argi eta eztabaidea ezin baina ez ditu indarkeria gisa definitzen, berez jada delitutzat jotzen direnak. Batetik, beraz, kontzeptuaren hipertrofia guke, dena indarkeriatzat jotzen duen ikuspegia, eta bestetik, berriz, negazionismo-rik zuhurrena.

Gauza bera gerta daiteke emakumetasunaren definizioarekin ere: mutur batean emakumetasunaren esentzialismo identitarioa guke, eta bestean proiektio inklusiboa, zeinak ahuldu egiten baitu botere-harreman sexisten ikusgaitasuna. Bi muturren arteko tentsioak kalte egin diezaike indarkeria sufritzen duten subjektuei. Hori ekiditeko, beharrezkoa da interseksionalitatearen eta inbrikazioaren kontzeptualizazioan aurrera egitea.

Justiziaren zereginen aurrean eta justizia feminista lortzeko bidean, ezin dira alde batera utzi laguntzarekin, harrerarekin, sendatzearekin, gaitasun feministen inguruko trebakuntzarekin, auto-defentsarekin eta erreparazioarekin lotutako jarduerak. Zeregin horiek, oro har, jardun militantean planteatzen dira, eta zaintza-lanekin oso lotuta daudela ulertzen da.

Indarkeriaren kontzeptua konplexuagotzea (errealitateak eta praktikak gidaturiko ariketa moduan, ez ariketa teoriko gisa) mesedegarria litzateke aurrez aurre dugun egoeran; izan ere, batzuetan, eguneroko aktibismoak eta presak eragindako taktizismoak ez digute hausnartzen uzten, ez eta errealitate askotariko eta konplexuak bistaratzen ere. Ez guke konformatu beharko errealitatea konplexua edo kontraesankorra edo isilarazia dela esanda. Seinala eta azter ditzagun ohiko indarkeria-espazioak: senideak, hurbileko lagunak, kuadrillak, ikastetxeak, espazio misto militanteak, aisialdi- eta festa-eremuak, kirol lehiakorrak, lantokiak, espetxeak eta atxilotze-guneak eta

jendea giltzapean edukitzeko bestelako eremuak, egurats zabaleko lekuak... Halakoetan ikertu behar da zer indarkeria jakin gerta daitezkeen, eta nondik pasatzen den haien ibilbidea.

Espazio horiek emakume* jakinekin gurutza daitezke adinaren, egoera zibilaren, familia-egoeraren, atzeritartasunaren, jardueren, lanaren, desplazamenduen, sareen erabileraren eta abarren arabera.

Halako analisisetan, oso baliagarria da oroitzea eta kontatzea: noiztik, zer mekanismorekin, zergatik isilarazten da, zer motatako indarkeriak, negazionismoa, laguntzak edo enpatiak, indarkeria deitzen ez den baina babesgabetasunaren eta zigorgabetasunaren bidea egiten duen hori, beste emakume batzuen oroitzapenak...

Analisi eta eztabaidekin lotuago dauden planteamendu batzuk seinlatu ondoren, hauxe da ortzi-mugak seinlatzera bultzatzen gaituen indarririk handiena: ikustea nolako antolakuntza-gaitasuna daukan mugimendu feminista honek, nola berrerabiltzen eta sustatzen duen aktibismoa emakumeen* antolakuntza bultzatzeko. Erantzuna irmoa da oso, baina ez hori bakarrik: topaketak, sareak, aliantzak, mobilizazioak eta antolakuntzak kalean daude jada.

2. Lurraldea

Indarkeriak markatutako urtea izan da 2024a. Krisi ekologikoak, 2023ko dossierrean adierazi genuen bezala, sustrai sistemikoak ditu, eta, krisi horri aurre egiteko, makroproiektuen hedapenean oinarritutako bidea hautatu da. Horrek areagotu egiten du lurraldearen eta lurralde horretako bizitzaren aurkako indarkeria.

Energia-krisiaren babesean, energia-enpresa handiek irabazi-markak hausten jarraitzen dute, eta aldi berean ez da benetako neurririk hartzen energia-sistema eraldatzeko. Aurten, Abiadura Handiko Trenaren (AHT) inguruko eztabaidak gure herriaren kartografia xehea eskaintzen digu: Hego Euskal Herriko (aurrerantzean HEH) klase politikoak azpiegitura handien aldeko apustua egiten du, garraio jasangarriko eredia baztertuz, eta Ipar Euskal Herriko (aurrerantzean IHE) klase politiko osoak, berriz, AHTaren aurkako jarrera berresten du.

Biztanleria indarkeria horiek bereganatzen joan dadin, trantsizio ekologikoari buruzko diskurtso jakin bat normalizatzen da: gizartearen eta natuaren arteko dikotomia arrazionalistan zein gorputzen eta lurraldearen arteko deskonexioan oinarritua; eta trantsizio hori bortizki inposatzen da erresistentzia-prozesuak daudenean. Gainera, 2024an mobilizazio ugari izan dira laborantza-sektorean eta landa-eremuan, alor horietan nagusi den egonezin sakonaren erakusgarri, nahiz eta haien salaketetan ez den lurralde-indarkeria zuzenean aipatzen.

2.1. Laborantza-sektorearen interpelazioak

Laborantza-sektoreak mobilizazio ugarirekin hasi zuen 2024. urtea, bai Euskal Herri osoan, bai Europar Batasuneko (EB) lurralde ugarian. Mobilizazio hauek ez dira apaldu urtean zehar. EBren eta Mercosurren arteko itunak, azken asteetan, agronegozio globalarekin loturarik ez duen laborantza-sektore europarraren eta kolektibo sozialen arbuioa eragin du.

Mobilizazioak Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) markatutako testuinguruaren barruan ulertu behar dira. Politika horrek EBren aurrekontuaren % 25 inguru mugitzen du. Oinarrizko gizarte-beharrizan batekin lotuta dagoen arren —elikadurarekin—, enpresa handien eta nekazaritzako elikagaien industriaren zerbitzura dagoen politika bat da, laborantzarako lurren eta laguntza ekonomikoen metatzea bultzatzen duena; gainera, logika produktibista kapitalista bati erantzuten dio, eta horrek ito egiten ditu proiektu lokal eta agroekologikoak.

EBren eta Mercosurren artean duela gutxi sinatu den itunak, zeina negozio handi gisa saldu baitigute inolako disimulurik gabe, are gehiago indartzen ditu agronegozioaren praktika kolonialistak⁴.

Interpelazio hauetan, hiru kezka-arrazoi sortzen zaizkigu⁵. Lehenik eta behin, eta mugimendu agroekologikoa begirada kritiko zabalago bat sartzan ahalegindu den arren, interpelazio horiek, oro har, NP Bren eta EB-Mercosur itunaren baitan egindako aldarrikapen ahuletara mugatu dira (tramite burokratikoak arintzea, beherapen fiskalak eta ingurumenari lotutako araudia malgutzea, prezioen gaineko inpaktu ekonomikoak lortzea...).

Bigarrenik, berdin-berdin jarraitzen dute aitortzarik gabe jada ikusezinak zirenak. Oraindik ere familia-laguntzaren irudia erabiltzen da, eta emakumeak* ikusezinak dira burokrazia eta gestio lanak aipatzean, ez baita haiek halako zereginetan egin duten lan historikoa aitortzen; estali egiten dira lurra zaintzen duten eta politika hauei etekin txiki edo hutsala ateratzen dieten proiektu txikiak; aipatu ere ez dira egiten landa-eremuko zaintza-lanak eta lan horiek beren gain hartzen dituztenak; ez dira izendatzen jorneroak eta haien eskubide falta; eta ez da salatzen ere, ezustetik gabe, itun berde europearra paper errea dela.

Hirugarrenik, diskurtso neoliberalak eta eskuin-muturrak nagusitasun handia izan dute bai mobilizazioetan (batez ere Nafarroan) bai Mercosurrekin berriki sinatutako akordioan. Nork izan behar luke agentzia eta zilegitasuna laborantza-sektorearen izenean hitz egiteko? Auzi horrek eztabaida handiak sortzen ditu oraindik. Eskuin-muturraren protagonismoak apropos bultzatzen ditu arbuio-

4 Artikulu honetan irakur daitezke akordio honen aurka egindako salaketa feministak: “Berriz mahaigaineratu dute Mercosur-EB merkataritza askerako akordioa, klima larrialdirik ez balego bezala...”, Argia, Jenofa Berhokoirigoin, 2023ko martxoak 25, <https://tinyurl.com/26th553b>.

5 Protesta hauen balantze ekofeminista bat irakurtzeko, artikulu honetara jo daiteke: “Zerekin egiten dugu amets? Elikagaien merkatu globalizatuan bira egiteaz harago”, Isa Álvarez Vispo eta Mirene Begiristain Zubillaga, Argia, 2024ko uztaialak 6, <https://tinyurl.com/2af7nqo3>.

-jarrerak elikadura-sistema agroekologikoa eta lurraldeen eta herrien elikadura-burujabetza babesten dituen aldaketa ororen aurrean.

2.2. Megaproiektuak

2024aren bukaeran, 109 zentral eoliko edo fotovoltaiko daude martxan Hego Euskal Herrian (horietatik % 92,6 Nafarroan) eta beste 202 proiektu izapidetze-bidean (% 75,4 Araban)⁶. Abian edo garatze-bidean dauden makroproiektu horiekin batera, elikadurarekin lotutako proiektuak ere aipatu behar dira, besteak beste Caparrosoko makroetxaldeak, Tuestako makronegutegia, haragi artifiziala ekoizteko Donostiako zentroa eta 4.0. nekazaritza bertikaleko Derioko proiektua; baita itsasertzean eta itsasoan kokatutakoak ere, esaterako Urdaibaiko Guggenheimen proiektua edo Getariako zimarroi makrohaztegia.

Iparraldeak bizi duen turistifikazio azkarrak ere lurraldearen artifizialtzea dakar, Luhusoko, Aiherako edo Marieniako kasuek erakusten diguten bezala. Horiek dira 2024ko erreferenteetako batzuk, baina ez dira ahaztu behar urarekin, mugikortasunarekin eta abarrekin lotutako beste hainbat. Denak dira Euskal Herriak bizi duen makroproiektu-bolada berri honen erakusgarri; erakunde publikoen sostengu handia dute denek (finantzioari, legitimazioari eta baldintzak errazteari dagokienez) eta oso lotuta daude eguneroko bizitzaren beharrianekin.

Makroproiektuak tamaina handiko enpresa-ekimenak dira, inbertsio-bolumen handikoak. Bereziki mendia eta landa-eremua berantolatzen dituzte, eta lurra pribatizatzen dute, lurraldeak berengatuz eta metaketa kapitalista helburu duten dinamikak abiatuz, eskala globaletik hasi eta maila lokaleraino. Lurraldearen aurkako indarkeria-ariketak dira, eta, gu haren parte garela ulertuz gero, lurralde horretan bizi diren gorputz eta bizitzen aurkako indarkeriatzat jo behar dira.

2.3. Trantsizio berde eta digitala

EAEn otsailean onartutako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legeak eztabaida sutua piztu zuen. Lege horri buruz egin daitekeen balorazioaz harago, 2024an hedatu egin da trantsizio ekologikoa presa handiko prozesu gisa ulertzen duen ikuspegia. Baina horrek ez du ekarri presazko trantsizio horri nola aurre egin adosteko itun sozialik. Makroproiektuak indarkeria-ariketak direla ulertzeko ezintasunaz gain, legitimatu egin da halakoen beharra, eguneroko premiak asetzeko beharrezkoak direla argudiatuta.

6 Artikulu honetatik atera dira datuak: "Araba, sakrifikatu nahi duten alaba?", Estitxu Eizagirre, Argia, 2024ko azaroak 5, <https://tinyurl.com/22aonuky>.

Horren guztiaren ondorioz, agronegozio globalean eta neurri handi batean erakundeek sustatutako makroproiektu korporatiboetan oinarritutako trantsizio bat abiarazi da. Aldi berean, EBtik, Itun Berdearen testuinguruan eta 2030. urtea jomugatzat hartuta, agroekologia faltsutzat jo daitekeen agroekologia bat sustatzen ari da, 4.0. nekazaritza bultzatzen baita, lurrik eta baserritarrik gabea.

Diskurtsoari dagokionez, 2024an iruditu zaigu herria ez dela gai izan kapitalismoak krisi ekologikoari aurre egiteko hartutako bidea zalantzan jartzeko, ez eta Euskal Herriarentzat desberdina izango den trantsizio bat bultzatzeko ere. Elite ekonomikoek eta politika publikoen zati handi batek normalizatutako trantsizioaren nozioak apropos elikatzen du gizartearen eta lurraldearen arteko deskonexio sakona, nahiz eta positiboki baloratu behar diren Hegoaldeko udal batzuen ekimenak, eta Iparraldean beste eredu batzuk dauden politika publikoei dagokionez. Kasu horietako bat Udalbiltzak proposatutako Herri Zaintzaileak ekimena da: eguneroko beharizanei politika publiko lokaletik erantzun nahi dien begirada integralago bat, ekofeminismoaren inguruan ardaztua⁷.

2.4. Erresistentziak

Mugimendu agroekologikoa oso erresistentzia bizia da. NP Bren baitako begirada faltsutuari ihes egiten dion agroekologiak ari gara. Autodefentsa ekofeministaren tresna gisa ulertzen dugu, egunerokotasunarekin lotua: eguneroko elikadura-premiak asetzen ditu eta bizimodu duinak bermatzen. Oso aliantza esanguratsuak daude agroekologiaren eta feminismoaren artean, eta ez dira berriak (Etxaldeko Emakumeak, adibidez, 2015ean sortu zen). Agroekologiak eztabaida irekiak ditu; besteak beste, epe luzeko proiektuen bideragarritasuna eta bizigarritasuna, testuinguru globalaren aurrean aliantza zabalagoak lortzeko beharra edo gizaki diren animalien eta gizaki ez diren animalien arteko harremanaren inguruko galdera, antiespezismoak planteatua. Badira itsasargi gisa balio dezaketen esperientziak. Amillubi da kasu horietako bat, Biolur elkarteak Gipuzkoan abiarazi duen proiektua: 2024an bultzada sozial erabakigarria jaso du mikromezenasgo-kanpaina arrakastatsu bati esker, aliantzak eta proposamen erreal eta itxaropentsuak sortuz.

Agroekologia, dakigunez, lurrarekin eta nekazaritzarekin zuzenean lotutako erresistentzia modu bat da. Ekofeminismoa, berriz, bigarren erresistentzia modu bat da, zeinarekin pertsona asko identifikatzen dena, espazio ekofeministetatik kanpo ere. Azken urteotan ugaritzen ari dira interdependentziaren eta eko-dependentziaren aitortza bikoitzetik abiatzen den autokontzientzia ekofeminista sendotzeko topaketa eta hausnarketak. Espazio horiek, gaur egun ez dauden arren formalki artikulatuta, interseksionalitate politikorako abagune itxaropentsuak dira.

7

Elkarriketa honetan azaltzen da ekimena: "Agurtzane Solaberrieta Mesa: 'Udalei tresna bat eskaini nahi diegu zaintzaren eremuan eraldaketak egiten hasteko'", Gurutze Izagirre Intxauspe, Berria, 2024ko azaroak 3, <https://tinyurl.com/2323tsdu>.

Era berean, 2024an erresistentzia aktibo handia egon da lurraldearen defentsan: makroproiektu energetikoen eta Urdaibain egin nahi den Guggenheim museoaren aurkakoak izan dira mobilizazio nabarmenenak. Horrelako erresistentziak gogor kriminalizatzen dira mozal legea aplikatuz: epaiketak, isunak, identifikazioak... Horren erakusle dira Baztango Aroztegiaren kasua, Arabako Mendiak Aske plataforma eta Kanboko Marienia kasuaren inguruan sortutako Ostia sarea. Kriminalizazioak kriminalizazio, ordea, erresistentzia hauek aliantzak sortzen jarraitzen dute, eta mobilizazioak antolatzen dira euskal lurralde osoan. Hala eta guztiz ere, onartu behar da gaur egun dagoen erantzuteko gaitasuna maila ez dela alderagarria euskal lurraldea sufritzen ari den indarkeria-oldearen neurriarekin. Hedabideetan unean uneko arreta lortzen duen arren, nekez bihurtuko da sistemarentzako eta sistema elikatzen duen kapitalismo berde digitalarentzako mehatxu.

Azkenik, aipatzekoa da nola ari diren ugaritzen energia-sorkuntza eraldatzeko premia larriari maila lokal eta komunitariotik erantzuten ahalegintzen diren kooperatiba eta energia-komunitateak. Dinamika horren fruitu gisa, Udalbiltzak prozesu bat abiarazi du komunitate horien artean sinergiak eta kolaborazioak ahalbidetuko dituen egitura bat sortzeko⁸.

2.5. Ortzi-mugak

Eskubide kolektiboen aldeko apustua azpimarratu genuen jada 2023ko dossierrean. Apustu horretan sakonduz, garrantzi berezia hartzen du elikadurarako eskubide kolektiboak. Gero eta indar handiagoz ulertzen da eskubide hau elikadura-burujabetzarekin lotuta dagoela, eta lurra eta lurraldea izateko eskubidearekin⁹.

Elikadurari ikuspuntu feminista batetik begiratzuz, gogor salatzen dugu eskubide hau ukatzen zaiezen artean emakumeak* eta migratzaileak direla gehiengoa. Eta elikadura prozesu aktibo bat dela ulertzen dugu, ikusezintasunera kondenatutako hainbat eta hainbat lanen gainean sostengatzen dena, eta izaera zirkularra duena, etxeek ixten dutelarik elikadura-sistemaren zirkuitua.

Azkenik, ulertarazi nahi dugu sabelak betetzea eta elikatzea ez direla gauza bera. Elikadura-eskubidearen aldarrikapenari esker, elikadura-pobreziaren salaketa (eta begirada asistentzialistaren eta pobrezia hori sufritzen dutenen kriminalizazioaren salaketa) ez da mugatzen jateko eskubidearen eskakizun hutsera; aitzitik, eskakizun horretatik, pobrezia hori eragiten duten elikadura-sistemen eta sistema sozioekonomikoen inguruko eztabaida zabalagoak irekitzen dira.

8 Prozesu horri buruz: "Udalbiltzak energia komunitateak elkartuko dituen bigarren mailako sarea eraikiko du", Naiz, 2024ko azaroak 25, <https://tinyurl.com/2aoau62g>.

9 Horren erakusle dira 2024ko azaroaren 11n eta 12an Bizilur elkarteak Bilbon antolatutako "ELIKATU ALA JAN?" nazioarteko jardunaldiak, elikadura-eskubideari buruzkoak (<https://tinyurl.com/28d7eaae>). Liburu hau ere kontsultatu daiteke: ¿Qué comen las que mal comen en la CAPV?, Isa Álvarez, Ruth Herrero, David Lopetegui, Inurri Oianko, 2024, Baladre eta Bizilur.

Eraldaketa ortzimugarako bidean, bigarren osagai bat baserritartze sozialaren aldeko apustua da. Ez da osagai berria, baina indarra hartu du 2024an. Prozesu honek egungo hirizentrismoaren kontzientzia hartzea eskatzen du, eta erdigunean jartzea nekazaritza-eremuak eta haietan bizi direnak. Lurraldea bizitzarekin eta gorputzekin birkonektatzea ere eskatzen du, ez emakumea eta natura berezko lotura dutela jaso dezaken begirada esentzialista batetik, baizik eta gure eko-dependentsiaren aitortzatik. Euskal Herri ekofeminista baten aldeko apustuan, birkonexio honek herri-nortasunaren oinarrian egon behar du. Burujabetza kolektiboa bada eta lurraldearekin dugun harreman kolektiboaren garrantzia ulertzen badugu, gure Burujabetza Ekofeminista lurralde horrekin dugun harremanaren araberakoa izango da. Birkonexio honetatik, agerian geratzen da lurralde-indarkeria gorputzen aurkako indarkeria dela, eta euskal herri gisa dagokigun burujabetzaren aurkakoa.

Azkenik, onartzen dugu eztabaida ireki bat dugula. 2023ko dossierrean, larrialdi klimatikoaren izaera sistemikoa azpimarratzen genuen, eta planteatzen genuen larrialdi hau ikuspuntu ekofeminista batetik lantzeko ezinbestekoa dela trantsizio ekologiko huts bat baino harago doan zerbait dela ulertzea. Premiazkoa da krisi ekosozialari aurre egiteko egiturazko eraldaketa bat abiaraztea, austeritate informatu eta partekatu batean oinarrituko dena, eta, aldi berean, oinarritzko eskubideak kolektiboki bermatuko direla ziurtatuko duena. Eta argi izan behar dugu zer-nolako lurraldetik egin behar diogun aurre erronka bikoitz horri: gaur egun, gure lurraldearen egitura sozioekonomikoa ekologikoki jasanezina da, guztiz kolonialista, eta inola ere ez burujabea energiari eta elikadurari dagokienez. Egin nahi dugun eraldaketa honek demokratikoki erabakia eta planifikatua izan behar du.

Honaino, abiapuntu komunak. Hortik aurrera, eztabaidak; sutsuenak makroproiektuen ingurukoak: Proiektu ustiatzaile guztiak arbuiagarriak dira? Badira nolabaiteko neurria duten proiektuak baldintza jakin batzuetan onargarriak izan daitezkeenak edo izan behar dutenak? Zein lirateke baldintza horiek? Zer espazio soziopolitiko sortu behar ditugu erabaki eta planifikazio horien adostasun-lerroak definitzeko?

Onartu behar dugu eztabaida horri heltzeko berandu gabiltzala; izan ere, normalizatzen hasia da jada auzi hori ebazteko modu jakin bat, aipatutako makroproiektuetan oinarritua, demokratikoki eztabaidatu gabea. Eta dagoeneko minak ere sortu zaizkigula ere onartu behar dugu, prozesu honetan iritzi kontrajarriak baititugu, eta espazio oso desberdinatan kokatuak gaude: batzuk botere, zilegitasun eta ikusgaitasun handiagokoak; beste batzuk normalean zigortuak. Eztabaida ireki eta premiazko honi heltzeko baldintzak zein izan litezkeen galdetu behar diogu geure buruari, eta urratsak ematen hasi.

3. Gerrak eta gatazka armatuak

Indarkeriaren eragina kontuan hartuz begiratzen badiogu 2024ari, ohartzen gara litekeen eta indarkeriarik hilgarri eta suntsikorrena islatzen dutela aurtengo gerrek eta gatazka armatuek. Koiunturaren azterketa honetara ekarri nahi dugu egoera hori, susmatzen hasita baikaude gerren paradigma modu kezkarriari ari dela larriagotzen, hala hitz egitea zilegi bazaigu. Populazio zibilak sarraskitzea, lurraldeak birrintzea eta bizitza bere adierarik sakonenean suntsitzea oso fenomeno nabarmenak dira orain. Israel egiten ari den genozidio-gerrari begiratzea besterik ez dago, eta horretarako erabiltzen ari den armamentu sofistikuari. Eremu horren gerrifikazioa ere oso elementu kezkarria da, gerra beste lurralde mugakide batzuetara zabaltzen ari baita, edota kontrako interes geopolitikoak dituzten herrietara.

3.1. Testuinguruaren azalpena

Egoera globala bistartzeko, azpimarratu dezagun lehenik gatazka armatu asko eta asko ez direla halakotzat aitortzen eta, ondorioz, eragiten dituzten kalteak ez direla datu globaletan agertzen. Besteak beste, hor daude erregimen diktatorialek zuzenduriko gobernuak, biziki militarizatuak eta guztiz autoritarioak. Halako gobernuak ezartzen dituzten errepresio-politika gogorrek giza eskubideak urratzen dituzte, horretarako indar militar eta paramilitarrak erabiliz.

Mundu-mailan, gatazka armatuen kopurua handitzen ari da, baita haien heriotza-tasa eta suntsiketaren gaitasuna ere. Munduan, estatuekin lotutako 59 gatazka armatu daude 34 estatutan, eta 75 gatazka, berriz, talde armatuen artean¹⁰. Eremuka aztertuz gero, Afrikan gertatzen dira gatazka armatu guztien ia erdiak (% 47), baita bortiztasun handikotzat jotzen direnen erdia baino gutxiago (% 42). Ukrainako eta Palestinako gerrek eta Ekialde Hurbilerantz izaten ari diren hedatzeak oso modu nabarmenean eragiten diote Europako kontinenteari.

Gastu militarrek eta armaden aurrekontuak ere modu kezkarriari ari dira gora egiten, estatuen ekonomiak oso txikiak izanda ere. Datu adierazgarri moduan, aipa dezagun Europako 43 herrialdeetako 39k beren gastu militarra emendatu zutela. Europako gastua % 16 hazi zen orotara, eta hazkuntzarik nabarmenenak Ukrainakoa (% 51) eta Errusiakoa (% 24) izan ziren¹¹.

Migrazioak eta desplazamendu behartuak dira beste funtsezko elementu bat. Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandataritzaren arabera, 110 milioi pertsona daude leku batetik bestera aldatzera behartuta gerrengatik edota giza eskubideen urraketa oso larriengatik, bai estatu baten mugean

10 2023ko datuak, Peace Research Institute Oslo erakundeak 2024an argitaratuak (Rustad, Siri Aas, Conflict Trends: A Global Overview, 1946–2023, PRIO, <https://tinyurl.com/26uatq3e>).

11 SIPRI, 2024. Armaments, Disarmaments and International Security. Resumen en español, SIPRI eta FundiPau, 2024, <https://tinyurl.com/248ofebw>.

barruan, bai beste herrialde batzuetara¹². Israelen kasuan, gainera, lekualdatzea ez da gerraren ondorio bat, gerraren helburua baizik, populazio arabiar-palestinarra kanporatzea eta/edo deuseztatzea baitu xede Israelek, hala lurraldea bereganatzeko.

Horrelako desplazamendu behartuen ondorioz, murriztu egiten dira migratzaileen eskubideak, eta hazi egiten dira erreakzio arrazista, xenofobo eta matxistak. Babeslekuak ez dira toki seguruak, eta lekualdatzeek indarkeria eta heriotza ugari eragiten dituzte. Eta halako lekuetatik igarotzen dira emakume gehienak beren senideekin. Gerra indarkeria da, haren helburua kapitalaz jabetzea baita: lurrak, energia-iturriak, ura, posizio geoestrategikoak. Horrelako gatazkak borroka neoliberal eta geopolitiko baten testuinguruan ari dira gertatzen. Ekar dezagun gogora Rosa Luxemburgek zioena: kapitalaren metaketa-fase oro eskuz esku doa militarizazioaren eta indarkeriaren hazkuntza-fase batekin.

Populazio zibilaren aurkako erasoak esponentzialki ari dira hazten, eta migrazio behartuak eragiteko erabiltzen dira. Populazio zibila diogunean, beren habitat, lur, etxe, eskola, ospitale, zerbitzu publiko eta abarretan bizi diren pertsonez ari gara.

Balio eta printzipioen alorrean, militarizazioa eta balio edo desbalio militarrek nabarmen ari dira hedatzen mundu-mailan. Hain nabarmen ere, ezen, zuzenean gerran ez dauden herrialdeetan, auzitan jartzen eta are erreprimitzen ari baitira elkartasunaren, feminismoaren, bakezaletasunaren, antimilitarismoaren, laguntza humanitarioaren eta sorospenaren aldeko balioak.

3.2. Gerrek emakumeen* aurkako indarkerian duten eragina

Hona hemen Nazio Batuen Erakundearen lerroburu bat: “Gatazka armatuetan hildako emakumeen proportzioa bikoiztu egin zen iaz 2022ko datuekin alderatuta: emakumeak izan ziren gerran hildako pertsona guztien % 40. Gatazkekin erlazionatutako eta NBEk egiaztatutako sexu-indarkeria kasuek, berriz, % 50 egin zuten gora”¹³.

Gerren zuzeneko ondorioen artean, emakumeen* aurkako sexu-indarkeria da mugimendu feministak historikoki gehien landu duen gaietako bat. Gaur egun, hainbat herrialdetan saiakerak egiten ari dira gatazka armatuetan gertatzen den ugalketa eta amatasun behartua emakumeen eskubideak urratzen dituen delitu beregaintzat hartua izan dadin.

12 Escola de Cultura de Pau, Alerta 2024! Informe sobre conflictos, derechos humanos y construcción de paz, Barcelona: Icaria, 2024, <https://tinyurl.com/28y2wb2k>.

13 “La proporción de mujeres entre los muertos en conflictos se duplicó en 2023”, Naciones Unidas 23 de octubre de 2024. Nota de prensa sobre Informe del Secretario General. Las mujeres y la paz y la seguridad, Consejo de Seguridad, S/2024/671, <https://tinyurl.com/24yx5rrc>.

Migrazio behartuek beren berariazkotasuna dute emakumeen* eta nesken ihes- eta babes-bal-dintzetan. Askotan bortxaketen eta erasoen jo-puntu izaten dira, baina, gainera, halako egoeretan gertatu ohi dira pertsonen trafiko, bahiketa eta prostituzio behartu gehien.

Gatazka armatuetan, balio militarista eta patriarkalen gorespenak areagotu egiten du generoen arteko bereizketa, eta desagerrarazi aniztasuna. Rol maskulinoa eta rol femeninoa guztiz bereizten dira, eta malgutasunik gabeko ikuspegi binario batetik funtzionatzen dute. Eskubide Ekonomiko, Sozial, Kultural eta Ingurumenekoak (EESKI, DESCA gaztelaniaz) ere desberdin aplikatzen dira genero-menderakuntzaren ondorioz.

Gerrek eta gatazkek ibilbide eta norabide jakin bat izan ohi dute: gizartea prestatzen eta militarizatzen hasten da lehenik, gatazka bera lehertzen da ondoren eta azkenik negoziazioaren unea edo gatazkaren amaiera iristen da, armistizio edo bake deituriko egoera. Hiru fase horietan, emakumeei, oro har, rol femeninoa guztiz kontserbadoreak egozten zaizkie. Normalean, beren eginkizun tradizionalenetara behartzen dituzte emakumeak gerra-garaian: zaintzaile, ama eta emazte izatea, erretagoardian egotea eta familiak mantentzea, ekonomia ahulak sostengatzea, ospitaleetako zereginak eta lan humanitarioak egitea... Etsaien aldetik ere jasan ditzakete errepresaliak, erasoak, bortxaketak, prostituzio behartuak edo amatasun derrigortuak.

Bakea lortzeko negoziazioen fasean, gatazkaostetik guztiz baztertuak izaten dira emakumeak. Genero-dinamiken inertzien ondorioz, negoziazio horiek gizonen, armaden, berreraikuntzako enpresarien eta politikarien esku geratzen dira. Gatazkaosteko eta elkarbizitza berreskuratzeko fasean, ezinbestekoa da genero-ikuspegi bat izatea eta emakumeek* beren aldeko eskakizunak eginez aktiboki parte hartzea. Eginkizun hori emakumeen* elkarteek baino ezin dute gauzatu, haiek baino ez baitakite gauzatzen.

Hori esanda, ez dugu ahaztu nahi badirela emakumeak armadetan sartzen direnak eta matxindetan parte hartzen dutenak. Baina nabarmendu nahi dugu gizonak modu unibertsal eta behartuan mobilizatzen direla gerrarako beren bizitzako adin-tarte zabal batean, eta emakumeek, aldiz, oso kasu bakanetan hartzen dutela parte. Hori esatea ez da emakumeen parte-hartze eza naturalizatzea, emakume izatea bakezale izatearekin parekatzen duten argumentu esentzialistek egiten duten bezala.

3.3. Feministak gerraren kontra: ortzi-mugak

Mobilizazio antimilitarista eta bakezaleek tradizio handia dute Euskal Herrian. Hor ditugu, esaterako, NATOren aurkako borrokak, Greenham Commonen misil nuklearrak ezartzearen aurkakoak, armagintzaren aurkakoak, Jugoslavia ohiko gerraren kontra eta bakearen eta elkartasunaren alde antolatutakoak. Gure genealogiari dagokio, halaber, aurreko mendearen bigarren erdian Latinoamerikan izandako hainbat gatazka eta gatazkaostetako elkartasun-borroketa parte hartzea.

Orain esan liteke tradizio hau, neurri handi batean, gelditu egin dela mobilizazio feminista autonomo moduan. Gazako gerraren aurka mobilizazio ikaragarria antolatu da, baina mugimendu feminista internazionalista, antimilitarista eta bakezalea ez da parte aktibo zehatz eta autonomorik hartzen ari. Gerra bera hain da bortitza, isilarazi egiten baititu aniztasun-ahotsak.

Une honetan, gerraren aurkako jarrera feministak berreskuratzea dugu xede, mugimendu horiek ikusaraztea, zabaltzea, eta geure aktibismoari berrekitea hainbat parametro nabarmenduz:

- Gerren, patriarkatuaren, militarismoaren, kapitalismoaren eta kolonialismoaren arteko harreman estua.
- Indarkeria matxistak eta sexu-indarkeriak gatazketan eta testuinguru militarizatuetan duten munta ikaragarria. Horren barruan daude babeslekuak ere, non beste indarkeria batzuk gertatzen baitira.
- Emakumeek* eta emakume-elkartek gatazken konponbideetan eta bake-prozesuetan duten parte-hartze aktiboa.
- Gatazkan dauden herrialdeetan emakume*-elkarteen bidez txirikordatzten den elkartasun feminista.
- Estatuak mundu osoko gerretan eta segurtasun-krisian duten parte-hartzea eta erantzukizuna salatzea (gerrak hemen hasten dira). Era berean, euskal enpresek eta armagintzak gerretan eta prozesu berkolonizatzaileetan duten erantzukizuna bistaratzea.
- Euskal gatazkaren azterketatik egiten joan diren askotariko proposamen eta eztabaidak ere garrantzitsuak dira. Nabarmentzekoa da, esaterako, justizia feministari buruzko hausnarketa, gerora Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministetara eraman zena.

Jarduera, trebakuntza, eztabaida eta solasaldi horiek guztiek ez dute behar besteko oihartzunik izan gure testuinguru sozialean, eta beharbada merezi du horretaz hausnartzea. Izan ere, ikuspuntu feministak ez dira jasotzen oro har diskurtso eta mobilizazioetan, eta, ondorioz, ez dira ezagutzen ez eztabaidatzen. Geure buruari galdetu beharko genioke zeri zor zaizkion erantzun autonomo bat emateko zailtasunak eta oihartzunik eza.

Borroka feminista beregainik ez izatearen arrazoietakoa bat errelebo falta izan daiteke, borroketan ez baita belaunaldien eta antolakundearen arteko erreleborik egon. Ohartu gara elkarte eta erakundeetan bultzatzen ziren militantzia-eredua eta balioak ez direla jarraipen handirik izaten ari.

Jakina, badakigu feminismo internazionalista, solidarioa, gerraren aurkakoa, antimilitarista, antirrazista, bakezalea batzuetan, ez dela pentsamendu nagusia elkartasun-ekintzak kriminalizatzen

dituen jendarte honetan. Zaila da halako pentsamendu bat garatzea gerrak eta babes-eskubiderik gabeko desplazamendu behartuak sortzen dituen testuinguru sozial batean.

Errealitate horrek ez du auzitan jartzen, noski, gerra-politikei eta gerrei berei ematen ari zaien erantzun zabala. Baina azpimarratu behar da erantzun hori aldatu egiten dela gatazkaren eta garaiazen arabera. Ez du esan nahi, ezta ere, aldarrikapen feministarik egiten ez denik, hain luzaz landutako mobilizazio bateratuak asko zor baitio diskurtso propioari. Ekarpak handiak egin dira zentzu horretan. Besteak beste, lan handia egin da gatazkaren eta haren diskurtsoen ondorioak sufritzen dituzten emakumeak* bistaratzeko, feminista askok hartu dute parte mobilizazioetan, emakumeek* iraganleku eta babeslekuetan jasaten dituzten eskubide-urraketak salatu dira...

Esan beharra dago, hala ere, erantzuna desberdina dela gerraren edo gatazkaren arabera. Gaian gehiago sakondu gabe, aipa dezagun zein modu desberdinetan erantzun duen oro har gizarteak Ukrainaren inbasioaren aurrean eta Gazako gerraren eta genozidioaren aurrean. Palestinarekiko elkartasunezko mugimenduen lotura historikoak, hain garrantzitsuak eta hain estuak, lehen aipatutako genealogia horren barruan ulertu behar dira.

Esku-hartzeari eta diskurtsoari dagokienez, finka daitezke zenbait mugarri feminismo internazionalista, deskolonial eta arrazista batetik lantzen ari diren jarrera eraldatzaile batzuk azpimarratuz. Euskal Herrian bizi izan ditugun gerren eta erbesteen oroimenak, bai eta gertaera horiek gaur egungo gerrekin izan ditzaketen loturak ere, errelebo-hari bat abiaraz dezakete. Euskal diaspora-tan bada aski esperientzia eta ezagutza hemen bizi diren diasporarekin loturak egiteko. Sexu-indarkeriak jasatea, gerra-eremuetako emakumeen* sexu- eta ugalketa-eskubideak urratzea, tortura sexuala gerra-arma gisa erabiltzea, emakumeen* gorputza borroka-eremu eta gerra-harrapakin gisa erabiltzea, gerraren ondorioz jendea migratzera behartzea, gatazka armatuetan seme-alabak galtzea... Halako gertaerek gure borrokak zuzentzeko ildo nagusi gisa balio diezagukete, bai eta geure erresistentzia indartzeko eta babesleku solidarioak sortzeko ere.

4. Eskuin-muturra

Europako Parlamenturako hauteskundeetako emaitzek islatu dute beharbada argien eskuin-muturrak 2024. urtean izan duen gorakada¹⁴. EB osoan orokortutako igoera honek Ipar Euskal Herriko lehenengo indar bihurtu zuen eskuin-muturra. Gorakada hori legebiltzarrerako hauteskundee-tan gertatu zen: eskuin-muturrak hirugarren indarra izatea lortu zuen Iparraldeko hiru barrutietan.

14 "Eskuin-muturra irabazle Ipar Euskal Herrian eta PSOE Hego Euskal Herrian, EH Bildu gora eta EAJ amilduta", Zigor Olabarria Oleaga, Argia, 2024ko ekainak 10, <https://tinyurl.com/2ybfqz9s>.

Hego Euskal Herrian, datu horietatik oso urrun geratu arren, eskuin-muturrak bikoiztu egin zuen bere bozka kopurua Europako hauteskundeetan. Eta Euskal Herritik kanpo ere igoera nabarmenak izan zituen: bereziki aipatzekoa da Austriaren kasua, eskuin-muturrak hauteskundeak irabaztea lortu baitzuen irailean, Bigarren Mundu Gerratik lehendabiziko aldiz. Era berean, Donald Trumpek AEBetako presidente-postua berreskuratu zuen azaroan, eta Milei ere indarra hartzen joan da Argentinan¹⁵. Nola ulertu prozesu hori?

4.1. Aurrerakadaren arrazoiak

Eskuin-muturrak hauteskundeetan izan duen aurrerakada indartsu hau bereziki kezkarria gertatzen bada ere, hauteskundeetatik askoz harago doan fenomeno gisa ulertu behar dugu¹⁶. Hazten ari den sare-egitura bat da, hainbat erakundek eta espazio ekonomiko, juridiko, politiko, sozial eta kulturek osatua. Ipar Euskal Herrian, Fronte Nazionalak iragarri berri du hautagai lokalekin aurkeztuko dela udal hauteskundeetara (eta ez kanpotik etorritako hautagaiekin, orain arte bezala); horrek argi erakusten du badagoela egituratzen hasia den mugimendu bat, bozkez harago.

Eskuin-muturra osatzen ari den sare honek kanpotik ere izan du bere eragina erakundeetan; horren erakusgarri da, esaterako, EAEn diru-sarrerak bermatzeko errentetan egon litezkeen ustezko iruzurrak modu anonimoan salatzeke ireki berri den postontzia. Eta indarkeria erabiltzeko berezko moduak ere baditu sare honek; adibiderik argiena, beharbada, manosfera dugu, “misoginian eta antifeminismoan oinarritutako foro, webgune eta edukien multzoa”¹⁷.

Eskuin-muturra ekosistema moduan ulertzeko, memoria historikoa kontuan hartuko duen ikuspuntu bat behar dugu. Horrela, esaterako, Hego Euskal Herrian ezin dugu ahaztu trantsizio delakoa faltsuki baino ez zela itxi: giza eskubideen urraketak ez ziren aitortu; arduradunek botere ekonomikoaren jabe izaten jarraitu zuten; eta zutik mantendu zen gaur egun eskuin-muturra elikatzen duen egitura guztia (segurtasun-indarrak, ikastetxe pribatuen sarea eta abar).

Aurrerakada hau hainbat eta hainbat faktoreri egotzi ohi zaio. Horien artean, bi nabarmenduko ditugu. Batetik, bizitzaren prekarizatzeko-prozesuak (aipatu genuen jada 2023an) urritasun- eta beldur-sentsazio orokor bat eragiten du, eta horrek erraztu egiten du irtenbide baztertzaileren arrakasta. Bestetik, gaur egun agerikoagoak dira proposamen liberalaren funtsezko kontraesanak: berdintasuna ez da gauzagarria sistema honetan. Horretaz ohartzeak, aldi berean ez baldin bada klase-kontzientziarik hartzen, eskuin-muturrekin identifikatzera eraman ditzake asko, eskuin-

15 Eskuin-muturrak Euskal Herrian eta Europan duen indarrak, Talaia 17: eskuin-muturra, Ipar Hegoa Fundazioa, <https://tinyurl.com/26eabkpm>.

16 Era berean, ezin ditugu bistatik galdu abstentzioak utzitako datu altuak: Europako hauteskundeetan, ia % 50ekoa izan zen Euskal Herriko zazpi lurralde historikoetan.

17 Horrela definitzen du Asier Arizkorretak “Feminismoaren aurrerapausoen aurkako erreakzioa” artikuluan, Isabel Jaurena, Berria, 2024ko azaroak 24, <https://tinyurl.com/27pvsyqm>.

-muturrak antielitizat aurkezten baitu bere burua. Bi prozesu gurutzatu horiek gero eta indar handiagoa ari dira hartzen, eskuin konbentzionala eta hedabideak zuhurki arduratu baitira ultraeskuinaren normalizaziorako lurra prest uzteaz.

Batzuetan, planteatu izan da emakumeen* bozkak hauteskunde-dike bat eraiki ote dezakeen eskuin-muturraren aurrerakadaren aurrean. Galdera hori ez zaigu egokia iruditzen. Egitekotan, begirada intersektional batetik egin behar da: zein emakume* dira edo izan daitezke erresistenteagoak eskuin-muturraren aurrean? Baina, hortik aurrera, emakumeei* sufragio aktiborako eskubidea ukatzeko historikoki erabili den argumentuaren ifrentzua da nolabait auzi hau: emakumeek bozkatzaren badute, aitorleak esaten duena bozkatzeko dute. Salbatzaileak edo errudunak: emakumeei* dagokiena baino ardura handiagoa emateko bi modu historiko.

Dikotomia horretatik harago, egia da gero eta emakume* gehiago kokatzen direla marko horretan. Eta, hori ulertzeko, generoaren ikuspegitik aztertu behar ditugu lehen aipatutako puntuak. Hertsadura patriarkaletatik kanpo hautatzeko askatasuna azpimarratzeak, askatasun hori merkatu-arrazionaltasunak zuzentzen duen testuinguru batean gauzatu behar denean, bakardade- edo porrot-sentimendu sakon bat eragin dezake. Era berean, sexu-askatasunaren ideiak, desira maskulinoa nagusi den testuinguru batean, autoestimu-arazo handiak sorraraz ditzake emakume* askoren gain. Hau da geure buruari egin behar diogun galdera: izan zenbait diskurtso edo praktika feministatan akats gisa ulertu ditzakegun kontu batzuen ondorioz, izan koloretako neoliberalismoaren promesen faltsutasunagatik, hainbat emakumek* ez ote duen eskuin-muturrean segurtasuna eta konpainia bilatzen generoak markatutako ziurgabetasun-sentsazioaren aurrean.

4.2. Feminismoaren aurkako erreakzioa?

Aipatu dugu ezin dugula eskuin-muturraren gorakada hauteskunde-fenomeno batera murriztu. Era berean, ezin dugu fenomeno bakartzat jo, ezta lurralde bakoitzaren berezitasunak aintzat hartu gabe ulertu ere¹⁸.

Espainiar estatuan, hauteskundeetako eskuin-muturrak lidergo maskulino argia du, oso histrionikoa da feminismoaren aurkako diskurtsoan eta argi eta garbi negazionista indarkeria matxistari dagokionez. Frantses estatuan, aldiz, hauteskundeetako eskuin-muturrak nolabaiteko modernizazio ideologikoa izan duela esan dezakegu: lidergo femeninoak bultzatzen ditu; ez du sexu- eta ugalketa-eskubideen aurkako jarrera irekirik erakusten, ezta sexu- eta genero-aniztasunaren aurkakorik ere; eta esfera publikoan emakumeen defentsaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako jarrera agertzen du.

18 Galdera horren inguruan, artikulu hau irakur daiteke: "Genero aferak, egungo politikaren erdigune, ezker zein eskuin", Mikel Garcia Martikorena, Berria, 2024ko abenduak 11, <https://tinyurl.com/277wtejw>.

Zer esan nahi du horrek, eskuin-muturrak askotarikoak direla, eta batzuk adeitsuagoak direla feminismoarekiko? Ez dugu uste. Denek instrumentalizatzen dituzte feminismoa eta emakumeak*. Lidergo femeninoak errentagarriak gerta daitezke hauteskunderen testuinguruan eta alor sozialean, politikoki zuzenagoa den ultraeskuin bat marrazten dutelako.

Baina erabilera hori modularra da, testuinguruaren berezitasunen arabera. Ez frantses estatuan, ez Ipar Euskal Herrian, feminismoa ez da kokatzen Hego Euskal Herriko agenda sozial eta politikoan daukan maila berean; ez da Hegoaldean bezain hegemonikoa. Hala, espainiar estatuan feminismoa etsaitzat jotzen duen erreakzio bat sortu da, ez ordea Iparraldean.

Instrumentalizazio horrek, lurralde guztiei erantzuten dienez, denentzat balio duen proiektu bat ahalbidetzen du, aniztasun askoz txikiagokoa. Proiektu honetan, bi elementu nagusi nabarmen-duko genituzke.

Batetik, epe ertainera, oso proiektu kontserbadorea da, familia tradizionalaren irudiaren gainean sostengatua, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak naturalizatzen dituen eta balio femenino tradizionalak goستن dituen. Etxean zaintza-lanez arduratuko den norbait egongo dela ziurtatzea ezinbestekoa da gaur egungo testuinguruan, non pribatizazioak eta murrizketak baitira nagusi, non bizitza eta lan-baldintzak prekarizatzen ari baitira eta zaintza-krisia areagotzen. Motibazio ekonomiko argi batek lotzen ditu, beraz, kapitalismo heteropatriarkala eta eskuin-muturra.

Bestetik, emakumeak indarkeriatik babesteko egiten omen den ustezko defentsa (diskurtso horretan, indarkeria hori ez da matxista, ezkontideen artekoa edo familia barrukoa baizik, batetik, eta herritarren segurtasun ezarekin lotua, bestetik) begirada kezagarriki arrazista batetik planteatzen da. Ez dira inolaz ere emakumeen eskubideak defendatzen; aitzitik, emakumeak instrumentali-zatu egiten dira, modu nabarmenean gainera, horrela beste biolento bat eraikitzeke, eta haren aurrean babestea beharrezkoa dela aldarrikatzeko: beste hori gizon migratzaileek osatzen dute, eta bereziki gizon musulmanek (migratzaileek nahiz bertakoek).

Beraz, emakumeak babestu behar direlako diskurtsoa erabiliz, moralki hobeak diren balioak defendatzen dituen komunitate zuri baten iruditeria eraikitzen da, eta nazio-proiektu guztiz eta zeharo arrazista bat bultzatzen da, supremazismo zurian eta islamofobian oinarritua.

Azkenik, azpimarratu behar da ustezko modernizazio ideologiko hori, hauteskunde-garaietan agertzen dena, ez dela nagusi eskuin-muturraren sare osoan, non jarrera antifeminista argiak dituzten agente eta hedabideak baitaude. Hor gardentasunez ikusten dira aurrerapauso feministen aurkako erreakzio gisa sortutako hainbat fenomeno. Horien artean, lehen aipatutako manofera: oro har feministen eta bereziki militante feminista ezagunen aurkako eraso-estrategia eta artikulazio sistematikoa.

4.3. Ortzi-mugak

Premiazkoa da ulertzea Euskal Herria ez dela oasi bat eskuin-muturraren aurrean, baizik eta eskuin-muturra iritsia dela jada gurera, hauteskundeetako fenomeno gisa ez ezik, baita eta batez ere ekosistema moduan. Eskuin-muturra gogor ari da eskuinerantz bultzatzen Euskal Herri osoan posiblea eta politikoki onargarria denaren muga.

Hala eta guztiz ere, Hegoaldean eta Iparraldean bada arkitektura soziopolitiko bat aukera ematen duena beste bide batzuetatik bideratzeko krisi multidimentsionalaren ondoriozko ziurgabetasun- eta babesgabetasun-egoerak sortu duen arbuio-sentimendua sistemarekiko. Euskal Herrian, arbuio hori hainbat bidetatik gauzatzen da: feminismotik, beste mugimendu sozial batzuetatik, sindikalismotik, ezkerreko alderdietatik... Lurraldearen defentsaren izenean egiten da arbuio hori (dosier honetan dagokion atalean ikusi dugun bezala).

Premiazkoa da sare hori zaintzea, lurraldearen ikuspegitik lantzea eta haren izaera demokratikoa sakontzea, baita eskubideen defentsarako ortzi-muga bat sortzea ere, bizi-baldintzen prekarizazioari erantzungo diona. Ultraeskuina ez dadin ihesbide bihurtu, ezinbestekoak ditugu itxaropenerako beste ortzi-muga batzuk, baita horiek defendatu eta hezurmamituko dituen sare soziopolitiko trinko bat ere.

5. Ondorioak

5.1. Indarkeria sistemikoak hartzen dituen formen berrordenamendua

Lau ardatzen inguruan harilkatu dugun analisi honek indarkeria esplizitu edo zuzenak izan duen gorakada orokortua ikusarazteko balio izan digu. Gerrena eta gatazka armatuena da kasurik gordinena. Baina lurralde-indarkeriaren hedatzeaz ere hitz egin dugu, eta esan dugu ezen indarkeria matxista, areagotu nahiz ez (datu-dantza), jasanezina dela... Indarkeria, harreman mota gisa, bizitzen ari garen gorabehera koiuntural guztietan ageri baita. Eta indarkeria hori bereziki da nabarmena sistemak limurtu nahi ez dituen pertsonengan, gutxiago axola duten bizitzetan, heriotzara apropos bideratzen direnengan, nekropolitikaz hitz egitean salatu ohi den moduan.

Baina, indarkeria esplizituaren areagotzea biziki kezkarria bada ere, ezin dugu bistatik galdu haren ondoan badirela indarkeria inplizitua eragiten duten beste egoera batzuk. Krisian dagoen sistema biozidak bi indarkeria motak erabiltzen ditu beti bere burua iraunarazteko. Bikoitza da gure salaketa: indarkeria sistemikoa berrordenatzen eta forma esplizituenetarantz lerratzen ari da, baina aldi berean biolentzia inplizitua gauzatzeko beste modu batzuk erabiltzen.

Berrordenamendu hori ulertzeko, zenbait auzi arreta bereziz aztertu ditugu. Trantsizio berde eta digitalaren diskurtsoaren legitimazioak lurralde-indarkeria ezinbestean onartzea dakar berekin.

Normalizazio hori aski ez denean, zuzeneko erasora jotzen da, protestak kriminalizatuz. Eskuin-muturraren zati baten modernizazio ideologikoak moderazio- eta legitimotasun-berbiz bat ematen dio berez guztiz arrazista eta kontserbadorea den proiektu bati. Aldi berean, eskuin-muturraren beste zati bat sendotu egiten da, eta erreakzio oldarkorrak izaten ditu feministen aurrerapausoen aurka eta, bereziki, indarkeria matxisten kontrako borrokaren alorrean izandako lorpenen aurka. EBN barru-barruraino sartuta dagoen diskurtso militaristak legitimatu eta elikatu egiten ditu gerrak. Aldi berean, ikusezin jarraitzen dute gerra-eremuetatik ihesi doazen emakumeen* gorputzen kontrako erasoek, ez baitira bistaritzen migrazio-bide ezin gogoragoak zeharkatu ondoren Europa gotortuarekin topo egiten duten emakumeen* aurkako indarkeriak.

5.2. Indarkerien aurkako erresistentziak

Indarkeria sistemikoaren berrordenamendu honen aurrean, hiru erresistentzia-ardatz dauzkagu irekita: inpunitatea salatzea eta segurtasun ezaren sentsazio iruzurtiak agerian jartzea; indarkeria politizatzea, ikusezintasuna deuseztatuz eta haren izaera sistemikoa agerian jarritz; eta ortzi-muga berriak sortzea indarkeria erabiltzen duen sistemaren berezko marko instituzionalaren muge-tatik kanpo.

Lehenengo erresistentzia-ariketa segurtasun eza eta inpunitatea bereizten jakitea da. Argi eduki behar dugu zein testuingurutan ari diren berronekatzen indarkeria sistemikoaren askotariko meka-nismoak: ohartuak gara segurtasun ezaren sentsazioaren areagotze interesatu bat bilatzen dela hainbat mailatan. Zenbat neska gazte bizi dira sexu-erasoen gero eta beldur handiagoarekin? Zenbat jende da etxea okupatuko ote dioten beldur, edo kalean erasoko ote dioten beldur? Zenbat lasaitzen gaitu edozein ekitalditan polizia ikusteak ustezko eraso terroristak ekiditeko?

Hedabide askok axolagabeki zabaltzen dituzte arrisku sexualari buruzko narratibak, eta sare so-zialetan oztoporik gabe hedatzen dira gero. Bada, feminismoak narratiba horien azpian dagoen “terrore sexualaren diziplina”¹⁹ izendatzeko balio digu. Hala, ozen salatzen dugu zer bilatzen den segurtasun ezaren sentsazioa aktiboki eragitearekin: izuaren bidez, berez biolentzia den sistema bat iraunarazi nahi da, aldi berean indarkeria hori ikusten uzten ez diguna.

Segurtasun eza areagotzen ari delako ikuspegi apropos iruzurti horren aurrean, inpunitate-egoe-ra orokortu bat nagusitzen ari dela salatu nahi dugu. Inpunitate hori mundu-mailakoa da (ba ote Netanyahuk Gazako genozidioaren aurrean duen inpunitatea baino erakusle argiagorik?), baina sexu-erasoen salaketaren aurrean ere etengabe hautematen da, izan salaketa horiek juridikoak

19 Terrore sexualaren diziplinan, narratiba horiek oso modu jakinean funtzionatzen dute: “zigor-modu sozialak [dira], ahalegintzen direnak emakumeak hezten, zuzentzen eta behartzen, [eta] bigilantzia-eredu sozial gisa [funtzionatzen dute], emakumeek zer egin dezaketen eta zer ez erabakiz, haien gorputza doktrinatzan saiatuz eta haien erabaki-ahalmena urratuz, etengabe beren burua kontrolatzen eta menderatzen ibil daitezen (Nerea Barjola, “La función social de la violencia machista”: <https://tinyurl.com/2xo84cp3>).

nahiz sozialak. Inpunitatea ezagutaraziz, agerian jartzen dira indarkeriarekin kolaboratzen duten askotariko mekanismoak: legediaren alorrekoak, egunerokotasunekoak, hedabideetakoak...

Bigarren erresistentzia-ardatza indarkeria politizatzeak gaitasuna da. Indarkeria politizatzeak indarkeria ikusgai egitea esan nahi du. Horretarako, indarkeria epistemologikoa deuseztatu behar da, indarkeria horrek eragotzi egiten baitu erasoak jasaten dituzten hainbat eta hainbat subjektu ikustea. Adibidez, indarkeria bikarioa sufritzen duten adingabeak. Adibidez, pertsonak askatasunaz gabetzen dituzten zentroetan gertatzen diren tortura eta indarkeriak (atzerritarrak atxikitze zentroetan, espetxeetan, polizia-etxeetan, ospitale psikiatrikoetan...). Askotariko kontrol-, diziplinamendu- eta desberdinkeria-moduak naturalizatzen garamatzen indarkeria sinbolikoa deuseztatzen dugunean ere politizatzen dugu. Adibidez, gorputza eta lurraldea birkonektatzen ditugunean lurralde-indarkeria ikusteko. Indarkeria politizatzeak haren forma berriak ulertzea esan nahi du, eta jada ezagutzen genituen formekin dituzten loturak hautematea, eta identifikatzea nolako zeregina duten forma horiek guztiek egitura patriarkal biozida baten iraupenean. Politizatzea, azkenik, indarkeria agenda politikoetan sartzea da, feministen agenda politikoetan, jakina, baina baita agente sozial, politiko eta instituzional guzti-guztien agendetan ere.

Indarkeriaren aurreko hirugarren erresistentzia-ardatza indarkeriari buru egiteko esparru eta ortzi-muga berriak eraikitzen dituen da, indarkeriaren iturri den sistemaren beraren sare-egitura instituzionalaren mugetatik harago. Aukera berri horien artetik, testu honetan bi azertu ditugu bereziki.

Batetik, justizia feministaren planteamendua edukiz eta praktikaz betetzeko prozesua, zeina eskuz esku baitoa justizia patriarkalaren kritikarekin. Mugimendu feministak historia antipunitibista luzea du (1995eko Zigor Kodearen aurkako erreakzioak eta ondoren izandako aldaketa ugariak). Punitibismoa zigor-legerian eta botere judizialean dago, nahiz eta sektore feminista batzuek ere justifikatzen duten. Justizia feminista zigor-prozesu osoa zalantzan jartzetik abiatzen da, uste baitu prozesu hori ikaragarri oldarkorra dela eta emakumeak* birbiktimitatu egiten dituela. Horren aurrean, egia eta erreparazioa bilatzen ditu, erdigunean jarritz indarkeriaren biktima izan diren subjektuak, haien ahotsak, premiak eta prozesuak.

Bestetik, gorputzak eta lurraldea birkonektatzen eta lurra eta lurrean bizi direnak zaintzen dituzten praktikak eta begiradak. Praktika horiek bizirik daude agroekologia feministan, elikadura-eskubidearen, zaintza-eskubidearen eta lurra izateko eskubidearen arteko loturan.

Jadanik metatuta dauzkagun ezagutzetatik sendotu behar ditugu erresistentziak: lurralde-ezagutza historikotik eta ezagutza historiko feministatik.

Euskal Herrian egindako lan guztia aintzat hartuta, badugu zerekin elikatu, gatazka politiko armatu bat bizi izan duen lurraldea baita gurea, eta gatazka hori irekita baitago oraindik bere dimentsio soziopolitikoan. "Hau ez da gure bakea" aldarrikatetik, sendatzearen eta justizia feministaren

aldeko apusturaino. Metatutako ezagutza historiko hori osatzeko, gaur egun Euskal Herrian gurutzen diren bestelako istorioak baliatu behar ditugu, askotariko geografietatik datozenak. Lurralde gatazkatsuetatik etorritako diasporetako emakumeek*, eta jada hemen jaio arren familia- eta herri-historia horren jabe diren belaunaldiek, feminismo internazionalista bat eraikitzeke ezinbestekoa zaigun ezagutza politikoa dute.

Feminismoek berek metatua duten ezagutzaz ere elikatu behar dugu, eta aldi berean genealogia kritiko bat egin orain arte emandako pausoen inguruan. Hala, emakume ez diren baina indarkeria matxistaren objektu diren subjektuak ikusgai egiteak ez dizkigu bistatik galarazi behar egun indarrean jarraitzen duten harreman sexistak. Era berean, emakumea eta natura lotzen dituen begirada esentzialistari ihes egiteak ez digu ahanztarazi behar lurrari erasotzea lur horretan bizi diren gorputzei eraso egitea dela.

Genealogia kritiko honetatik, feminismoaren dimentsio heteropatriarkalak ikusarazteko gaitasun kritikoa galdu gabe barneratu gaitezke a priori feminismoaren berezko gaiak ez diren auzietan. Geure buruari galdetu diezaiokegu, adibidez, hemen zein neurritan dakarten megaproiektuek lurraldearen birpatriarkalizazioa, ekofeministek Abya Yalako estraktibismoaren aurrean salatu duten bezala. Batzuetan, ordea, ezagutza metatu hori eten egiten dela dirudi. Hori ari da gertatzen une honetan, ez baitago belaunaldien eta diskurtsoen arteko erreleborik mugimendu feminista antimilitaristan. Mugimendu hori zaintzeko eta berrasmatzeko betebeharra ote dugu gure aurrean? Edo, behintzat, ez ote dugu hausnartu behar errelebo hori zergatik ez den gauzatu?

Erresistentzia-modu horiek guztiak txirikordatuz, ortzi-muga itxaropentsu bat eraiki nahi dugu, krisi sozioekonomikoari eta ekologikoari aurre egiteko aukera emango diguna beldurrean eta etsipenean erori gabe. Eskuin-muturraren irtenbide baztertzaileen eta kapitalismo berde (edo kaki) digitalaren sedukzioaren aurrean, austeritate informatu eta partekatua eskainiko digun ortzi-muga bat behar dugu, eta guztion bizitzaren gaineko erantzukizun kolektibo bat; desiragarria eta sexya izango den ortzi-muga bat. Indarkeria sistemikoaren berrordenamenduaren aurrean, ilusiozko eta errebeldiazko ortzi-muga bat eraikitzen ari gara.

Horretarako, burujabetza eta erabaki-ahalmena behar ditugu alor guztietan. Burujabetza zergatik? Badugulako aski erabakitasun gure erresistentzia askotarikoek etorkizun feminista bat eraikitzeke bidea elika dezaten.

Berdintasun-politika publikoak

Sarrera

70eko hamarkadatik aurrera, feminismoak indarra hartu zuen eta, bulkada horren eskutik, berdintasun-printzipioa orokortzen joan zen, besteak beste, politika publikoetan eta erakundeetan.

Mende erdi labur batean, emakumeon* eskubideak formalki aitortu dira, diskriminazioak eta arrakalak arintzeko tresnak ezarri dira, berdintasun-politika publikoak egituratu egin dira, neurri batean, eta emakumeon* ordezkaritza parekidea bermatzeko neurriak hartu dira. Nola eman da prozesu hau Euskal Herrian? Nola irakurtzen du feminismoak? Emakume* guztiongan inpaktu bera izan dute politika hauek? Zein muga eta zein itsasargi antzeman dira politika hauen garapenean? Galdera hauen inguruan hausnartzen aritu gara eta hausnarketa horien emaitza jasotzen saiatu gara dokumentu honetan; eta, hausnarketa bukatutzat ematea baino, dokumentu honekin hausnarketari jarraipena ematea da dokumentu honen helburua. Hausnarketa honetan, halere, ez gara mugatu existitzen den horren inguruko azterketa egitera, saiatu gara iparrorratza irudikatzeko ariketa egiten, eta horrantz jotzeko urrats zehatzak proposatzen, eraldaketarako estrategia feministan aurrera egin dezagun.

Dokumentu honetan, lehenik eta behin, berdintasun-politika publiko eta egiturek Euskal Herrian izan duten bilakaera aztertu dugu. Ondorioztatu dugu ez dagoela Euskal Herri osoko ikuspegia duen diagnostiko edo analisirik eta oso dela desorekatua berdintasun-politika publikoen eta egituren irismena eta bilakaera lurraldez lurralde. Egiaztapen horretatik abiatuta, bestelako ondorioak ere atera ditugu, besteak beste, berdintasun-egituren existentziak berak sentsibilizaziorako birtarteko gisa ere jokatzeko duela; alde nabarmena dagoela arau- edo lege-markoak ezartzen edo gomendatzen duenaren eta benetan egiten denaren artean; eta politika hauek egiturazko mugak dituztela eraldaketa gauzatzeko. Baliabideak falta dira, baita administrazioaren prestakuntza ego-kia ere. Politikoki zuzena den horretan mugitzeko joera dago maiz, patriarkatua eta indarkeria matxista mantentzen eta birsortzen diren bitartean. Ez dira konplazentziarako garaiak eta erantzukizun horretatik egin dugu analisi kritiko hau.

Ondoren, berdintasun-politika publikoen bi alderdiren inguruko analisia egin dugu. Aztertu dugun lehen alderdia berdintasun-politika publikoen estrategia izan da, estrategia duala, alegia. Estrategia dualaz hitz egiten da genero-zeharkakotasunaren estrategia eta berdintasun-politika espe-zifikoa edo ekintza positiboa uztartzen dituelako. Estrategia honen arrakastak, zailtasunak, po-tentzialtasunak eta mugak identifikatzen saiatu gara. Bigarrenik, aztertu dugun bigarren alderdia, politika publiko hauen eta mugimendu feministaren arteko harremana izan da.

Bukatzeko, etorkizunera begiratu nahi izan dugu. Aurrera begira egin beharreko jauziak irudikatzerakoan, ordea, gure begirada analitiko edo lurretik pixka bat jasotzeko ahalegina egin dugu, ezagutzen dugunaren markoa gainditu ahal izateko eta jauzi estrategikoak eta anbiziotsuak irudikatzeke. Berdintasun-politika eta egitura publikoak eraldatzaileak eta eraginkorrak izan daitezkeen zer behar duten pentsatzen saiatu gara. Horrenbestez, laburki eta proposamen gisara: Euskal Herri osoko ikuspegia izango duen behatoki autonomoa sortzea proposatzen dugu, besteak beste, politiken inpaktua neurtzea eta berdintasuneko estrategiak ebaluatzea helburu lukeena; berdintasun-politika espezifikoaren agenda eta eragiteko gaitasuna zabaltzea ere proposatzen dugu, feminismoarentzat estrategikoak diren auziak edo eremuak barneratzeko (zaintza, indarkeria eta hezkuntza-sistema, esaterako); eta, azkenik, Euskal Herrian sortzen diren estrategia eta bitarteko publikoen biltegia eraikitzea proposatzen dugu, lurraldeen artean bitartekoak partekatzeko, lurraldeen arteko erantzukidetasuna sustatzeko eta gertuko erakundeei lana errazteko.

Gogoeta kokatua izan da gurea, feminismotik eta Euskal Herritik egin duguna. Euskal Herriak ez du berdintasun-politika publikoak osoki zabaltzeko burujabetzarik, eta, eskumenei dagokionez, oso abiapuntu ezberdina dugu lurralde bakoitzean. Estatu politika feministak egiteko eskubidea eta ahalmena aldarrikatzen dugu, dagokigulako eta eraldaketa zein trantsizio feministarako beharrezkotzat jotzen dugulako.

Erakundeetan eta politika instituzionalaren bizitzan sexu eta generoen arteko berdintasunaren eskaera txertatu izana feminismoaren eta emakumeon* borrokaren lorpen historikoa da; era berean, ikuspegi berriak ireki dituen urratsa da, etengabeko azterketa eta ebaluazioa eskatzen duena. Baina erakundeek dituzten mugei ere erreparatu behar zaie. Azken finean, erakundeak sistema kapitalista, patriarkal eta arrazista jakin baten emaitza dira, eta sistema bera birstortzen parte hartzen dute. Aitzitik, feminismoak politika erradikalak galdegiten ditu, jendartearen bizitzan inpaktu zuzena izango dutenak, beraz, berdintasun-politika publikoek eraldaketa erradikalak gauzatzeko zailtasuna dute. Erakundeek aldarri feministak beren praktikak eta politikak zurrizteko erabiltzeko tentaldia erakutsi dute eta, horrenbestez, ezinbestekoa iruditzen zaigu erakundeen eta feminismoaren arteko dialektika.

Euskal Herriari dagokionez, mugimendu feministaren bultzadaren eta eskaeraren ondorioz sortu eta garatu izan dira berdintasun-politika publikoak. Era berean, mugimendu feministako kide askok parte hartu izan dute eta parte hartzen dute berdintasun-politika publikoetan; besteak beste, berdintasuneko teknikari asko mugimendu feministako kide dira eta hau indargune ere bada.

Jakitun gara Euskal Herriko feministok berdintasun-politika publikoen eztabaidari hainbat ikuspegitik eta askotariko jakintzetatik heltzen diogula. Beraz, gure hausnarketak ez ditu denak aseko. Dokumentu honek hasiera bat izan nahi du, gogoetan sakontzen jarraitzeko.

1. Berdintasun-politika publikoen sorrera Euskal Herrian (1978-2023)

Patriarkatuari aurre egiteko ibilbide luzean, berdintasun-politika eta egitura publikoak nahiko berriak dira. Halere, ibilbide esanguratsua egin dute dagoeneko, Euskal Herriko lurralde batzuetan bederen, eta orain arte egindakoak eman duena ebaluatu eta horren inguruan hausnartzeko unea dela iruditzen zaigu.

1.1. Berdintasun-politika publikoen bilakaera

1975ean, sexuen arteko berdintasuna nazioarteko betebehargako bihurtu zen NBE osatzen duten estatuentzat. NBEk ez du behartze gaitasunik, eta betebehargako horiek herrialde bakoitzeko indar-korrelazioaren arabera gauzatzen dira. Ezbairik gabe, erabaki horrek fase berri bat ireki zuen sexuen arteko berdintasuna bermatzeko estrategiak indartzeari eta hauen ikusgaitasunari dagokienez.

1.1.1. FRANTZIAR ESTATUA

2013: Emakumeon* eta Gizonen Berdintasunerako Goi Kontseilua (Haut Conseil à l'égalité, HCE) sortu zen. 2017an, HCEk aitortza instituzionala jaso zuen, eta osaera paritarioa izan behar zuela zehaztu zen, baita erreformak proposatzeko ahalmena eman ere.

2014: Emakumeen* eta gizonen arteko egiazko Berdintasunerako Legea (2014-873 Legea). Lege horrek alderdietan, erakundeetan, kirol federazioetan eta enpresa pribatuetan parekidetasuna bultzatzeko hainbat neurri ezarri zituen; eta, maiztasun batez, hainbat erakunde (Euskal Hirigune Elkargoa, adibidez) parekidetasunaren inguruko txostena aurkeztera behartzen ditu.

2017: Berdintasunari eta Herritartasunari buruzko Legea (2017-86 Legea). Lege horrek sexu-genero bakoitzeko pertsonen % 40ko gutxieneko proportzio bat aplikatzea behartzen du zenbait ministeriotako postuetan; eta administrazio publikoan berdintasuna eta erabakitze postuetan emakumeon* parte hartzea bultzatzeko ekintza estrategikoak definitu behar direla aipatzen du.

2024: Frantziako Senatuak eta Kongresuak onartu dute konstituzioan jasotzea aborturako askatasuna bermatzea. Horrela, Frantzia izango da konstituzioan abortu eskubidea barne hartzen duen munduko estatu bakarra.

1.1.2. ESPAINIAR ESTATUA

1981ean Espainiar estatuak NBEko printzipioak berretsi zituen, eta 1983an Emakumeen* Instituta sortu zen. Urte hauetan Frankismoak eraikitako markoa eraisten joango zen (emakumea* gutxiesten eta familiara mugatzen zuena), formalki bederen: 1978an adulterioaren aurkako legeak

bertan behera utzi ziren; 1981ean dibortzioa legeztatu zen; 1985ean abortua despenalizatu zen larritasun kasuetan; 1992an Auzitegi Gorenak matrimonioaren barruan ere sexuak baimendua izan behar zuela ebatzi zuen.

2004an, indarkeria matxistaren aurkako babes integraleko neurriak onartu zituzten lehen aldikoz. 2007an, berdintasunaren eta parekotasunaren legea onartu zen. 2020an eta 2023an zenbait legeren bidez aurrerapausoak egin ziren: "sexu-askatasunaren berme osoa", "gizonen eta emakumeen* egiazko ordainsari-berdintasuna lortzeko" eta "trans pertsonen benetako berdintasuna eta LGBTBI+ pertsonen eskubideak egiazki bermatzeko".

Ibilbide hau argi-ilunez betetakoa da. Eztabaidak eta kontraesanak ugariak izan dira, martxan jarri diren legeen inpaktua mugatua izan den bezala. Edonola ere, 2008ko finantza krisiari emandako erantzunak, austeritate politikaren bidez, eragin zuzena izan zuen berdintasunaren agenda publikoan eta berdintasunean egindako inbertsio publikoan. Mariano Rajoyk 2012an martxan ezarritako austeritatearen dekretuak adibidez (langile publiko berriak kontratatzea debekatzen zuen), zuzeneko eragina izan zuen berdintasuna garatzeko egitura publikoetan. 2023tik aurrera, erakundeetan batera gobernatzeko PP-VOX-ek egindako akordioak berdintasun-politika publikoen blokeoa eta atzerakada ekarri du: indarkeria matxista ukatzea, berdintasun-zinegotzigoak eta -kontseilaritzak ezabatzea, aurrekontuak murriztea, abortatzeko eskubidea zalantzan jartzea... Feminismoaren kontrako erreakzioa bizitzen ari da PPK eta VOXek ardura duten instituzioetan.

1.1.3. EUSKAL HERRIA

Hego Euskal Herria

Autonomia Estatutuak autonomia erkidegoengan jarri zuen berdintasun-politikak garatzeko esku-mena. Laburbilduz, hau izan da bilakaera: lehengo egiturak, gero berdintasun-politikak garatzeko planak eta azkenik legeak, XXI. mendean.

80ko hamarkadaren bukaeratik eta 90eko erdialdera arte abian jarri ziren lehenengo egiturak berdintasunerako institutuak izan ziren. EAEn Emakunderen sorrera 1988an (Emakumearen* Euskal Erakundea, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzan kokatua dagoen erakunde autonomoa da), eta Nafarroan NABI Nafarroako Berdintasunerako Institutua (Nafarroako Gobernuak lehendakaritzan dagoen erakunde autonomoa), 1996an.

Ondoren, marko programatikoak sortu ziren: egitura horietatik berdintasunerako lehenengo planak diseinatu eta abiatu ziren, 1980ko hamarkada bukaeran (EAEn 1989tik aurrera).

1990etik aurrera udaletako berdintasun-arloak sortzen joan ziren, hasiera batean teknikari arduradun bakarrarekin, eta, 2010etik aurrera, apustu politikoa egingo den zenbait udaletan, egitura horietako batzuek unipertsonalak izateari utziko diote. Oraindik ere, egoera oso ezberdina da

udalerrien artean. Gipuzkoako udalak dira seguraski sendoenak eta Nafarroan urte gutxitan eman den bilakaera azpimarragarria da (30 teknikari herrialde osoan, modu prekarioan dauden arren). Bizkaiaren kasuan azpikontratazioa izan da nagusi. Edonola ere, gogora ekarri nahi ditugu urte hauetan itsasargi eta erreferente bilakatu diren zenbait herri: Arrasate, Hernani, Ermua edota Basauri.

Udalen elkarteei dagokienez, EUEDEL-Euskadiko Udalen Elkartek Berdintasun saila du eta berariazko ekimenak sustatzen ditu. Nafarroako udal eta kontzejuen federazioak, berriz, ez du oraindik berdintasuna ardatz nagusien artean.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundietan, ondoren sortu ziren berdintasun-unitateak, eta alde handia dago horien artean. Gipuzkoan zuzendaritza propioa dago, zerbitzu-buru batekin eta goi-mailako 4 berdintasun-teknikarirekin (funtzionarioak dira). Araban, berriz, ez dago inolako egiturarik/berariazko organismo/unitaterik berdintasunerako eskusiboki dedikatzen denik, eta lurralde bakarra da Hego Euskal Herrian berdintasunerako foru-araurik ez duena. Aldundiak 2 berdintasun-teknikari ditu, baina ez daude behartuta berdintasuneko berariazko trebakuntzarik izatera. Bizkaietan, Berdintasun Zuzendaritza bat dago, soilik berdintasunean aritzen dena, eta arduradun bat du. Ez da zehazki zerbitzu buruzagitza, baina hala funtzionatzen du, eta goi-mailako 6 berdintasun-teknikari, karrerako funtzionarioak (horietako bi beste sail batzuetan daude, baina Berdintasun Zuzendaritzaren mende), eta bitarteko langile bat daude.

Berdintasunerako legeak, azkenik, XXI. mendeko lehen hamarkadaren hasieran EAEn (2005), eta geroxeago Nafarroan (2015/2019) indarrean jarri zirenak:

EAEko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen* eta Gizonen Berdintasunerakoa. (2022an moldatu egin zen, indarkeria matxistari aurre egiteko politikari garrantzi handiagoa emateko asmoz).

Nafarroan, 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen* kontrako Indarkeriari aurre egitekoa. 8/2017 foru legea, ekainaren 18koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa. 17/2019 foru legea, apirilaren 4koa, emakumeen* eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa. 2022-2027 Nafarroako emakumeen* eta gizonen berdintasunerako plan estrategikoa (aurrekontuaren %1 berdintasun-politiketan gastatzeko konpromisoa ezartzen duena).

Ipar Euskal Herria

2017. Euskal Hirigune Elkargoa sortu zen. Eskumen eta gaitasun gutxiko instituzioa da, baina, borondate politikoa balego, bertatik berdintasun-politikak garatzeko aukera legoke.

2019. Euskal Hirigune Elkargoak tokiko bizitzan gizon eta emakumeen* arteko berdintasunaren aldeko europar gutuna sinatu zuen, eta 2019ko ekainean ekintza-plan bat onartu zuen.

2021. Euskal Hirigune Elkargoak udalei zuzendutako emakumeen* eta gizonen arteko berdintasunerako gida praktikoa argitaratu zuen, 14 fitxa proposamen zehatzekin. Gomendio horien artean, udalerrri bakoitzean berdintasunari buruzko erreferente bat, eta berdintasunerako batzorde bat sortzea daude.

Ipar Euskal Herrian ez dago erakunde autonomorik, departamentu baten azpibatzaordea dago, parte hartze mistoa (gizon eta emakumeak*, hautetsiak eta jendarte zibila) eta berdintasunean formazioa ez duen teknikari batek dinamizatzen du. Teknikari berak beste lan batzuk ere baditu.

2024: IEHko lehen Emakumeen* Etxea zabaltzeko ekimena abian jarri da, EBA Egiatzko Berdintasunaren Alde koordinazioak bultzatuta.

1.2. Ibilbide honetan azpimarragarriak diren gakoak

Ezinezkoa egin zaigu eta ezinbestekoa ikusten dugu Euskal Herriko berdintasun-politika publikoen eta berdintasunerako unitate edo organoen mapa egitea (EAE, Nafarroa, Ipar Euskal Herria, lurralde-mailakoak eta udalerrri-mailakoak). Mapa horretan jaso beharko litzateke zer egitura dau den (baldin badaude) herrialde bakoitzean, osaera (zenbat lagunez osatuak), kokapena (erakundearen hierarkian non kokatzen diren) eta zer aurrekontu duten. Baita administrazio hauek zein eskumen dituzten, garatzen dituzten edo ez eta nola, zein gobernantza gauzatzen duten, azkenik noraino Espainiak eta Frantziak baldintzatzen eta mugatzen duten gure lurraldeen autonomia.

Berdintasun-egituren sendotasuna vs. prekarietatea ere aztertu beharko litzateke. Berdintasun-egituren prekarietatea konstante bat da leku gehienetan, prekarietate ekonomikoa eta pertsonala. Gobernu ezberdinetan berdintasun-politikez arduratzen diren pertsonen egonkortasun falta arazo bat da, berdintasun-politikak eta politika feministak epe ertain-luzekoak baitira.

Zalantzarik gabe marko normatibo orokorra zabala da, EAEn eta Nafarroan marko juridikoa nahiko garatua eta aurreratua dago, eta berdintasunaren esparruan sortu den arkitekturak asko eman dezake, eragiteko ahalmena eta bitarteko nahiko balitu. Lege hobeagoak behar dira, zalantzarik gabe, baina daudenak muturreraino garatzea eta sinatzen diren adierazpenak praktikara bideratzea jauzi izugarria litzateke. Idatzia dagoena gauzatzea urrats kualitatiboa litzateke. Noraino garatzen dira onartutako gomendioak eta legeak? Politika publikoen eragina praktikan noraino heltzen da? Zer behar da politika hauek benetako inpaktua izan dezaten?

Horiek dira erantzun beharreko galderak. Aurrekontua handitzea eskatzeko joera dago (eta zenbait lekutan hala izan behar du), baina ez egitura finkatzekoa eta pertsonak inbertitzekoa, eta,

ondorioz, kudeaketa arazoak sortzen dira. Duela urte batzuetako ikuspegia dago oraindik, berdintasun-politikan edukirik ez zegoenekoak. Orain, edukia eta arau-esparrua daude, eta beharrezkoa da horiek gauzatzeko bitartekoak, denbora eta zilegitasuna izatea. Berdintasun-politiken eraginkortasun falta aurrekontuen bidez konpondu nahi izateak zerbitzuen eta asistentziaren pribatizazioarako joera indartzen du egoera honetan. Alegia, egiturek pertsonal faltarengatik egin ezin dutena kanpo kontratazioaren bidez egiten dute (kanpainak, planak, diagnostikoak, dekretu proposamenak...). Joera hau bereziki hedatua dago Ipar Euskal Herrian, non berdintasun-egiturak ez dauden oraindik eta diru publikoz lagundua den asistentzia pribatua nagusitzen den.

Berdintasuneko institutuak, Emakunde (EAEn) eta NABI (Nafarroan), erakunde autonomoak dira, biak hala biak Lehendakaritzan kokatuak. Lehendakaritzan kokatuta egoteak autonomia eta autoritatea eman beharko lieke, baina, ez dute halakorik, eta ez dute santzionatzeko, ez salaketak bideratzeko ahalmenik ere. Erakunde hauek berdintasunaren inguruko sentsibilizazioa eragiten badute ere (administrazioaren barruan eta jendartearen) intzidentziarako ahalmena mugatua da. Gogoetarako hipotesi bat luzatzen dugu: Berdintasuna berezko departamendua bilakatzearena, gobernu-politikak egiteko eta gainontzeko departamenduetan eragiteko ahalmen gehiago eskuratu litzatekeelakoan.

Berdintasun-politika publikoen sorrera eta instituzionalizazio-prozesua mugimendu feministaren aldarrikapenen ondorioz izan bada ere, euskal mugimendu feministatik errezeloz begiratu izan dio prozesu horri. Oroitu nahi dugu Emakunderen sorrerak eztabaida handiak sortu zituela (Leioako II. Jardunaldi Feministak, 1984), eta hamarkada hauetan maiz sumatu dela mugimendu feminista eta instituzioak bi mundu paralelo bailiran izan direla. Instituzioek diskurtso eta ahots feminista berenganatu dute, eta mugimendu feministan erakundeetan eragiteko borondate eza nabaritu da.

Edonola ere, feminismoa plurala da, plurala eta dibergentea bere agendan eta iritzi politikoetan ere, eta ondorioz, ezin dira diagnostikoak orokortu. 90eko hamarkadatik aurrera, mugimendu feministaren aldarrikapen batzuk berdintasun-politika publikoetan gorpuzten dira, eta mugimendu feministako kide batzuk berdintasun-teknikari lanetan hasiko dira. alderdi feministak ere hamarkada honetan sortu ziren, ikusgaitasuna emateko emakumeoi* eta feminismoari (Plazandreok emakumeen* plataformak Donostiako udal hauteskunde guztietan parte hartu zuen 1995etik 2015era, eta 1999tik 2011ra, berriz, foru hauteskundeetan eta beste udalerrri batzuetan ere lehiatu zen).

Hori esanda ere, mugimendu eta borroka feministak diskurtsoan eta politikan erakutsi duen eragiteko gaitasuna azpimarratu behar da. Azken hamarkada honetan feminismoaren mobilizazioek eta interpelazioak gora egin dute eta horren guztiaren emaitza bada marko legegileak bizi izan duen indartzea eta zabalpena ere. Nolabaiteko desborde bat gertatu da, indar-harreman instituzionalen aldaketa bat eta dinamika feminista bizkor bat: indarkeria matxistaren kontrako mobilizazio jendetsuak (San Ferminetako talde-bortxaketa adibide), 2018ko eta 2019ko martxoak 8ko greba feministak (kontsumo, enplegu eta zaintza greba ere bilakatu zirenak) eta 2023ko greba orokor feminista, zaintza eskubidearen unibertsalizazioa aldarrikatzen zuena. Era berean, femi-

nismoak aldarrikapen berriak ekarri ditu jendartera eta instituzioetara (indarkeria, zaintza, arrazakeria, askotariko identitate sexualen aitortza eta ikusgaitasuna...), politiketan perspektiba berriak irekiz eta are gehiago ireki zitezen aldarrikatuz.

Hasieran emakumeoi* zuzendutako politikak gizarte zerbitzuetan kokatu ziren, eta kutsu asistentzialista zuten. Berdintasuneko egiturak, politikak eta legeak sortzen joan diren heinean, Hego Euskal Herrian, logika horrekin hausten zuen bide propio bat hasi da. 2010eko hamarkadatik aurrera, zeharkakotasunaren estrategia garatzeko erronka eta betebeharra ezarri izanak jauzi politikoa ekarri du honetan, asistentzialismoarekin bukatu ez bada ere; baina estrategia hori ordu-ra arteko baliabide berberekin gauzatu beharrak eraginkortasuna kendu dio. Ipar Euskal Herrian oraindik ere emakumeoi* zuzendutako politikak sozialetik eta asistentziazatik garatzen dira nagusiki.

Euskal Herriko bilakaeran hiru momentu ekarri nahi ditugu gogora: lehenengo biek politika publikoak norabide aurrerakoiagoan garatzeko aukera sortu zuten (2011n bukatu zen ezkerreko subiranismoa legez kanpo uzteko prozesua, eta Nafarroan 2015etik aurrera bukatu zen UPNren erregimen kontserbadorearen nagusitasunaren zikloa); hirugarrena IEHn politika publikoak egiteko aukeran jauzia eman zeneko momentua da, 2017an Euskal Hirigune Elkargoa sortu zenekoa:

Lehenengo momentua, 2011n, Bildu Gipuzkoako Aldundian eta Gipuzkoako udalerri askotan gobernatzera iritsi zenean. Gipuzkoako Foru Aldundiak berdintasuneko organoan teknikarien lantalde bat sortu zuen orduan, goi mailako teknikarien estatusarekin eta Ahaldu Nagusiaren Kabinetean kokatu zena. Berdintasunerako II. Foru Plana ebatzi zen, erreferente bihurtu zena berdintasun-politika publiko eraldatzaileen ikuspegitik. Ondoren, 2015ean, Berdintasuneko Lehenengo Foru Araua etorriko da, berdintasun-politika publikoak blindatzeko Aldundiaren aurrekontuaren % 1 politika horietara bideratzea arautu zuena, eta zeharkakotasunaren estrategia garatzeko sail bakoitzean berdintasun-unitate bat sortzeko betebeharra ezarri zuena. 2011 aurretik ere, Gipuzkoan, udal batzuek berdintasuneko egiturak handitzeko apustua egin zuten. Lehenengo aldiz, organo unipertsonalak izateari utzi, eta lagun gehiagoz osatu ziren.

2015ean egin ziren Foru eta Udal Hauteskundeetan, UPNren eta eskuinaren nagusitasunaren aroari bukaera eman zitzaion. Indar korrelazio berri hura Nafarroan gertatzen ari zen aldaketa sozio-politikoaren emaitza izan zen. Orduz geroztik, UPN-rik gabeko koalizio eta aliantza instituzional ezberdinak egon dira (besteak beste, Nafarroako Gobernua eta Iruñean). Modu honetan, hamarkada luzeetan Nafarroako politikan nagusi zen eta OPUS-ek ardazten zuen erregimen kontserbadoreari muga ezartzen hasiko zaio. Zalantzarik gabe ziklo berri bat irekiko da politika publikoen norabidean (nahiz eta oraindik hutsuneak dauden, 2023. urteko koiuntura azterketan euskararen kontrako oldarraldiaren atalean azaltzen genuen bezala, adibidez) eta berdintasun-politikei dagokienez.

Azkenik, Euskal Hirigune Elkargoa Ipar Euskal Herria aitortzen duen lehen instituzioa da, esku-men mugatuak dituen baina lurraldearentzat politikak egiteko baldintzak eta eztabaidak bizkortzen dituen. Berdintasunak politika publikoen estatusa irabazi dezan lortu behar da orain.

Berdintasun-politika eta estrategia horien babesean, bestelako egitura eta proiektu mota batzuk ere sortu dira, horietako asko erakundeen nolabaiteko elkarlanarekin. Akademiaren arloan, adibidez, eta besteak beste berdintasun-teknikarien formaziorako, 2001ean Emakumeen* eta Gizonen Berdintasunaren Gaineko Masterra eta 2008an Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra zein izen bereko doktorego-programa hasi ziren eskaintzen EHU-UPVn. NUP-UPNAn, berriz, Genero Ikasketen eta Ikasketa Feministen Katedra sortu zen 2022an, eta Unibertsitate Masterra Genero, Emakume* eta Berdintasun Gaietan. Nafarroaren kasuan, IPES elkatearen Feminismoen Eskola ere aipagarria da.

Berdintasun-politikak eta berdintasunerako planak orokortzen diren heinean, prozesu hauetan laguntza teknikoa emango duten elkarte feministak ere ugartzen dira. Arkitektura horien arteko sinergiak eta aliantzak sortzea ekarpen handia litzateke Euskal Herrian garatu beharreko politika feministentzat. Besteak beste, jakintza harremanean jartzeko, ebaluazioak egiteko, diskurtso kritikoa sortzeko eta iparrorratza elikatzeke. Hots, feminismoaren aurrerapen zientifiko eta politikoa politika eta egitura publikoetara ekartzeko.

2. Berdintasun-politika publikoen analisia: Lorpenak, zailtasunak eta ikaspenak

2.1. Analisia 1. Berdintasun-politika publikoen estrategia duala: berdintasun-politika espezifikoa eta genero-zeharkakotasuna

1980ko hamarkadatik aurrera, baina, batez ere, 90eko hamarkadatik aurrera, berdintasun-egituratik berdintasuneko berariazko politikak garatu ziren: emakumeei* bideratutako politika horiek abiapuntuko egoera hobetzea zuten helburu. 1995ean, Beijinen, Nazio Batuetako Emakumearen* Inguruko IV. Mundu Konferentzian, zeharkakotasunaren estrategia berdintasuna lortzeko ezinbesteko estrategia gisa proposatu zuten. Estrategia dualaren planteamenduak indarra hartu zuen ordutik: zeharkakotasunaren estrategia eta berdintasuneko berariazko politika publikoak.

Ekintza positiboaren estrategia deitu izan zaion arren, egokiagoa deritzogu berdintasuneko berariazko politikei buruz hitz egitea; berdintasuna bultzatzeko estrategia instituzionalen multzoa dira: emakumeen* ahaldunderako neurriak, kontzientziazio feministarako politikak, desberdintasunak konpentsatzen saiatzeko neurriak, edota ordezkartza eremuetan kuotak ezartzea, batzuen artean.

Berdintasun sailetatik garatzen diren politika espezifikoak oso eraldatzaileak izan daitezke, baina, bitartean, gainerako sailen edo departamenduen politika publiko guztiak beste norabide batean badoaz sistema patriarkalak egonkortzen jarraitzen du. Mainstreamingaren estrategiak politika publiko guztiei begiratzen die beraz eta sail eta departamendu guztiak interpelatzeko dituzte. Aitzitik, estrategia hori motelagoa da eta konpromiso osoagoa eskatzen du, politika publikoen eremu guztietan gizonen eta emakumeen* arteko berdintasuna lortzeko plan integralak ezartzea eskatzen baitu.

2.1.1. BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK

Euskal Herrian, 1990eko hamarkadan hasi ziren politika horiek garatzen, eta horretan jarri da indar handiena. Zeharkakotasunaren estrategiarekin alderatuta, berdintasun-politika espezifikoak garatzea erabat edo ia erabat berdintasun-sailen esku dagoen kontu bat da eta, beraz, berdintasun-teknikariek aukera izan dute horiek garatzeko. Mainstreaming-aren estrategia garatzea, berriz, ez dago soilik haien esku; gainerako sailak sartzen dira jokoan eta haien garapena beste batzuen eskuetan ere badago.

Berariazko berdintasun-politika horietan testuinguru politikoa gakoetako bat da. Bultzada politiko nabarmena izan den lurraldeetan berdintasun-politika espezifikoak nabarmen garatu dira; eta hala izan ez den lurraldeetan, apenas hitz egin dezakegu berdintasun-politikez. Euskal Herrian, beraz, alde handia dago lurraldeen eta udalen artean.

Sarreran aipatu dugun bezala, testuinguru orokorragoari ere begiratu behar zaio. Iparrorratz gisa hartu izan ditugu Europa iparraldeko herrialdeak, eredu desiragarri gisa. Herrialde horietan berdintasun-politikak Ongizate Estatu aurreratu baten testuinguruan gauzatu dituzte. Euskal Herrian, ordea, ez da halakorik gertatzen. Berdintasuneko berariazko politikak gaur egungo errealitate sozio-ekonomikora eta politikora egokitu behar dira, eta aintzat hartu kapitalismo bortitzaren, krisi ekologikoaren eta feminismoaren kontrako erreakzioaren aroa bizi dugula. Ondorioz, besteak beste, emakumeon* artean dauden askotariko ezberdintasunei gehiago erreparatu beharko zaie.

Horrekin lotuta, berdintasun-politikak feminismoaren 3. olatuan hasi ziren, orduko ikuspegiari erantzunez; baina, gaur egun, 4. olatuan gaude, eta feminisмотik egiten diren irakurketek bilakaera bat izan dute. Berdintasun-politika publikoen iparrorratzaz hausnartu beharra ekartzen du horrek: berdintasun-politikak familia patriarkal parekideagoak izateko nahi ote ditugun, ala familia bera desagerrarazteko; emakume* eta gizonak parekoago izateko, ala bi kategoria horiek desagerrarazteko.

Emakumeen* Etxeak

Berdintasun-politika espezifikoetan, emakumeen ahalduntzearen ardatza nabarmen garatu da azken urteotan, ahalduntze eskoletan oinarrituta, batetik, eta emakumeen* etxeen sorrerarekin,

geroxeago. Emakumeen* etxeen loraldi fase batean gaude Euskal Herriko lurralde guztietan, bere alde on eta txar guztiekin, eta beharrezkoa ikusi dugu proiektu horien ezaugarrietan sakontzea:

Emakumeen* etxeak bi helburu nagusirekin lotu izan ditugu: batetik, emakumeen* ahalduntzerako tresna gisa; bestetik, mugimendu feminista indartzeko tresna gisa.

Emakumeen* ahalduntzeko espazio bat eskaintzeari dagokionez, badirudi funtzio garrantzitsua betetzen dutela, Pepa Bojoren ikerketak adierazten duen bezala. Ahalduntze prozesuek emakumeengan* sortzen dituzten aldaketez ikertu du, autoestimuan, osasunean eta harremanetan arreta berezia jarrita²⁰.

Bestetik, emakumeen* etxeak mugimendu feminista indartzeko bitarteko gisa ere ulertu izan ditugu. Badirudi ez dagoela lotura zuzenik, ordea, emakumeen* etxeen eta mugimendu feministaren osasunaren artean. Galderak sortu dira emakumeen* etxeek mugimendu feministan duten inpartuarekin: indartu egiten dituen edo, kontrara, ahuldu. Askotan, mugimendu feminista indartzeko, emakumeen* etxeen kudeaketa euren gain uztea izan da estrategia; baina kontrakoa ere eragin izan du horrek. Erronka bat da emakumeen* etxeek antolakuntza eta partaidetza politiko eraldatzailea bultzatzeko zer eta nola egin dezaketen pentsatzea.

Emakumeen* etxeak sortzeko helburu nagusia ez izan arren, indarkeria matxista sufritzen duten emakume* askoren erreferentzia gune bilakatzen dira, eta hor lan handia egiten dute.

Emakumeen* etxeak sortzeko prozesuak ertz asko kontuan hartzea esan nahi du. Ezin dira modu automatikoan egin, eta denentzat baliagarria den formula bakar bat ez dago. Bestetik, emakumeen* etxe deitzen zaio ia edozer gauzari (esanahia husten ari da, nolabait). Udal batzuek lokal bat jartzen dute horretarako, eta badirudi nahikoa dela horrekin. Emakumeen* etxe batek bitartekoak behar ditu: pertsonak eta aurrekontuak, besteak beste. Hala eta guztiz ere, duten potentzialitatea eta balioa ikusita, aintzat hartu beharreko proiektuak direla uste dugu.

2.1.2. GENERO-ZEHARKAKOTASUNAREN EDO MAINSTREAMING-AREN ESTRATEGIA

Jatorrizko esanahia ingelesezko mainstreaming kontzeptuan oinarritzen da. Mainstreaming-ek korrante nagusia esan nahi du. Horren arabera, berdintasun-ikuspegiak edo -printzipioak politika publiko guztiak (ez soilik berdintasunekoak) busti behar lituzke; eta, busti bakarrik ez, korrante nagusi bilakatu beharko litzateke, horien guztien norabidea bera baldintzatuz. Kontzeptua beste hizkuntzetara (euskarara barne) itzultzerakoan, esanahiaren zati bat galdu du: “zeharkakotasu-

20 Pepa Bojó Ballester (2022), Gipuzkoako ahalduntze-taldeak: parte hartzeko arrazoiak eta aldaketa esanguratsuak, GFA, <https://tinyurl.com/2yamkw43>.

nak” gainerako politika publikoak bustitzeari egiten dio erreferentzia, baina izan behar duen zentraltasunaren ideia bazterrean geratu da.

Zeharkakotasunaren estrategia, nagusiki, berdintasuna bultzatzeko ardura berdintasun-egituretatik harago eramatean oinarritu da. Berdintasun-egiturei estrategia hori sustatzeko ardura eman zaie, baina gainerako sailak dira bakoitzari dagozkion politikak eta ekintzak garatu behar dituztenak (eta horiekiko ardura dutenak). Berdintasuneko egiturek gainerako sailei lan hori eginarazteko (edo egin dezaten sustatzeko) posizio sinboliko eta hierarkiko esanguratsua eta zentrala izan behar dute erakundeetan (haien funtzionamendua oso baita hierarkikoa), eta gehienetan ez da gertatzen.

Estrategia horren bilakaera Euskal Herrian, honako hau izan da:

Erakunde handietan berdintasuneko unitateak sortu dira, sustatzeko funtzio horrekin: Eusko Jaur-laritzaren sail bakoitzean berdintasun-unitate bat (berdintasuneko teknikari bakar bat) dago horretarako. Nafarroako Foru Gobernuan sailetako berdintasun-unitateak sortu berri dituzte. Gipuzkoako Foru Aldundiko sail guztietan teknikari bana dago funtzio horrekin (berriazko trebakuntzarik gabe, saileko langilea, bere lanaldiaren zati bat funtzio horretarako). Araban Kuadrilla bakoitzak berdintasun-teknikaria du. Oso egitura ahulak eta prekarioak dira orohar, dauden lekuetan eragin ahal izateko beharrezko aitortzarik eta zilegitasun nahikorik ez dutenak. Ipar Euskal Herriari dagokionez, ez dago halako politikarik.

Nafarroaren kasuan, 2024an onartutako foru dekretu baten bidez, departamentu guztien zuzendaritzak biltzen dituen departamentu arteko batzorde bat sortu da. Batzorde hau garrantzitsua izan daiteke diskurtsoa sortzeko. 13 sail edo departamentu daude Nafarroako Gobernuan eta 8 teknikari. Dekretu honen bidez, sailetan dauden teknikarien funtzioak zehaztu dira, departamentuetako idazkaritza nagusietan kokatu dira eta NABlko langileak bihurtu. Dekretu honek ez ditu dauden egiturazko arazoak konponduko, baina zeharlerrotasuna egitura baten bidez eta berdintasunaz arduratzen den erakunde batetik zuzenduta egotea interesgarria da. Aztertu beharko da haren bilakaera.

Udaletan, berriz, berdintasun-politika espezifikoak garatu dira berdintasun sailetatik, batez ere; zeharkakotasunaren estrategiak ibilbide laburra izan du. Badaude udal batzuk estrategia garatzen saiatu direnak, eta haien ikaspenak partekatzea garrantzitsutzat jotzen dugu.

Mainstreaming-aren estrategia, jatorriz, oso tresna politiko ahaltsua da. Osotasun batean pentsatzen hasteko anbizioa dauka. Berdintasun-egiturei ezarritako eremuaz harago doa, eta politika publiko guztietan eragiteko ateak irekitzen ditu. Erakunde publikoak eraldatzeko aukera ematen du, bai egiteko moduetan, bai politika publikoen edukietan eta norabidean.

Tresna politikoa den neurrian, ezinbestean eskatzen du borondate politikoa. Alde horretatik, ezin da izan teknikarien esku uzten den zerbait. Inplikazio eta bultzada politiko handia behar du. Proiektu politiko eraldatzaile sendo bat behar du atzean, bestela, prozesu tekniko bihurtzen da. Potentzia handiko estrategia horrek tramite huts bilakatzeko arriskua du, eta horrek estrategia horren balioaren eta eraginkortasunaren inguruko zalantzak sortu ditu. Hona, eztabaida horretan nabarmentzen diren alderdiak:

Zeharkakotasunaren estrategia garatzeko ezagutza marko bat sortu da, tresnak eta gidak sortu dira. Hori guztia baliagarria izan da estrategia sustatu behar duten berdintasun-unitateentzat; baina estrategia hori bere esanahi politikoa eta eraldatzailea galtzen joan da, eta auzi tekniko baten gisan ezaugarritu da: badirudi nahikoa dela genero inpaktuaren azterketa bat egitea, edo kontratuetan berdintasun-klausula batzuk txertatzea. Burokratizazio eta teknifikazio arriskua. Teknifikazioak despolitizazio bat ere ekarri du. Estrategiari esanahi eraldatzaile eta politikoa kendu zaio, eta, maiz, prozeduran jarri da arreta, prozedura horien helburuaren inpaktua neurtu gabe.

Estrategia hori garatzeko zailtasun nagusia administrazioa bera eta administrazioiko dinamikak dira. Administrazioaren kultura eta egiteko moduak, dagoen zatikatzeari alde batera utzi behar ko litzateke, eta elkarlanean, ikuspegi integralarekin lan egiteko kultura sortu, mainstreaming-ak funtziona dezan. Mainstreaming-a bera gauzatzea eraldaketa bide izan daitekeela uste dugu. Horrez gain, konturatu behar gara administrazioko langileek ez dutela berdintasunaren inguruko formaziorik ezta sentsibilitaterik adierazi beharrik ere. Beraz, askotan, langileak berak dira erresistentzia gehien azaltzen dutenak.

Estrategia hori sustatzea eskatu zaie berdintasun-egiturei, ordura arte dituzten bitarteko berberak erabilita (pertsona kopurua handitu gabe, eta aurrekontu antzekoekin). Ardura berri bat ezarri zaie, beharrezko bitartekorik gabe. Udalean teknikari bakarrak ezin du estrategia duala garatu; ezinezkoa da.

Azkenik, zeharkakotasunaren izenean, berdintasunari berariaz erreparatzeari uzteko arriskua egon daiteke; berdintasunak dena busti ordez, berdintasuna urtzea beste politika guztietan. Horregatik guztiagatik, zeharkakotasunak itsasargi feminista behar du, gida feminista argi bat, eraldatzeko benetako potentzia izan dezan, eta emantzipazioaren alde bultzatzen dezan.

2.1.3. GOGOETAN PARTEKATU DIREN BESTELAKO ONDORIO BATZUK

Zeharkakotasunaren estrategia porrot bat izan delako sentsazioari aurre egin behar zaio. Izan ere, inoiz jarri ez diren bitartekoak eta egiturak behar ditu.

Badaude berdintasun-politiketan gakoak diren bi gai; indarkeria matxista, eta zaintza; baina berdintasun-egiturek ez dute horietan esku hartzeko lidergo aitorturik eta nahikoa eskumenik. Nola

egin bi gai horietan lidergoa eta gidaritza izateko? Zaintzak eta indarkeria matxista zeharkako gai gisa ulertu izan dira, eta trataera hori eman izan zaie.

Indarkeria matxistaren kasuan, berdintasun-politiketarik sentsibilizazioa eta ahalduntzea landu ditzakete, batez ere; eta, une honetan, emakumeen* etxeetatik emakumeei* zuzeneko arreta ere eskaintzen ari dira. Baina arreta zerbitzu espezializatuak zerbitzu sozialetan daude, eta horietan gailendu daitekeen ikuspegiak gehiago izan dezake asistentzialismotik ahalduntzetik baino. Bestetik, bestelako politikak ere behar dira erantzuna emateko, adibidez, etxebizitza politika, eta berdintasun sailetatik oso urrun geratzen da.

Zaintzari dagokionez, berdintasun sailek ez dute esparru horretan aldaketak eragiteko eskumenik, sentsibilizazio eta gogoetaz harago. Zeharkako gaia da, aurrekoa bezala, hainbat esparrutatik heldu behar zaiolako; baina berdintasunaren lidergo eta gidaritzarik ezean, zail izango da gai horiei ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik erantzutea.

Hezkuntza-sisteman egin beharreko lanketa/eraldaketa (hezkidetzak eta pedagogia feminista) oso marginala da gaur egun eta bestelako arreta bat jarri behar zaiola ere uste dugu. EAEn hezkidetzarako bitartekoak, trebakuntza eta egiturak udaletako berdintasun-organoetatik bideratzen dira (Eusko Jaurlaritzak ez duelako berea den ardura hartzen). Nafarroan, Gobernutik bideratzen dira (Eskolae Programa), eta Ipar Euskal Herrian, udalek eskola kanpoko jardueretarako eskumena duten arren, hezkidetzari ez zaio lekuri eskaintzen. Eskolek eraldaketa feministan zein garrantzi duten eta zein rol jokatu beharko luketen eta, ondorioz, hezkuntza sisteman ikuspegi feministak zein leku behar duen gogoetatzea ezinbestekoa ikusten dugu.

Berdintasun-politika publiko eraldatzaileak egiteko, mugimendu feminista indartsu baten garrantzia begi-bistakoa da. Mugimendu feminista ari da bide berriak sortzen, eta berdintasun-politika publikoek jarraitu egiten diote benetako borondate politikoa dagoenean. Alta, berdintasun-politiken hartzaileak emakumeak* eta jendarte osoa dira, hainbat ideologia eta kontzientzia mailatakoak; jendartearen eraldatzeko estrategiak eta diskurtsoak dira beharrezkoak direnak.

Azkenik, uste dugu emakumeon* emantzipazioa prozesu indibidual gisa bainoago prozesu kolektibo gisa ulertu behar dela. Hau da, berdintasun-politikak barne hartzen dituen eredu sozio-politiko eta ekonomikoa aintzat hartu behar da instituzioen politika baloratzeko; jendartearen eta, ondorioz, harreman hetero-patriarkaletan eta emakumeengan* erakundeetatik egiten den eta egiten ez den guztiak baitu inpaktua. Are, uste dugu berdintasun-politiken eraginkortasunak lekuz lekuta eta garaian garai nagusitzen den eredu soziopolitikoarekin eta erakundeetan dauden indar harremanekin lotura estua duela. Horrek guztiak zehazten baitu nork duen gaitasun legegilea eta exekutiboa, nork ezartzen dien berdintasun-politikei markoa, eta zenbat botere eta gaitasun eskaintzen zaien politika horiek exekutatzeko bitartekoei. Talaia Feministak berdintasun-politika eta egitura publikoetan zentratu du bere analisian, estrategikotzat jotzen ditugulako eta horietan zuzenki eragin behar delako. Baina gogoratu nahi genuen feminista gisa ikuspegi zabalagoa izan behar dugula erakundearen politikak aztertzerakoan.

2.2. Analisia 2. Mugimendu feministaren papera eta interlokuzioa berdintasun-politika publikoetan: egindakoaren balantzea eta ikaspenak

Berdintasun-politika publikoak mugimendu feministarekin pentsatu, garatu eta ebaluatu behar dira pentsatuta, borondate politikoa eduki duten erakundeetan berdintasun-kontseiluak sortu izan dira. Berdintasun-kontseilu hauek aurre-ideia batekin hasi ziren sortzen, nolabait esanda kontseiluak zirela mugimendu feministak berdintasun-politika publikoetan parte hartzeko kanalik demokratiko eta egokienak. Batzuetan mugimendu feministak erabakiak hartzeko ahalmena du, beste batzuetan berriz informazioa jasotzeko eta berdintasun-politikei zilegitasuna emateko erabili da.

Urte luzeetako esperientziaren ondoren, interlokuzioa modu honetan soilik gauzatu behar delako ideia birpentsatzeko beharra dago. Are, zalantza dugu ea mugimendu feministaren interlokuzioa ziurtatzeko berdintasun-kontseiluak sortzeko estrategia, gaur-gaurkoz, agortua ez ote dagoen. Argi duguna da ezin dela leku guztietarako formula gisa erabili. Formula ezberdinak pentsatu eta martxan jartzeko beharra dago, beraz. Izan ere, instituzioei exijitu behar zaiena da mugimendu feministari entzutea eta emakumeen* zein jendartearen parte hartzea eta erantzunkidetasuna bultzatzea eta ziurtatzea.

Entzute horrek zein forma hartuko duen, hori beste kontu bat da; baina entzutea da garrantzitsua, nahiz eta modu organiko batean parte hartu ez. Garrantzitsua da halaber mugimendu feministaren nahiak, agendak, erritmoak eta autonomia errespetatzea.

Kontuan hartu behar da ekosistema feminista oso aberatsa den arren mugimendu feministaren antolaketa-eredua ahula dela. Egun antolakunde feminista bakarra dago Euskal Herria osoan hedatua dagoena eta proiektu osoa duena (Euskal Herriko Bilgune Feminista), gainontzeko eragile feministak sektorialak edo tokikoak dira eta pandemia ostetik mugimendu feministaren koordinazio-markoak asko ahuldu dira, gaur egun bi koordinazio-marko orokor dauden arren: Bizitzak Erdigunean eta EH-ko Emakumeen* Mundu Martxa. Honek guztiak bide berriak bilatzea eta errekursoak eskaintzea ezinbesteko egiten du.

Mugimendu feministarekin interlokuzioa eta eragiteko gaitasuna birpentsatzerakoan, kontuan izan behar da mugimendu feminista ez dela bat eta bakarra. Plurala da, talde bat baino gehiago daude, eta feminismoa ez da soilik mugimendu feminista autonomotik garatzen. Badaude, gaur egun, bestelako taldetan diharduten lagun feministak eta taldeetan antolatu gabe feminismotik aritzen direnak esparru ezberdinetan (osasun-edo hezkuntza arloan, kulturean, zientzian...). Parte-hartze bideak feminismoaren egungo ezaugarrietara gaurkotu behar dira.

Emakumeen* etxeek bete-betean bat egiten dute interlokuzioaren gaiarekin. Izan ere, gune horietan izan beharreko partaidetza-mota eta papera hausnarketa-gai esanguratsua da gaur egun. Udalerrri batzuetan berdintasun-politika esanguratsuak garatzen ari dira, ibilbide luzeko emakumeen* etxeak dituzte, eta ez dago mugimendu feminista antolaturik. Kasu horietan, emakume* feministekin egiten da harremana, nahiko maila indibidualean. Emakumeen* etxeen gestio-mode-

lo ezberdinek pistak eman ahal dizkigute mugimendu feministaren eragin gaitasuna handitzeko bideei dagokienez. Hernani litzateke interesgarria den adibide horietariko bat, prozesu luze baten ondorioz espazioaren birplanteamendu bat eman da eta Emakumeen* Etxea izatetik Kulturarteko Plaza Feminista izatera pasa da.

Instituzioekiko dagoen desloturak modu negatiboan eragiten du erakundeetan parte hartzeko nahian, baita emakumeon* artean ere. Mugimendu feminista eta oro har jendartea politikara hurbiltzeak lehen mailako helburua izan behar duela uste dugu, eta, horretarako, instituzioek askotariko bideak ezar ditzakete. Are, zergatik ez baloratu asistentzia edo bitarteko teknikoak eskaintzea eta laguntza ekonomikoa bideratzea mugimendu feministak politika publikoetan parte hartu dezan.

Dirulaguntza-politikek ere eragina dute mugimendu feministarekin sortzen den harremanean. Batetik, dependentzia-harreman bat sor daiteke, non burokraziaren ondorioz tresna dena helburu bilakatzen den. Bestetik, hausnartu beharko litzateke ea gobernu kanpoko erakundeentzako (GKE) dirulaguntzak dauden bezala, taldeen egiturak ordaintzeko ere dirulaguntzak behar ote diren (liberatuak eduki ahal izateko, esaterako).

Euskal Herriko mugimendu feministak ibilbide bat egin du erakunde eta politika publikoekiko agentzia eskuratzeko, baina, orokortuz esan dezakegu ez duela lortu harreman iraunkorra izatea udalez gaindiko erakundeekin, Eusko Jaurlaritzarekin edo Nafarroako Gobernuarekin, esaterako. 2023ko Greba Feminista Orokorrean zuzenean eskatu du harremana bi erakunde horiekin. Interlokuzio eskaera honek berrikuntza nabarmena dakar, eta mezu aldaketa bat ere bai, nolabait: mugimendu feministak politika publiko nagusietan ere eragin nahi du, eta ez soilik berariazko berdintasun-politiketan.

3. Berdintasun-politika publikoak aurrera begira: zer jauzi eman behar ditugu eraldatzaileak izan daitezen?

Orain arteko analisitik abiatuta, aurrera begira jarri nahi izan dugu. Izan ere, orain arte egindako ibilbidea aztertzeak egindakotik ikasteko aukera ematen badigu, aurrera begira jartzeak beharrezko jotzen ditugun jauziak eta aldaketak egiteko indarra eta norabidea emango dizkigu.

Orain arteko ibilbidearen analisia oso egon da lurrari lotuta, eta egiten den horri ahalik eta begirada zolienarekin begiratzeko ahalegina egin dugu. Aurrera begira egin beharreko jauziak irudikatzerakoan, ordea, gure begirada analisitik edo lurretik pixka bat jasotzeko ahalegina egin dugu, ezagutzen dugunaren markoa gainditu ahal izateko eta jauzi estrategikoak eta anbiziotsuak irudikatzeke.

Bestetik, aurrera begira eman beharreko jauzien inguruko proposamen hau ez da itxia. Jauziak irudikatzen hasteko eta horien inguruan eztabaidatu eta gogoeta egiteko oinarri bat da hemen jaso duguna.

Eztabaidarako ondorioak eta jauzi-proposamenak hiru ataletan antolatu ditugu: lehen atalean, berdintasun-politika publikoen estrategia dualarekin lotutakoak jaso dira; bigarrenean, Euskal Herrian berdintasun-politika publikoak bultzatu eta garatzeko egituren inguruan pentsatzeko ideiak agertzen dira; eta, hirugarren atalean, berdintasun-politiketan mugimendu feministaren paperari eta interlokuzioari buruz hausnartzeko gako batzuk proposatzen dira.

3.1. Berdintasun-politika publikoen estrategia dualari buruz eztabaidatzeko ondorioak eta jauzi-proposamenak

Lehenengo ondorioa, zera da, genero-zeharkakotasunaren estrategiak potentzial handiak ditu, bai berdintasun-politikez haragoko politika publiko nagusien edukia birpentsatzeko eta eraldatzeko, bai administrazio publikoaren egiteko moduak eraldatzeko (elkarlanean oinarrituta, sailen arteko konpartimentazioa gaindituz, horizontaltasuna...). Baina orain arte gutxi garatu da, ikuspegi tekniko eta burokratikoa gailendu da eta ez da behar den bitartekorik jarri. Jauzi bat emateko garaia da estrategia bere potentzial eraldatzaile guziarekin garatzeko.

Aurrera begirako jauzi esanguratsuren emateko, gure ustez, zeharkakotasunaren strategiaren esanahi politikoa berreskuratu behar dugu, eta politika publiko guztien norabidean eragiteko zereginari lotu. Horrek, orain arteko egiturez gain, zeregin horretarako propio sortutako egitura/figurak eskatzen ditu? Interesgarria izan liteke kabinete nagusietan eta alkatetzetan horretaz arduratuko liratekeen figura(k) sortzea? Estrategia dualari erantzuteko egitura dual bat sortzea, alegia?

Administrazio publikoaren egiteko moduek gauzak dauden horretan utzi edo indartzera garamatzate. Administrazio publikotik eraldatzaileak diren politikak egin ahal izateko, beharrezkoa da administrazioa bera eraldatzea. Horretarako ezagutza eta tresnak ematen dizkigu genero-zeharkakotasunaren estrategiak, baina administrazioaren egiteko moduak aldatzeko indar gehiago behar da: apustu politikoa egin behar da administrazioa aldatzeko; zeregin horretan jartzen diren departamentu eta pertsonen zentralitatea eta autoritatea eman behar zaie; horretarako bitartekoak jarri behar dira (pertsonak, batez ere). Administrazioak eraldatzeko prozesuak egin behar dira eta ez berdintasunetik bultzatuta soilik; prozesu zentralak behar dute izan.

Bigarren ondorioa: Feminismoarentzat estrategikoak diren arloetan eragiteko gaitasun gutxi dute berdintasun-politika publikoek, hala nola zaintza, hezkuntza, osasuna, indarkeria matxistaren arretaren auzietan. Berdintasunak oso eskumen mugatuak ditu arlo hauetan eragiteko (edo ez ditu) eta ez zaio aitortzen eremu hauetako politikak gidatzeko zeregina; ez du arlo hauetako politiken esanahiak eta norabideak zehazteko aukerarik.

Horri begirako jauzi-proposamenak definitze aldera, bi galdera planteatzen ditugu. Feminismoarentzat estrategikoak diren gaiak berdintasun-politika espezifikoaren poltsara pasatu beharko lirateke berdintasun-arloek horien lidergoa izan dezaten? (adibidez, zaintza edo indarkeria matxistaren

arreta). Nola antolatu beharko lirateke gai hauek erakunde publikoetan, berdintasunak lidergoa izateaz gain, gainerako sailek ere parte har dezaten?

3.2. Euskal Herrian berdintasun-politika publikoak bultzatu eta garatzeko egituren inguruko ondorioak eta jauzi-proposamenak

Bizi gara, edo hobeto esanda, gaizki bizi gara, testuinguru neoliberal batean: Erakunde publikoak eta publikoa den guztia husteko joera dago. Berdintasun-teknikariekin ere nagusi dira azpi-kontratazioa, prekarietatea... Ipar Euskal Herrian ez da berdintasun-egiturarik sortu orain arte.

Euskal Herrian oso errealitate eta ibilbide ezberdinak ditugu. Lurralde batzuetan berdintasun-politika publikoak (eta hauek garatzeko egiturak) ibilbide bat egin dute dagoeneko. Gipuzkoa erreferente eta bide-erakusle izan da, alde horretatik. Ikaspen interesgarriak ateratzen ari gara jadanik eta, agian, are gehiago ere atera ditzakegu. Era berean, beste lurralde batzuk ibilbidearen hastapenetan daude: Ipar Euskal Herria, nagusiki. Nola egin Euskal Herrian sortutako ikaspen horiek guztiak partekatzeko, elkarrengandik ikasteko, sareak sortzeko eta elkar elikatzeko?

Berdintasun-teknikarion rolaren inguruan hausnartzeko beharra dugu. Erakunde publikoak eta horien politikak aldatzera sartu gara erakundeetan; baina hausnartu behar dugu ea erakundeek nola eragiten duten gudan. Aldatu al dute gure ikuspegia eta jarduera neurriren batean eta zer ondorio ditu horrek?

Aurrera begirako jauzi bat emateko, gertuko erakundeak indartu behar dira: eskumenez eta bitartekoz hornitu, horietatik berdintasun-politika publikoak egin ahal izateko. Horrekin batera, lurralde-mailako egiturak sortu/indartu, markoak eta estrategiak jartzeko.

Euskal Herrian sortzen diren estrategia eta bitarteko publikoen biltegia eraikitzea proposatzen dugu, lurraldeen artean bitartekoak partekatzeko, euskal lurraldeen arteko erantzunkidetasuna sustatzeko eta gertuko erakundeei (maiz bitarteko eta errekurso gutxien dituztenak) lana errazteko.

3.3. Berdintasun-politiketan mugimendu feministaren papera eta interlokuzioari buruzko ondorioak eta jauzi-proposamenak

Mugimendu feministak badu indarra eta gaitasuna agenda politikoa baldintzatzeko. Zaintzaren gaia agenda politikoan sartu du, emakumeen* etxeak, emakumeen* ahaldundzia... Baina agenda politikoan sartzen diren unean gai horiekiko boterea galtzen du eta gai horiek edukiz hustu edo beste esanahi bat hartzen dute maiz. Berdintasun-unitateak dira, nolabait, horien esanahiaren zaindariak, lekukoa hartzen dutenak, baina ez daukate nahikoa botererik eta eskumenik gai horien lidergoa hartzeko (zaintzarekin bereziki gertatzen da, adibidez).

Berdintasun-politika publikoetan mugimendu feministaren interlokuzioa ziurtatzeko berdintasun-kontseiluak sortzeko estrategia, gaur egun, agortuta dago, oro har, eta birpentsatu egin behar dugu. Kontseiluen edo ohiko partaidetza-prozesuen logikak, besteak beste, mugimendu feministaren agenda eta erritmoak baldintzatzen ditu (erakundearen beharrak eta gaiak lehenestera eramaten ditu); ez dute mugimendu feministaren eragiteko ahalmena bermatzen, erakunde publikoen lengoaia gailentzen da (burokrazia eta teknifikazioa), partaideentzat arrotza dena.

Errealitate hori irauli nahi badugu, erakunde publikoetatik kanpo kokatutako mugimendu eta antolakunde autonomoen beharra dago, dialektika elikatzeko eta izaera eraldatzailea duten norabide, iruditegi eta kontzeptu berriak sortzeko, erakundeak elikatzeko eta kontrol demokratikorako (interpelatzeko, segimendua egiteko...):

Mugimendu feministak bultzatuta sortu ziren berdintasun-politika publikoak Hego Euskal Herrian. Gaur egun duten indarra ere mugimendu feministaren eta feminismoaren indarrak ematen die. Berdintasun-politika publikoek mugimendu feminista osasuntsu eta indartsu bat behar dute, izan ondoan egoteko, izan egiten dena zalantzan jartzeko eta interpelatzeko.

Horrenbestez, berdintasun-politika publikoek mugimendu feminista eta feminismoa indartzeko zeregina ere izan beharko lukete. Gatazka edo dialektika hori benetan eman ahal izateko finantzaketa behar luke izan. Erakundeek mugimendu feminista finantzatu beharko lukete mugimendu indartsu bat izateko? Nola egin beharko litzateke finantzaketa horrek mugimendu feministaren autonomia ziurtatzeko, bere jarduera baldintzatu gabe eta menpekotasun-harremanak sortu gabe? Horrekin batera, mugimendu feministaren proposamenak eta diskurtsoak entzuteko mekanismoak jarri behar dira, Kontseilu eta kanal formal eta instituzionalez harago.

Euskal Herri osoko ikuspegia izango duen behatoki bat sortzea proposatzen dugu. Organismo autonomo bat, diru publikoarekin finantzatua, maila tekniko nahikoarekin, erakundeen berdintasun-politikei benetako segimendua egiteko. Behatoki horretan hainbat eremutako ezagutzek egingo lukete bat. Erakunde eta mugimendu sozial ezberdinen lankidetzaren eremu bat izango litzateke. EHUko eta NUPeko berdintasuneko masterren eta unibertsitatean berdintasun-politika publikoen inguruan ikertzen ari direnen lankidetzarekin... Politiken inpaktua neurtu beharra dago. Erakundeek ikuskaritza eta kontrola exijitu, esandakotik zer eta nola egin duten esan dezaten.

Osasun mentala: Gaixotu dugun mundu baten sintoma gara

Sarrera

Testu honetan, begirada politiko komun bat eraiki eta partekatu nahi izan dugu, osasun mentalaren ikusezintasun historikoa ordezkatzera etorri eta nagusitzen ari den diskurtsoaren alternatiba izan nahi duena. Osasun mentala ez da jada ikusezina, baina ez zaigu gustatzen nola ari den ikusarazten.

Buru-osasuna bere kaxa beltz historikotik ateratzeko saiakera, neurri handi batean, diagnostikoei eta medikazioari buruzko datuen erabilera oinarritua da. Horrek ikusgai egiten du, baina halako moldez, non areagotu egiten baitu arazoa bera: medikalizazio handiagoa, baliabide gutxiago formatu horretatik kanpo, ondoezaren jatorri soziala arakutzen duten galderen inguruko isiltasunaren betikotzea. Esan daiteke osasun mentalaren inguruko diskurtso publikoa halako hipertrofia bat jasaten ari dela, batez ere pandemiaren geroztik; diskurtso jakin bat ari dela indartzen, medikalizatu eta indibidualizatu egiten duena arazoa eta, batez ere, konponbidea.

Testuinguru horretan, hauexek dira testu honen helburuak:

1. Sufrimendua eragiten duten faktoreak aztertzea eta salatzea, sufrimendu hori politizatuz. Uste dugu arrazoi sendoak ditugula hori egiteko.
2. Errealitate horri modu kolektiboan aurre egitea, horretarako ditugun bideak arakatzuz. Uste dugu erantzun kolektiboak eraikitzeke unea dela, erantzukizun indibidual eta kolektiboak hartzekoa.

Ez dugu uste “lehen hobeto eta orain okerrago” gaudenik; lehen ere egongo ziren noski beste sufrimendu batzuk. “Aberatsek ere negar egiten dutela” ere ez dugu gogorarazi nahi; ziur gaude lurreko beste leku batzuetan sufrimendu handiagoa dagoela muturreko gabezia eta indarkeriak direla eta. Iparralde espoliatzailearen parte den munduko toki jakin honetan gaur egun dagoen sufrimenduaz hitz egitea, horixe da gure xedea. Ezagutzen duguna aztertuko dugu, uste baitugu oso lotuta dagoela proiektu modernizatzailearen hipokresiarekin. Sufrimenduak proiektu modernizatzailearen ispilua dira, haren porrotaren sintoma.

Errealitate horri heltzean, elefante bat ontzi-denda batean bezala sartuko gara beharbada zenbait alorretan. Saiatuko gara esaten duguna zaintzen, baina sentitzen dugu inor mintzen badugu.

Eduki dugun zalantzetako bat honako hau izan da: buru-osasunaz hitz egin behar dugu, ala osasunaz oro har? Azken batean, arazoetako bat horixe da, hain zuzen: buruaren eta gorputzaren artean egiten den bereizketa, biak bat diren arren. Ezin dugu osasun mentalaz behar bezala hitz egin osasun orokorra kontuan hartu gabe.

Lan hau egiteko, ezinbestekoa izan zaigu OPIKen (Osasunaren Gizarte Determinatzaileei eta Aldaketa Demografikoari buruzko EHUko ikerketa-taldearen) eta Olatz Barrenetxea psikologo klinikoaren laguntza, baita beste hainbat pertsonarena ere. Halere, amaierako hitz eta planteamen-
duak gure ardura dira guztiz.

Azkenik, adierazi behar dugu osasun-sistemaren funtzionamenduari buruzko datu kuantitatibo eta kualitatiboak Hego Euskal Herrira mugatzen direla; etorkizunean Ipar Euskal Herriari dagozkion estatistikak lortzeko ahaleginean jarraituko dugu, lurralde honen nazio-aitortzarekin lotutako erronka baita. Nolanahi ere, uste dugu lan honetan jaso ditugun hausnarketak Euskal Herri osorako egokiak direla.

1. Datuetatik harago²¹

1.1. Datuek erakusten digutena

Begiratzen dugun lekura begiratzen dugula, ondorioak argia dirudi: osasun mentaleko arazoak (hala izendatzen dira ofizialki, eufemismo argi hori erabiliz gaixotasun mentalaz ez hitz egiteko) pil-pilean daude. Datuek erakusten digute 2011 eta 2022 artean bikoiztu egin dela halako arazoak dituzten pertsonen kopurua, eta Hego Euskal Herrian hirutik bati eragiten diotela: mila pertsonako 338ri (mila emakumeko 369ri eta mila gizoneko 307ri). Helduengan agertzen diren arazo ohikoenak antsietatearekin, loarekin eta depresioarekin lotutako nahasmenduak dira. Hogeita bost urte-tik beherakoen artean, antsietate-arazoak, ikasteko zailtasunak eta Arreta Gabeziaren Hiperaktivitate Nahasmendua (AGHN). Utziguzue parentesi bat egiten: oso litekeena da hau irakurtzen ari zaretenok erraz ulertzea zer esan nahi duten hitz potolo horiek... Ezagutza hori ez da ausazkoa, eta hori argudiatzen ahaleginduko gara testu honetan.

21 Besterik adierazi ezean, dokumentu honetan ageri diren datu kuantitatiboak OPIKek emandakoak dira. Era berean, bi iturri hauetatik datoz: RAE-CMBD (osasun-jarduera espezializatuaren erregistroa) eta BDCAP (lehen arretako datu klinikoaren datu-basea), biak ere Espainiako Osasun Ministerioaren Osasun Sistema Nazionalaren baitakoak.

Era berean, psikofarmakoen kontsumoa ikaragarri altua da. 2022An, Espainiako Estatuan mila pertsonako 223 ari ziren medikuaren aginduz psikofarmako²² bat hartzen. Hemen, generoen arteko desberdintasuna askoz nabarmenagoa da: mila emakumeko 284, eta mila gizoneko 159. Beste hitz batzuetan esanda: emakumeak* medikatuago daude. Kontsumo hori asko ari da hazten gazteengan, eta igoera horretan eragin nabarmena dute determinatzaile sozialek: generoa (handiagoa nesengan), familiaren jatorria (handiagoa familia migratzaileetan; eta, horren barruan, handiagoa nesengan) eta maila sozioekonomikoa (zenbat eta txikiagoa, probabilitate handiagoa).

Datuek erakusten digutenez, arazo handi bat dugu jendarte moduan. Eta arazo hori jorratu nahi dugu testu honetan. Gehiago sakondu aurretik, ordea, funtsezkotzat jotzen dugun beste kontu bat ere aipatu nahi genuke: konponbideak ez du funtzionatzen. Gero eta diagnostiko eta medikazio gehiago dago, eta diagnostikoek gorantz jarraitzen dute. Horrek galdera asko jartzen dizkigu mahai gainean. Arazoaren irtenbideari buruzkoak ez ezik, arazoari berari buruzkoak ere bai.

Ukaezina da sufrimendu handia dagoela; egonezin handia eragiten diguten tentsio kolektibo asko bizi ditugu. Antsietateak, depresioak... arazo sozial eta kolektibo batzuk jartzen dituzte agerian. Zeintzuk? Arazo horietako batzuk, era berean, sufrimenduaren kontzientzia handiagoa dugulako ikusten ditugu. Nolako kontzientzia dugu sufrimenduaren inguruan, eta zer tresna ditugu sufrimendu horri begiratzeko?

Azkenik, sufrimendutzat jotzen diren beste arazo batzuk lexiko-aldaketa bati zor zaizkio: orain medikuntza-lexiko berri bat geureganatu dugu. Horrek badakar arrisku bat, ezinegona kudeatzeko beste modu bat hartzera eramanez baitezake, guztiz oinarritzen dena medikalizazioaren normalizazioan eta terapia indibidual eta indibidualizatzaile merkantilizatuetan, zeinek ardurez gabetzen baitezake eta irtenbide bizkorrak bilatzera bultzatzen. Normalizazio horrek, galdera horiek guztiak eragozteaz gain, desahaldundu egiten gaitu: galdu egiten dugu sufrimenduari beste estrategia batzuekin (baliabide eta sare kolektibo edo komunitarioekin) erantzuteko gaitasuna.

1.2. Hainbat galdera datuetatik harago

Testu honetan argudiatzen saiatuko garen moduan, arazoa ez da zenbat diagnostiko egiten diren (eta ondorioz zenbat botika preskribatzen diren). Arazoak hiru dira, eta elkarri lotuta daude. Lehena, sufrimendu- eta ondoez-maila altua, tentsio kolektibo handien emaitza. Bigarrena, sufrimenduaren patologizazio eta medikalizazioa, ustelkeria farmazeutiko handiko osasun-sistema prekarizatu eta pribatizatu baten esparruan. Hirugarrena, osasunaren egungo ulerkeria, horren gainean oinarritzen baita ez soilik osasun-sistema, baizik eta baita munduan egoteko dugun modua ere.

22 Hemen sartzen ditugu antipsikotikoak, antsiolitikoak, hipnotikoak eta lasaigarriak, antidepresiboak eta psikoestimulatzaileak.

Arazo hirukoitz hori airean ez baizik bizitza zehatzetan kokatzearen, hartu dezagun tarte bat kezka berezia eragiten diguten bi egoera aztertzeko: emakumeen* antsietatea eta depresioa; eta nerabe eta gazteen egoera.

1.2.1. EMAKUMEEN* DEPRESIOAREN GAINDIAGNOSTIKOA

2011 eta 2023 artean, emakumeen* depresioaren diagnostikoa ia hirukoitzu egin da Hego Euskal Herrian. Genero-desberdintasun handiak daude antsietatearen eta depresioaren diagnostikoan, bai eta psikofarmakoen preskripzioan ere (sintomatologia berarekin, emakumei* botika gehiago errezetatzen zaizkie)²³. Zer dago horren atzean?

Genero-desberdintasun material eta sinbolikoek sufrimendu-maila handiagoak eragiten dituzte emakumeengan*. Gizonengan, lan-kontuak izan ohi dira osasun mentaleko arazoak sortzen dituzten arrazoi nagusiak; emakumeengan, ordea, egunerokotasunari lotutako hamaika kontu izaten dira, tartean baita lana ere: zaintza-gainkarga, hainbat alorretan bikaintasuna lortzeko espektatibak, exigentzia estetikoak...

Beste elementu aipagarri bat hauxe da: emakumeek* sarriago jotzen dute osasun-arretara barneratuago dauzkatelako zaurgarritasuna eta zaintzak. Erreparo gutxiago dute laguntza eskatzeko. Gizonak, aldiz, gutxiago joaten dira, gehiago kostatzen zaielako hauskortasuna onartzea, baina baita lehen arreta neurri batean inguru afektiboko emakumeengandik* jasotzen dutelako ere.

Depresio-diagnostikoa bera ere ezaugarri femeninoetara lerratuta dago. Osasun mental txartzat jotzen dena erlazionatuago dago emakumeekin*, eta hori sufrimenduaren ulerkera sozial jakin baten ondorio da. Depresioa negarrarekin lotzen da, eta ez beste jarrera disruptibo batzuekin (ondoezaren aurrean, gizonak beste era batera jokatu ohi dute; esaterako, substantziak kontsumituz). Osasun mentalari lotutako arazoen definizioan bertan, bada genero-alborapen bat: feminitatearekin lotutako ezaugarriak patologizatu egiten dira (emozionaltasuna, pasibotasuna, lasaitasuna), eta maskulinitatearekin lotutakoak, berriz, normalizatu (arrazionaltasuna, indarra). Maskulinitateak ezkutatu egiten ditu sufrimenduaren sintomak; beste hitz batzuetan esanda, sufrimenduaren ukazioaren gainean eraikitzen da. Azkenik, osasun-arretan nagusi diren androzentrismoak eta genero-alborapenak ere eragin handia dute desberdintasun hauetan.

Faktore horiek guztiak aldi berean aztertuta, argi ikusten da emakumeen* antsietatea eta depresioa gaindiagnostikatuta daudela, eta botiken kontsumoa ere biziki altua dela haiengan. Emakumeek* osasun-sistemarekiko eta botikekiko menpekotasun gero eta handiagoa dute eguneroko kontuei aurre egiteko orduan.

23 Depresioa (nahasmendu depresiboa eta/edo psikosi afektiboa) sufritzen zuten emakumeen* kopurua 24.345etik 74.342era igaro zen 2011 eta 2023 artean. Gizonen kasuan, 8.773tik 32.149ra. Antsietateak jotako emakumeak, berriz, 133.972 ziren 2011n eta 265.824, aldiz, 2023an. Gizonak, 61.084 eta 138.499, hurrenez hurren.

1.2.2. NERABEEN ETA GAZTEEN OSASUN MENTALA

Gazteen eta nerabeen osasun mentala kezka-iturri handia da, eta ertz askokoa. Ikus ditzagun horietako batzuk.

Genero-desberdintasunei dagokienez, AGHN kasuak eta portaera-nahasmenduak ohikoagoak dira beti mutilengan. Depresioaren eta antsietatearen kasua desberdina da: hamabi urtetik behera, ez dago genero-desberdintasunik (eta arazo horiek ez dira ia agertu ere egiten). Baina, hamabi urtetik aurrea, joera-aldaketa argi bat gertatzen da, eta diagnostikoa nabarmen handiagoa izaten da neskengan. Diagnostikoa izan nahiz ez, argi dago sufrimendu psikikoa neskengan metatzen dela.

Kontuan hartzekoak dira honako hauek: garai honetan, genero-ereduek askoz indar handiagoa hartzen dute; era bateko edo besteko indarkeriak jasateko arrisku handiagoa dago (abusuzko edo mendekotasunezko lehenengo harreman sexual eta afektiboak); exigentziak ere ugaritu egin ohi dira hainbat alorretan (norberarena eta kanpokoena, akademikoa, estetikoa...).

Galderak sortzen dituen beste alderdi bat haziera-moduan egon den aldaketa da. Nahiz eta metodo autoritarioagoetatik onberagoetaranzko eredu-aldaketak onura ukaezinak izan ditzakeen, aldi berean zailtasun handiagoak ekar ditzake muga osasungarriak ezartzeko orduan. Gainera, segurtasun ezaren pertzepzioa zabaltzen ari da, eta baliteke horren ondorioz hainbat pertsonak autonomia nabarmen galtzea, bereziki neskek.

Azpimarratu nahi dugun azken elementu bat: aipatu dugun moduan, badirudi psikofarmakoen kontsumoa asko ari dela hazten gazteen artean. Horren atzean egon litekeen sufrimendu-maillak sortzen digun kezkaz gain, bada erne jartzen gaituen beste kontu bat ere: pilulak kontsumitzea sozializazio-modu bihurtzen ari ote da? Sozializazioak, osasun mentalarekin lotutako gaietan, medikalizazioaren normalizazioarekin batera, eragin al dezake kontsumo hori talde-identitatea eraikitzeke modu bihurtzea?

1.3. Egun dagoen mina itzela da

Datuek adierazten duten, gairakimentsiona dezaketen eta estaltzen dutenaren artean, badago komunean oinarritzko esentzia bat, eta hori sufrimendua da, hain zuzen ere. Dударik gabe, sufrimendu horren tonalitateak eta intentsitateak oso desberdinak dira, eta min horrek hartzen dituen formak ere oso anitzak dira. Are gehiago, haietariko batzuk pertsonak muturreko egoeretara eramaten ari direla ukaezina da. Baina komunean muin bera dute: mina. Horrenbestez, hau da egungo argazkiak azaltzen duen sintomatologia: psikofarmakoen kontsumoa, depresio eta antsietatearen diagnostikoen portzentajeak, laguntza profesionalaren eskaeraren gorakada edota gure egunerokotasunean naturalizaturik daukagun ezinegon iraunkor hori, besteak beste, sufrimendu horren adierazle desberdinak dira.

Dokumentu honen funtsa sufrimenduaren esanahian bete-betean murgiltzea da. Abiapuntu gisa, argi dugu instalaturik dagoen sufrimenduaren patologizatzeko eta indibidualizatzeko dinamika honek ezkutatu eta barreiatu egiten dituela sistemaren egiturazko gabeziak eta hutsegiteak, baita ar-dura indibidualak eta kolektiboak ere. Gaiari bere sakontasunean heldu nahi diogu, egun dagoen min itzel horren arrazoiak eta kausak arakatzuz eta, horrekin batera, egoera horri ekiteko ikuskera, helduleku eta baliabide berriak eskainiz. Edozein kasutan, egoerari aurre egiteko garaia da, eta azterketa honek ahalduntze kolektibo eta pertsonaletik abiatuko den bide horretan aurrera egiteko tresna bat izan nahi du.


2. Osasun mentala, osasun-sistema eta osasunaren ulerkera mendebaldarra

2.1. Gaurko osasun-sisteman osasun mentalari eskaintzen zaion arreta

Lehen arreta da ondoez emozionalaren osasun-arretara heltzeko sarbidea. Hara iristen diren kasuen ugaritasuna kudeatzea ezinezkoa da, izugarria baita arreta-maila honek bizi duen prekarie-tatea: hainbat sektorek zuzenean salatu duten moduan, “desegituratze” bat ari da sufritzen. Lehen arretara jotzen duten pertsona asko maila horretan geratzen dira. Aurrerago argudiatuko dugun moduan, hori ez litzateke arazo baldin eta kalitatezko arreta eskaintzerik balego. Arazoa zera da, botikak errezetatzeaz gain akonpainamendu eta segimendu egokirik ezin egin izatea baliabideak gainezka daudelako.

Lehen arretan trabatuta geratzen direnekin batera, badira beste batzuk osasun-sistemeekin ha-rremanetan jartzera ere iristen ez direnak. Izan daiteke haien egonezinak ez direlako sartzen osasungintzan erabiltzen diren parametro biomedikoetan. Edota egonezina naturalizatu egiten delako eta/edo egonezin horren erantzun indibidualizatu eta medikalizatua naturalizatu egiten delako. Onartu egiten al dugu ez dela problematikoa gaizki egotea, edo lo egiteko kontsulta pri-batuan errezetatutako lorazepam bat hartzea? Erantzun indibidualizatu hori biziki merkantilizatuta dago, eta gero eta terapia gehiago dago parametro biomedikoen barruan eta horietatik kanpo. Osasun-sistematik kanpo erantzuteko gaitasuna, beraz, sakonki baldintzatzen du klase sozialak. Baita generoak ere, grafiko honetan ikus daitekeen bezala:

Osasun mentala, generoka, HEH, 2022



	Medikatuak pertsonak	Osasun mentaleko arazoak dituztenak	Arreta espezializatuan daudenak
—■— Emakumeak	58,8%	54,4%	49,2%
—■— Gizonak	41,2%	45,6%	50,8%

Iturria: Geuk egina, RAE-CMBD erregistroaren eta BDCAP datu-basearen datuetatik abiatuta.

Osasun-sistemara itzuliz: lehen arretatik, arreta espezializatura bideratzen dira larriagotzat edo bilakaera zailekotzat jotzen diren egoeran daudenak. Arazoa haxe da: askotan ez direla larritasun-irizpidetzat jotzen asko sufritzea edota funtzionaltasuna murriztuta edukitzea, eta jarrera-parametro normatiboetatik aldentzen direnak soilik bideratzen direla arreta espezializatura. Izan daitezke, edo ez, gehien sufritzen duten pertsonak. Baina, dudarik gabe, sozialki deserosoak gertatzen direnak dira.

Osasun-zerbitzu espezializatuek osoko arretan funtsezko garrantzia duten gizarte-zerbitzu edo beste zerbitzu batzuekin koordinatuta egin behar dute lan. Printzipioz buru-osasuneko arreta gihatzen duen eta aldarrikapen eta aldaketa historikoen ondorio den ikusmolde psikosozialari erantzuten dio koordinazio horrek.

Duela hainbat urte, osasunaren eta medikuntza komunitarioaren ikuspegi psikosozial batekin bat etorritik, itxi egin ziren izendapen okerreztar deitzen ziren egoitzak, eta osasun mentala osasun-sistemaren barruan kokatu zen. Eta, aldaketa horretan, berebiziko garrantzia izan zuten gizarte-zerbitzuek. Testuinguru hartan, larrialdi-unitate espezializatuak eta erietxe orokorretan ospitaleratzeko unitateak ireki ziren, eta zerbitzu-sare bat sortu, besteak beste osasun mentaleko zentroak eta bitarteko unitateak, esaterako eguneko ospitaleak. Gainera, hainbat neurri ere hartu

izan dira epe luzeko unitateetako lekuak gutxitzeko, horien ordeaz pixkanaka bestelako egiturak ezarri, esaterako miniegoitzak eta pisuak. Halere, neurri horiek ez dira inolaz ere nahikoa psikiatria komunitariorantzko bidea deitu nahi izan zaion adar horretan. Bide horrek asko du oraindik ibiltzeko, eta gaur egun ikaragarri prekarizatuta dago.

Azpimarratzekoa da, era berean, osasun mentaleko zerbitzuen asistentzia-praktikan tratamendu biologizista bat inposatzen dela askotan. Alegia, kasu guztiak tratatzen dira disfuntzioen kausak biologikoak balira bezala eta, ondorioz, soil-soilik parametro biomedikoetako arreta behar balute bezala, aintzat hartu gabe egunerokotasuneko gorabeherak, kontu materialak edo bestelako faktoreak. Kasu batzuetan disfuntzioen kausa biologikoa izan litekeela onartuta ere (eztabaidagarria), gutxitan egiaztatu izan da halako kausarik, eta, hala ere, tratamendua berdina da kasu guztietan.

Horrekin guztiarekin batera, koordinazio-arazo handiak daude osasun publikoko zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen edo bestelako agenteen artean, administrazio-sektore desberdinetakoak direlako (EAEren kasuan, Osakidetza, aldundiak, udal zerbitzuak eta abar), eta, ondorioz, oso konplikatu da akonpainamendu egoki bat eskaintzeko beharrezkoa den arreta multidiziplinarioa antolatzea. Azkenik, bai osasun-zerbitzuak, bai gizarte-zerbitzuak, prekarizazio- eta pribatizazio-maila altuak sufritzen ari dira.

Horren guztiaren ondorioz, profesionalak baldintza jasanezinetan ari dira lanean. Ez dago denborarik, ez dago inolaz ere denborarik, pertsona baten bilakaera ikusteko hurrengo hitzordua gizalegezko epe batean jartzeko. Baina estresa lan-agendako arazotzat jotzen da, eta ez arazo sistemikotzat. Egoera honek ez dio soilik osasun-alorrari eragiten, baizik eta baita hezkuntza-maila guztietako irakasleei ere, adinekoen egoitzetako langileei... Sufritzen dutenak bizi diren espazio guztietan ardurak dituztenengana iristen da estresa. Eta, jakina, familiaraino heltzen da azkenean (eta, haien barruan, emakumeenganaino), eta askotan horixe izaten da zailtasun handiko arazoak konpondu behar izaten diren azken eremua.

Emakumeen depresioaren gaindiagnostikoa salatu dugu gorago. Praxi txarra ote da kontua? Deskribatzen ari garen testuinguruan, ulertzen dugu askotan profesionalek ez dutela praxi txarra espresuki gauzatzen: lanez gainezka egoten dira, askotan ez dakite zer egin aurrean dauzkaten arazoak konpontzeko (osasuna ulertzeko modu mendealdarrak ez duelako horretarako tresnarik ematen, ikusiko dugun moduan), eta presio soziala jartzen die testuinguruak (sarritan baita ondoezik dauden pertsonak berek ere) irtenbide bizkorrak aurkitu ditzaten. Testuinguru horretan... egiten dakiten gauza bakarra egiten dute: errezetatu. Beste batzuetan, badute beste zerbait egiteko jakintza eta borondatea, baina, besterik gabe, ezinezkoa da.

Prekarizazio- eta pribatizazio-maila ikaragarri altuen eta ikuspuntu biomedikoen nagusitasunaren ondorioz, psikiatriaren eta gizarte-zerbitzuen praktikan oso ohikoa da buru-osasuneko arazoak dituzten pertsonen aurkako indarkeria, pertsona horiek berek ozen salatu izan dutenez. Indarke-

ria dago, halaber, botikek izan ditzaketen ondorioen inguruko desinformazio orokortuan, besteak beste botika horiek sor ditzaketen dependentziei dagokienez. Gainmedikazioa eskuz esku doa enpresa farmazeutikoen botere izugarriarekin. Ustelkeria farmazeutikoa oso maila altuetan dago, eta osasun-sistema baldintzatzen du. Osasun mentala negozio handi bilakatu da.

Laburbilduz, gaur egun osasun mentala kudeatzeko baliatzen den modua, ustelkeria farmazeutikoari lotutako prekarizazio- eta pribatizazio-testuinguru honetan, berez (ez teorian) biomedikoa den ikusmolde batek gidatzen du, eta horrek gaindiagnostikoak eta gainmedikazioak ekartzen ditu, diagnostikatuta eta/edo medikatuta dauden pertsona askoren aurkako eguneroko indarkeria, profesionalentzako lan-baldintza (eta bizi-baldintza) jasanezinak, sostengurik jasotzen ez duen edo jaso ahal izateko ordaindu behar duen populazioaren hazkunde esponentziala eta ondoezaren arrazoi sozialen inguruko eztabaidaren itxiera.

2.2. Gure osasun-sistemaren oinarriak

Arestian aipatu dugun moduan, gertatzen ari dena ulertzeko, gure osasun-sistemaren oinarriak ulertu behar ditugu. Egungo osasun-sistemaren parametroak eta oro har gure osasunari buruzko kontzeptualizazioa biomedikuntzan oinarritzen dira; eta era berean, biomedikuntza Mendebaldeak gorputza eta osasuna ulertzeko duen paradigman kokatzen da.

2.2.1. BIOMEDIKUNTZA

Biomedikuntza XVIII. Mendearen amaieran sortu zen, Zientziako epistemologiaren parametroetan kokaturik, hain zuzen ere. Instituzioen eta boterearen aurrean, biomedikuntzaren sorrerak jauzi kualitatibo bat ekarri zuen garai hartako osasunaren inguruko bestelako jakintzentzat: esperientzian oinarritutako medikuntzatik metodo zientifikoan oinarritutako medikuntzara.

Garai hartan, gorputzaren gaineko bestelako ezagutzak zituzten horiek (emakumeak) biomedikuntzaren sortze-prozesutik kanpo geratu ziren, debekatu egin baitzen haien parte-hartzea. Horrek bi ondorio nagusi ekarri zituen: batetik, emakume horien guztien jakintzaren genealogia galtzea; bestetik, medikuntzaren jakintza berriaren sorreran emakumeen beharrak aintzat ez hartzea eta, ondorioz, haiek medikuntzaren arretatik kanpo geratzea. Hau da, emakumeok medikuntza ofizialaren parametroetatik kanpo geratu ginen.

Metodo zientifikoan oinarritutako medikuntza eraginkorra da osasun-arazo batzuei aurre egiteko, dudarik gabe. Batez ere, larriak diren osasun arazoak, bukaera eta amaiera argia dutenak, organo zehatzetan kokaturik dauden edota etiologia oso definitua duten gaixotasunak eta teknologia sanitarioaren interbentzioa erabakigarria den osasun-arazoak tratatzeko. Baina espezializazioan eta biologian sustraitutako medikuntza-eredu horrek ez du buru-osasunean arretarik ahalbidetzen. Beste era batean esanda, osasun mentalak ez du enkajitzen biomedikuntzaren ereduan. Gabezia horri buru egiteko, psikiatria da sortzen den azken espezialitatea, XIX. Mendearen bu-

kaeran, biomedikuntzaren parametro berdinetan eta eredu bera mimetizatuz: gaixotasunen jatorri biologikoetan arreta jarritz.

Horrenbestez, egungo osasun-sistema, generoaren ikuskeraren gabezia erroturik egoteaz gain, buru-osasunari arreta jartzeko ezintasunean oinarritzen da. Eredu honentzat osasunaren eta buru-osasunaren arteko banaketa logikoa da; banaketa horri esker manten daitekeelako gorputzaren arretan oinarritutako biomedikuntzaren eredua bera.

Dena den, medikuntzaren marko horren agorpena agerian gelditzen da beste parametro batzuetan kokatzen diren gaixotasunen aurrean. Esate baterako, jatorri organikorik ez duten arazo psikosomatikoekin: biomedikuntzak horien aurrean duen ezintasunaren ondorioz, profesionalen artean etsipena eta medikalizaziorako joera nagusitzen dira.

Guk dioguna da osasuna eta buru-osasuna zatiezinak direla: osasuna da bizitza oinarritzeko oreka, kalitate eta goxotasunarekin bizitzea ahalbidetzen duena. Argi dago buru-osasuna ezinbesteko pieza dela norberaren osasunaren orekan.

2.2.2. GORPUTZARI ETA OSASUNARI BEGIRATZEKO IKUSPUNTU MENDEBALDARRA

Biomedikuntzaren muinak agerian uzten du osasuna eta osasungintza kontzeptualizatzeko modu propio batean oinarritzen dela eta, bide batez, haren jarduerak kontzeptualizazio hori elikatu eta sustatu duela. Horrenbestez, gure iruditegi kolektiboan osasunari buruz dugun ikuskera eta ulerkera eraikuntza sozial bat da, argi eta garbi. Horrek esan nahi du barneraturik daukagun osasunaren zentzu bital eta praktikoa ez dela neutroa, are gutxiago naturala.

Zer esan nahi dugu horrekin? Gizarte bakoitzak bere oinarrian ezarritako paradigmaren ezaugarriak islatzen dituela. Paradigmari buruz ari garenean, jendarte bakoitzak mundua ezagutzeko, antzemateko eta aipatzeko erabiltzen duen kosmo-ikuskeraz ari gara, hau da, errealitateari buruz egiten duen berezko interpretazioaz. Eta, dudarik gabe, osasunaren esanahia kosmo-ikuskeraren horretan kokatu beharra dugu.

Egun Mendebaldean gure sistema sostengatzen duen paradigma ofiziala krisian eta desegiten egon arren, haren ezaugarriek gure bizitza eta bizimodua norabidetzen dituzte oraindik, eta sinetsarazten digute horien gaineko sinesmenak propioak direla. Honako hauek dira gure osasun-sistema ofizialean eta osasunaren begiradan eragiten duten parametroak:

Ikuspegi mekanizistaren eskutik gorputza eta buruaren artean ezarritako dikotomia eta, horren baitan, arrazoimenari esleitzen zaion balio nagusia, gorputza pertsonaren atal mekaniko gisa irudikatuz.

Maxima horrek osasuna interpretatzeko moduan eragiteaz gain, bizitza bizitzeko eran eragiten du. Burua eta gorputzaren artean ezartzen den harreman hierarkiko horrek buruan bizitzera era-

maten gaitu gehienetan, eta ez gorputzean. Horren ondorioz, gorputzarekiko dugun deskonexioa erabatekoa da, eta berarekiko dugun ikuspegi instrumentalista oso naturalizaturik daukagu. Hau da, gure gorputza makina hutsa izango balitz bezala tratatzen dugu: ez diogu entzuten, ez dugu sentitzen eta ez diogu hitz egiten.

Oro har gizakiok gorputzarekin ezartzen dugun harremana oso urrunekoa da. Eta pertzepzio hori paradoxikoa da: hain zuzen ere, gorputza bera da gure esentzia, gure existentzia eta gure presentzia ahalbidetzen dituen. Berarekiko eratu dugun begirada oso biologizista da, batetik; bestetik, oso materialista, utilitarista eta merkantilista. Kapitalismoak azken hori indartu du bereziki. Eta horri guztiari mandatu heteropatriarkala gehitzen zaio, emakumeoi gorputzarekiko exigentzia estetikoa ezartzen diguna eta horren ondorioz emakumeok gure gorputzarekin borroka permanente batean bizitzera kondenatzen gaituena.

Horrenbestez, norbere osasunaren begirada egiturazko defizit horretan oinarritzen da: gure espazio fisikoaren edo gure etxearen ezjakintasunean eta batzuetan mespretxuan. Eta, noski, abiapuntu horrek ez digu ahalbidetzen benetan gure osasunaren erantzuleak eta subjektu aktiboak izatea. Kontrakoa, osasunarekiko izaten dugun jarrera oso pasiboa da.

Osasunaren ikuskeraz gain, gorputzarekiko ikuspegi mekanizista da osasun-sistemaren oinarrietako bat, eta, horregatik, egungo medikuntzan gailentzen den ikuspegia biologizista da. Horrek hainbat ondorio ditu. Batetik, eredu espezialistan oinarritzea eta osasuna modu integralean aintzat ez hartzea. Beraz, ukaezina da gorputzaren organoen eta sistemen arabera diseekzioak zehaztasun-maila handia ekartzen duela, baina horien arteko interdependentziaren ikuspegiaren galera ere ekartzen du. Abiapuntu horretan oinarritzen da osasun fisikoaren eta mentalaren artean egiten den bereizketa. Eta ikuspegi mekanizista horrek osasun mentalaren gaineko interbentzioa zailtzen du, besteak beste, jatorri organikorik gabeko arazo psikosomatikoak agertzen direlako.

Bestetik, osasuna izatea gaixotasunik ez izatearekin identifikatzen da. Alde horretatik, gaixotasunen trataerari jartzen zaio arreta, eta ez hainbeste pertsonari, eta ezartzen diren interbentzioek eta tratamenduek gaixotasunak gainditzea dute helburu. Horrekin batera, aplikatzen den diagnostikoak kausa-efektuaren logika linealari erantzuten dio, alboratuz gorputzak duen konplexutasuna eta pertsona bakoitzaren idiosinkrasia. Gaixotasunaren inguruko fokalizazioak ekartzen du prebentzioa lehentasuna ez izatea edo haren lanketa oso mugatua izatea.

Gure gorputzaren eta existentziaren mugen ukazioa. Maxima horrek bat egiten du gure zaugarritasunaren ezeztapenarekin eta heriotzaren inguruan ezarritako tabuarekin.

Ikuspegi mekanizistak eta utilitaristak gure gorputzaren mugak aintzat ez hartzea eramaten gaituzte. Alde horretatik, heriotza modu natural batean hartu eta gure bizitzaren zikloaren beste fase bat balitz bezala ulertu beharrean, hura ukatzeak beldurraren mamua sostengatzen eta elikatzen du. Horrekin batera, kapitalismoak ezartzen duen muin produktibistak joera hori sakontzen du.

Gure inkontzientean hilezkortasunaren sinesmenean murgilduta bizi gara, eta gure gorputzarekiko mantentzen dugun erlazioa exigentziaren terminoetan kokatzen dugu. Orokorrean oso gutxi zaintzen eta mimatzen dugu gure gorputza; are gehiago, heriotzaren beldurraren mamuak baldintzatu eta desitxuratu egiten du berarekiko harreman naturala.

Egungo medikuntzaren eredia Zientzietako epistemologian kokatzeak ekarritako zientifismoaren nagusitasuna.

Zientziaren gainean eraturiko nagusitasunak eta monopolioak zientifismoa bultzatu du, metodo zientifikoari objektibizazio-printzipioa eta izaera unibertsala eta neutrala esleituz. Zientifismo horren ondorioz, errealitatearen inguruko azterketa oso mekanizista da, noranzko bakarrekia eta kausa-efektuaren legean ardaztua. Horretaz gain, ikusmolde teknozientifiko horren begirada gailentzen da, bestelako jakintzak gutxietsiz estatus zientifikorik ez dutelako. Eta horrek medikuntzaren eremuan eragin du: gure herriko osasun praktiken inguruko jakintza tradizionalari ez zaio bere ekarpenaren balioa aitortu.

Patriarkatuan oinarritutako medikuntza.

Medikuntzaren ikuspegi mekanizistak gizonaren gorputza du abiapuntu, eta osasun-sistemaren arkitektura gizonaren begirada eta beharretatik eraiki da. Horretaz gain, ikuspegi biomedikoak bultzatutako amatasunaren kontzeptualizazioa eta interbentzioa gaixotasunaren kategoriarekin parekatu dira.

Kapitalismoak bultzatutako medikuntzaren merkantilizazioa.

Kapitalismoak bete-betean baldintzatzen eta norabidetzen du praktika biomediko hori, interes ekonomikoak lehenetsiz eta osasuna negozio huts bilakatuz, haren merkantilizazio- eta pribatizazio-prozesua hauspotuz.

2.2.3. EGUNGO OSASUN SISTEMAREN EREDUA GAINDITU BEHARRA

Dudarik gabe, begi bistakoak dira egungo osasun-sistemaren ereduak medikuntzaren unibertsioan ezarritako onurak, aurkikuntzak eta aurrerapenak, eta ukaezina da horrek eragina izan duela, neurri batean, Mendebaldeko jendartearen bizi-kalitatean. Arestian aipaturiko ezaugarri horiek (zientziaren inplikazioa, metodo zientifikoa, espezializazioa edota gaixotasunei aurre egiteko eraginkortasuna) osasuna bermatzeko prozesuaren arrakastarako ezinbesteko oinarriak izan dira. Baina osasun mentalaren inguruan zabalduko kezkek eta premiek, eredu honen topeak agerian uzteaz gain, haren egiturazko gabeziak eta ezintasunak islatzen dituzte. Eta horrek eredu birpentsatzera eta osasunaren gaineko begirada holistikoa berrosatzera garamatza.

3. Ezinegonaren jatorri sozialak

3.1. Gaixotu dugun mundu baten sintoma gara

Osasun mentalaren jatorrizko kasuistikan arrazoi sozialak azaltzen dira arrazoi nagusi gisa. Gai horri buruz buruturiko ikerketetan, ezinegonaren jatorri soziala oso partekatuta eta barneratuta dagoen irizpide eta hausnarketa da. Baina, jatorri sozialaren esanahia arakatzean, bestelako aldagai batzuk agertzen dira: errealitatean erabat elkarloturik dauden eta gure gizarte-ehunaren muinean eragiten duten osagaiak dira.

Hausnarketa horri heltzeko, ebidentzia batekin hastea abiapuntu ezin hobea iruditu zaigu: gaixotu dugun mundu baten sintoma garela, hain zuzen ere. Gu gaixorik gaude, gu gaixotzen gara, guk sufritzen dugu, guk sentitzen dugun mina itzela da. Hori guztia krisian dagoen mundu baten testuinguruan ari da hedatzen. Eta testuinguruari erreparatzeak eta gure begirada gure zilborretik harago altxatzeak panoramaren bestelako ikuskera bat eskaintzen digu. Mundua ez dago krisian kasualitatez, mundua guk jarri dugu krisian. Beraz, guk gaixotu dugu mundua, eta, paradoxikoki, pairatzen ari garena munduaren gaixotasunaren sintoma da.

Azterketa honen funtsa ez da soilik egoera ulertzeko gakoak eskaintzea. Gertatzen ari denaren marko erreferentziala elaboratzeaz gain, eraldatzeko abiapuntua irudikatzea dugu helburu. Alde horretatik, gaixotu dugun mundu baten sintoma garela aitortzeak dagokigun tokian kokatzen gaitu, apaltasunez eta zintzotasunez; eta, bide batez, mundua bertan egoteko bestelako jarrera batetik eraikitzea ahalbidetzen du.

3.2. Prekarietate materiala

Sufrimenduaren jatorri sozialean arakatzeko, begi bistakoa da baldintza material eskasetan bizitzeak, hau da, biziraupen materiala kolokan izateak, eragin zuzena duela norberaren osasunean. Baldintza falta horrek edonork gaixotzen du. Baina, prekarietate materiala esaten dugunean, ez diegu solik arreta jartzen mutur bateko egoerei. Prekarietate materialaren eskutik egun zabaltzen eta normalizatzen ari den erregimena bizitzaren prekarizazioa da, eta egoera horrek, orainean ezegonkortasun permanentea ezartzeaz gain, etorkizuneko bizi-proiektua eraikitzeke ezintasuna dakar. Noski, horrek guztiak barne-tentsio bat sortzen du gure barruan, eta beldurra, urduritasuna eta estresa elikatzen ditu. Horrenbestez, prekarizazioan oinarritutako bizimoduak nekez ahalbidetu dezake bizitza osasuntsu bat. Prekarietateak gure osasunean, gure orekan eta gure aldar-te-egoeran eragiten du, dudarik gabe. Eta eragin horren ondorioz sortzen diren ezinegonak eta sufrimenduak bete-betean baldintzatzen dute osasun mentala.

Alde horretatik, osasun mentalaren diagnostikoek arazo indibidualei esleitzen dizkieten abizen emozionalak, askotan, arazo materialak eta kolektiboak dira, jendarte honen gabezia estruktu-

ralek eta bidegabeeko portaerek sorturiko ondorioak, hain zuzen ere. Beste era batean esanda, langabezia pairatzeari antsietatea esaten zaio, edota zaintzaren gainkarga depresio gisa diagnostikatzen da.

Baina, osasun mentalaren mozorroarekin, sistemak bere aurpegia zuritu eta pertsonarengan kokatzen du ardura osoa: bere prekarietatek ateratzeko ardura, batetik, eta prekarietatearen ondoriozko gaixotasunari aurre egiteko ardura, bestetik.

3.3. Gure jendartearen bestelako korapiloak: tentsio kolektiboak

Bizitzaren prekarizazioaz gain, egungo eredu sozialak bestelako korapiloak barne hartzen ditu, eta horiek bete-betean eragiten dute gure bizimoduan, gure sozializazio-prozesuan, gure arteko harremanen ezaugarritzean eta errealtatea antzemateko moduan, besteak beste. Eta horiek guztiek baldintzatu egiten dituzte gure oreka emozionala eta bizitzako erronkei aurre egiteko gaitasuna.

3.3.1. ESPEKTATIBAK, DISOZIAZIOA, FRUSTRAZIOA ETA NORBERE EMOZIOAK KUDEATZEKO GAITASUNIK EZA

Honako hauek dira gure bizi-eredua ezaugarritzen duten osagaiak: lekuz kanpoko espektatibak, disoziazioa, frustrazioa eta geure buruaz eta geure emozioez ez arduratzeko joera, besteak beste. Sistemak transmititzen duen errealtatea dikotomikoa da, batetik, suntsitze prozesu batean murgilduta dagoen mundua, arriskuz beteriko mundua; eta, bestetik, mundu magikoa, dena lor daiteken mundu perfektua: arrakasta, edertasuna, zorientasuna eta betiereko gaztetasuna. Bizitzaren digitalizazioak erabat dimentsionatu du dikotomia horren irudikapena, eta hirukoiztu egin ditu haren efektuaren ondorioak. Horrenbestez, errealtatearen bi mutur horien artean kokatzen da egun gure bizitzaren erreferentzia. Horrekin batera, sistemak, bere bidegabekeria eta haren ondorio sozialak ezkutatu nahian, norberaren ardurapean kokatzen ditu bakoitzaren ongizatea eta arrakasta, eta horrek sustatu eta elikatu egiten du bi muturreko egoera horren bizipenaren pertsonalizazioa.

Egoera horrek disoziazio permanente batean bizitzera garamatza, benetako errealtatearen eta fikziozkoaren artean sorrarazten den disoziazioan, hain zuzen ere. Batetik, saltzen dizkiguten espektatiben esklabu bizi gara, eta, ez badugu lortzen espektatiba horiek betetzea, gure ardura eta ezintasunengatik dela sinetsarazten digute. Beraz, beti lehiakorak, ederrak, azkarrak, arrakastatsuak eta, noski, zorientsuak bizitzera kondenaturik gaude. Emakumeoi biderkatu egiten zaigu hori guztia, eta, gainera, zaintzailerik onenak izan gaitezen espero da. Baina, bestetik, ideal horretara ailegatzeko ezintasunaren aurrean aurkitzen garenean, apurtu egiten gara, eromenaren sentsazioa nagusitzen da gure baitan, baita bestelako sentimenduak ere: erruduntasuna, frustrazioa eta porrota, besteak beste.

Lekuz kanpoko espektatiben eta benetako errealitatearen arteko talkak pertsonengan sortzen duen nahasmenduak eta hori kudeatzeko ezintasunak gure osasunean eta oreka emozionalean ekartzen dituzten ondorioak, oso larriak bilakatu dira. Sistemak ezarritako sinesmenak oso barneraturik dauzkagu, eta, norbere identitatearen berezko ezaugarriak moldatzen eta hori guztia emozionalki kudeatzen ahalegintzean, umezurtz eta ezigauza sentitzen gara. Eta ailegatu nahiaren eta ailegatu beharraren arteko dialektikaren zurrumbilo horretan galtzen gara.

Sistemari ez zaio interesatzen bere baitan pertsona ahaldunduak izatea, eta, oro har, pertsonak joko horretan erortzen gara, kanpora begirako proiektzioaren mende biziz eta ardurak kanpoan kokatuz. Eta bizitzan zehar norberaren emozioez arduratzen, sufrimendua maneiatzen eta mina igarotzen ikasteak ahalduntzen gaituela argi dago.

Esandako guztiak zer motatako isla du buru-gaixotasunen markoan? Espektatiben eta benetako errealitatearen arteko talkaren kudeaketa horrek izugarrizko sufrimendua sortzen du, depresioaren eta antsietatearen aurpegiak dituen min existentziala. Eta, gainera, oso ohikoa da egoera hori ezkutatzea eta normaltasun faltsu baten irudia proiektatzea.

3.3.2. BAKARDADEA, DESLOTURA ETA DESHUMANIZAZIOA

Indibidualismoa sistemaren eta kapitalismoaren ezaugarria izan da betidanik. Baina gure jendartean erroturik dauden desloturak eta isolamenduak bestelako irismen bat dute. Bakardadeaz ari garenean, ez gara bakardade existentzialaz ari; izan ere, bakardade existentzial hori norbere ahalduntze-prozesua lantzeko ezinbesteko tresna da. Gu bestelako bakardadeaz ari gara, gure izaera sozialak ekartzen duen komunitate baten partaide izateko sentimendua eta zentzua ukatzen dituenaz. Beraz, bakardade horrek bestelako tonalitate eta dimentsio batzuk ditu. Eta, ziur aski, gure bizitzaren digitalizazioak eragin zuzen eta sakona du ezartzen eta hedatzen ari den bizitzaren esentziarekiko deskonexio horretan.

Nahiz eta pertsonen inguraturik egon, deslotura sozialaren sentsazioa oso instalaturik dago gure jendartean. Pantailaren aurrean bizitzeak hustu du aurrez aurreko hartu-emanek barnebiltzen dituzten partekatzea, berotasuna, konplizitatea, goxotasuna, naturaltasuna..., eta nigandik harago gu baten sortzeko aukera, talde baten partaide izateko sentsazioa, alegia. Alde horretatik, harremanak digitalizatzeko joerak erlazioen kontsumoa ekarri du, eta harreman horiek azalekoak dira, konpromisorik gabekoak eta epe laburreko zurrumbiloan murgilduak.

Beste aldetik, bizitza pantaila bilakatzeak norbere proiektzio permanentea ekartzen du, kanpora begira kokaturik egotea eta ekintzen dinamikan murgiltzea. Nartzisismo horrek eta ekiten bizitzeak bestelako deslotura bat ezartzen dute, isolamenduaren sentsazioa elikatuz eta, era berean, arestian aipatu dugun ezinbesteko bakardade existentzialari uko eginez.

Sare sozialetik harago, gure bizi-ereduan instalaturik daukagun gene lehiakorrak eta metaketaren espirituak ere indibidualismoa sustatzen dute; azken finean, gainontzeko guztiak lehiakideen ka-

tegorian ezartzen dira, eta joera horrek ez du komunitatearen eta gure arteko interdependentzia-ren kontzientzia garatzea ahalbidetzen.

Edozein modutan, argi dago egungo bakardadearen esanahiak zerikusi handia duela egun hedatzen ari den hutsune existentzialarekin. Eta horrek eragin zuzena du gure osasunean eta orekan.

3.3.3. INDARKERIAREN HEDATZEA (SEXU-ABUSUAK)

Osasun mentalari ikuspuntu feminista batetik begiratzeak emakumeen* sufrimenduaren eta indarkeria matxistaren arteko harremanaz hitz egitera garamatza. Esan dezakegu indarkeria matxista jasatea genero-sozializazioaren berezko parte dela emakumeentzat*; alegia, emakumeen* identitatea, neurri batean, bizitako indarkeria matxistaren esperientzien eta diskurtsoen subjektibazioaren edo kudeaketaren arabera eraikitzen da.

Emakumeok* barneratzen ditugun indarkeria matxistari eta indarkeria sexualari buruzko kontakizun eta diskurtsoen helburua gure askatasunak mugatzea da, eta gure jokabidea bezatzea. Diskurtso eta kontakizun horiek beldur kolektibo bat hedarazten dute emakumeengan*, eta beldur horrek mekanismo automugatzaileak sortzera garamatza, eta etengabe alerta-egoeran bizitzeko mekanismoak garatzera: ez gara libreki ibiltzen ezaugarri jakin batzuk dituzten lekuetan, gauez beldurra diogu edozein itzali, ateak giltzaz ixten ditugu norbaitek erasoko ote digun beldurrez, beldur izaten gara norbait gure gelan leihotik sartu eta eraso egingo digulakoan, sexu-erasoen inguruko amesgaizto errepikariak...

Esan genezake emakumeok*, geure bizitzan indarkeria matxista modu larriagoan edo arinagoan bizi izanda ere, diziplinamendu-diskurtso patriarkalek eragindako trauma kolektibo bat partekatzen dugula. Gainera, indarkeria matxista eta sexualari dagokionez, kontakizun patriarkalen bidez geureganatu egiten dugu halako erasoak jasan izanaren erantzukizuna, erruaren, lotsaren eta isiltasunaren mekanismoen bitartez. Horregatik, sexu-erasoren bat jasan dutenen kasuan, sufrimendu mentala nabarmen larriagotuko da mekanismo horien bitartez.

Bestalde, kontakizun eta diskurtso horiekin batera, kontuan hartzekoa da emakumeek* bizi eta jasan dugun indarkeria ikaragarri altua dela. Espainiako berdintasun Ministerioak 2019an egindako Emakumearen aurkako Indarkeriari buruzko Makroinkestaren arabera, 16 urtetik gorako bost emakumetik batek sexu-indarkeria motaren bat jasan du (% 20,4k).

Azkenik, aipamen berezia merezi du haurren aurkako sexu-indarkeriak (bost haurretatik batek sexu-indarkeria sufritzen du Europan). Indarkeria mota hori ezkutatua eta isildua izan da historikoki, horrek dakarren sufrimendu guztiarekin²⁴. Haurren aurkako sexu-indarkeria indarkeria

24 Europako Kontseiluaren datuak, Human Rights Channel, <https://tinyurl.com/2bfgq422>.

matxista mota bat da, batez ere familia-eremuan gertatzen dena eta batez ere neskei eragiten diena (erasoak jasan dituzten haurren % 70 neskek dira). Indarkeria mota honek ikaragarritzko eragina du erasoak jasan dituzten nesken nortasunaren eraikuntzan, oso adin txikietan gertatzen baita (6 eta 12 urte artean), urtetan iraun baitezake eta neskentzat oinarritzko atxikimendu-irudi diren gizonak gauzatzen baitute (erasotzaile gehienak aita edo aitona izan ohi dira). Haurren kontrako sexu-indarkeriak sufrimendu ikaragarria eragiten du, eta sintomatologia oso konplexua (amnesia, disoziazioa eta bestelako nahasmendu edo minak), zeina askotan patologizatu egiten baita, eta ikuspegi feministarik gabe lantzen; hortaz, estali egiten da haren jatorria, eta horrek eragotzi egiten du sufrimendu hori guztia indarkeria matxisten esparruan eta, ondorioz, emakumeen* menderatze- eta diziplinamendu-mekanismo patriarkalen barruan ulertzea.

Errealitate honek guztiak galdera hau eginarazten digu: Zenbat indarkeria matxista dago emakumeen* erotasunaren atzean ezkutatuta eta isilarazita? Beste ikerketa batzuek erakusten dute buru-nahasmendu larri deiturikoak pairatzen dituzten emakumeengan* handiagoa dela indarkeria matxistaren proportzioa (% 70erainokoa). Berriz ere, galdera hau datorkigu burura: Zer da lehenagokoa, nahasmendua eta horren ondoriozko indarkeria patologizatzailea, ala sufritutako indarkeria matxista?

3.3.4. ZIURGABETASUNA: ORTZI-MUGA FALTA ETA ORAINIK EZ

Ziurgabetasuna da Mendebaldeko egungo errealitatea deskribatzen duen oinarritzko ezaugarrietako bat. Eta gako hau ere funtsezkoa izan daiteke ulertzeko egun pairatzen dugun ezinegona eta mina. Bereziki, gazte-mailan ziurgabetasunaren eskutik etorkizun faltaren sentsazioa ezartzen da, eta sentsazio horrek askotariko dimentsioak ditu. Batetik, egunerokotasunari lotuta dagoena, hau da, bizi-proiektu erreal bat artikulatzeko ezintasuna. Bestetik, etorkizunean bizi-proiekturik eraikitzeke ezintasun horrekin lotuta, ortzi-muga irudikatzeko eta marrazteko tresna eta aukerarik ere ez izatea; irtenbiderik gabeko sentsazioa, beraz. Eta, bukatzeko, plano existentzialean, munduarekiko bisio apokaliptikoa, dena bukatzen ari delako pertzepzioa, alegia, segurtasun ezaren eta helduleku faltaren pertzepzioa.

Ziurgabetasuna, ziur asko, orain arte Mendebaldean erroturik zegoen kontrolaren sentsazioak dimentsionatu du, eta lan finkoa izatearen ametsa izan da kontrol horren irudikapenik argiena. Baina, lan finkoaren figuraren desagerpenarekin batera, paradigma-krisi batean murgilduta bizi gara, eta orain arte gure bizitza pentsatzeko eta egituratzeko baliatu ditugun parametroak kolokan daude; beraz, ziurgabetasunak gainditu egiten du dimentsio materiala bera.

Horrek guztiak ekartzen dituen desorientazio existentzialak eta heldulekurik ez izatearen pertzepzioak eragina dute ez soilik etorkizunaren ikuskeran, baizik eta bizitza orainean bizitzeko eran. Etorkizun faltarekiko panikoa eta orainarekiko beldurra dira ziurgabetasunaren bi aurpegiak, eta horiek gure osasunean eta orekan izan dezaketen eragina ezin da gutxietsi. Sentsazio horiek pertsonengan sortzen duten gogo-aldarte horrek gaixotzea ahalbidetzen du.

3.4. Gazteria, gure gizartearen ispilu

Egun, nerabeen eta gazteen artean bereziki, osasun mentalaren inguruko kezka eta alarma gorria piztu da. Eta hori ez da gertatzen kasualitatez. Hausnarketa honen abiapuntu gisa gaixorik dagoen mundu baten sintoma garela baieztatzen genuen, gure ardura ere azpimarratu nahi genuelako. Era berean, egungo gazteriak gure jendartearen sintomatologia irudikatzen duela baieztatzen dugu. Gazteria gure jendartearen proiektzioaren ispilu argia da, eta, horrenbestez, haiek islatzen dituzten gaixotasunek gure testuinguru sozialaren gabeziak seinalatzen dituzte.

Analisi honetan aipaturiko hainbat korapilok gazteengan duten eragina oso nabarmena da, haien sozializazio-prozesuan funtsezko gakoak izan direlako. Bakardadea, isolamendua, hutsune existentziala, espektatibekiko obsesioa, frustrazioa, indarkeria eta eraso sexualak, lehiakortasuna, ortzi-muga falta... Noski, horien bizipena eta barneratze prozesuaren intentsitatea eta formak agian desberdinak izan dira, baina funtsean komunak dira. Esate baterako, oso esanguratsua da egun nerabe- eta gazte-mailan batez besteko notarekiko obsesioa; sistemaren presioaz gain, joera horretan haien arteko lehiakortasuna eta espektatiben eragina erabatekoak dira. Beraz, sortu dugun testuinguru sozial horretan ez da kasualitatea, eta berriro errepikatzen dugu, haien artean osasun mentaleko arazoak garatu izana.

Ziur aski, azterketa honetan erreparatu ez diegun bestelako aldagai batzuek ere badute eraginik gazteriararen egoeran: besteak beste, gurasoen gehiegizko babesa, nerabeen artean gaixotasun mentalaren inguruan identitate propioak artikulatzeko tentazioa, aspektu batzuen aurrean nerabeek duten autonomia falta...

Edozein kasutan, haiek dira gure gizartearen produktu sozialak, eta horretaz kontziente izateak egoera eraldatzeko abiapuntua eraikitzea eta baliabide berriak martxan jartzera garamatza.

4. Ortzi-mugak

Aipatu dugu gai hau pil-pilean dagoela: sufrimendua ikaragarria da. Baina ikusi dugu, era berean, arazo hau modu patologizatzaile eta medikalizatuan izendatzeak maldan behera bultza gaitzakeela. Lehenengo urrats ezinbestekoa ezinegonaren arrazoi kolektiboak izendatzea da, porrot sistemiko baten baitan kokatzea. Baina bigarren urratsa erantzun kolektiboak eraikitzea da. Eta lehenbailehen egin beharreko urratsa da. Gure mina huts egin duen proiektu zibilizatzaile baten parte delako kontzientzia izateak, inolako heldulekurik ez dugula ikusteak, are bizkorrago jaurti gaitzake malda horretan behera.

Heldulekuak behar ditugu lehenbailehen; ondoezari aurre egiteko modu berriak, egoki uztartuko dituztenak tresna instituzionalen erabilera, batetik, eta itxaropenezko ortzi-muga komunen eta

sendaketa-espazio kolektiboen eraikuntza, bestetik. Gaur egun daukagunetik haragoko errealitate bat irudikatu behar dugu, gaur daukagunetik onena erabiliz.

4.1. Osasun-sistemaren aurrean egiten ditugun aldarrikapenak

Buru-osasuneko arretan, osasun-sistema aktore nagusi bat da, eta horregatik indartu egin behar dela uste dugu, eta aldi berean ikuspegi-aldaketa sakon bat bultzatu, ikuskera psikosozial, multidimentsional eta komunitario baterantz. Bi eraldaketa hauek eskuz esku doaz: ez da desiragarria baliabide gehiago lortzea baldin eta horrek indarkeria eta medikalizazio gehiago badakar eta egiturazko arazoak isilarazten baditu. Baina ikuspegia ere ezin da aldatu baliabide gehiago ez bada: go: profesional bat ezin da errezetaz harago joan ezin badu hitzordurik eman egoki deritzon.

Osasun-arretak ez ditu gaixotasunak artatzen, pertsonak baizik. Norbait sufritzen ari denean eta laguntza eskatzen duenean, lagundu egin behar zaio, baina beharrezkoa den neurrian, haren egoerara egokituz eta akonpainamendua eskainiz. Ikuspegi-aldaketa horretan oinarrituko den osasun mental batek lehen arreta izan behar du bizkarrezur eta sostengu nagusi. Galbahe egokia erabili behar litzateke hor; baina, horretarako, beharrezkoa da maila horretan gizarte-langile eta psikologoekin koordinatuta lan egitea. Eredu biomedikoan oinarritzen ez diren terapiak ere eskain litezke, gaur egun osasun-sistematik kanpoko merkatuan baino eskuratu ezin direnak. Zerbitzu espezializatuak (psikiatria) bigarren urrats moduan baliatu beharko lirateke, benetan beharrezkoa den kasuetan soilik. Hor indartu behar dira zerbitzu horiek, eta modu ez burokratizatuan funtzionarazi, ongi koordinatuta eta ikuspegi-aldaketa horretan oinarrituko den praktika batez.

Hori guztia lortzeko, premiazkoa da osasun-sistema osoa murgilduta dagoen prekarizazio- eta pribatizazio-prozesu guztia iraultzea; bereziki, lehen arreta behar bezala sendotuz. Baliabideak ugaritzeak, batez ere, langile kopurua ugaritzea esan nahi du (profesional bakoitzeko paziente-ratioak murriztea). Osasuna oro har, eta osasun mentala bereziki, pertsonen arteko harremana da, neurri handi batean. Eta osasun-eskubideak unibertsala izan behar du praktikan, teoritik harago. Eta doako eta kalitatezko baldintzetan eskaini behar da, eta euskaraz artatua izateko eskubidea bermatuz.

Aipamen berezia behar du ustelkeria farmazeutikoaren kontrako borroka, gaur egun osasungintza pribatua eta publikoa zeharkatzen baititu. Eta, borroka horrekin batera, posible litzateke, eta beharrezkoa, industria farmazeutiko publiko bat sortzea.

Gainera, sufrimendua artatzeko eskura dauzkagun tresna instituzionalak erabiltzeak (ikuspegi-aldaketa horretan oinarrituta) ez du osasun-sistemara mugatu behar. Erantzun osoko eta transbertsal bat behar da. Lantegi eta ikastetxe guztietan esparatrapua duen botika-kutxa bat dagoen bezala, leku publikoetan desfibriladoreak dauden bezala, halaxe sortu behar dira osasun mentala artatzeko egiturak hainbat eta hainbat espaziotan: hezkuntza-sisteman, lan-eremuetan, zaintza-

-zerbitzuetan... Horrek, beste behin ere, langile gehiago izatea eta ikuspegia aldatzea esan nahi du. Espazio komunitarioak eratzea ere ezinbestekoa da, ezinegon emozionala guztion kontu gisa tratatzen baita halakoetan. Puntu hau aurrerago sakonduko dugu.

Ikuspegia aldatzea eta erantzunaren alorrean ardura hartzea espazio guztiei dagokien arren, azpimarra berezia jartzen dugu osasungintzan lan egiten dutenengan, haien begirada aldatzeak eragin handia izan baitezake medikuntzaren alorretik harago. Gainera, nahiko erraza da bide horretan aurrera egingo duten ekimenak abiaraztea. Horregatik, oso garrantzitsua da osasungintza-ko langileei zuzendutako trebakuntza-ikastaroak martxan jartzea eta/edo indartzea, osasunaren ikuspegi psikosozial, multidimentsional eta komunitario batean aurrera egiteko balio dezaten eta ikuspuntu feminista bat garatzen lagundu dezaten.

EAEko testuinguruan, bada beste faktore bat proposamen hauek egiteko une hau baliatzera garatzen: osasungintza-ereduaren inguruko eztabaida pil-pilean dago (akordio berri bat lortzeaz dira hainbat alderdi), eta zuzeneko partaideez haragoko gizarte-sektore zabaletara ari da iristen.

4.2. Deiak feminismoari

Egonezin emozionalak, ziur aski, modu transbertsalean zeharkatu behar du feminismoa. Baina hemen hiru kontu azpimarratu nahi ditugu: zaintzak, indarkeriak eta psikofobia. Lehen bi gaiak oso landuta daude, baina beharbada ez da behar beste garatu edo adierazi osasun mentalarekin duten lotura. Azkena, alor berria da askorentzat.

4.2.1. OSASUN MENTALAREN ETA ZAINTZEN ARTEKO LOTURAK LANTZEA

Ondoeza politizatu nahi badugu, zaintzen eta osasunaren (eta zehazki, zaintzen eta osasun mentalaren) arteko zubiak sendotu behar ditugu. Bi alor horietan, feminismoa egiten ari den hausnarketa eta proposamenak oso aberatsak dira, baina ez dira beti gurutzatzen.

Arreta handiagoa jarri behar zaio sufrimendu emozionalaren alorrean familiek betetzen duten zereginari, gaur egun haiek estaltzen baitituzte osasungintzak alor horretan dituen hutsuneak. Familiak diogunean, emakumeen* zaintza ikusezinduez ari gara. Zaintzen funtsezko parte da gaur eguneroko terapia. Hemendik, genero-desberdintasunen berreraikuntza-prozesuak ikus ditzakegu. Gizonen osasun mentalaz arduratzea emakumeek* egiten dituzten zaintza ikusezinen parte da. Gizonengan, oso ohikoa da emakume* bat izatea (maiz bikotekidea, baina beste batzuetan arreba, laguna...) osasun-arretara edo terapiara jotzera bultzatzen dituen. Baina hori ingurune afektiboko emakumeek* sufrimenduaren aurrean eskaintzen duten lehen arreta-maila horren ondoren gertatzen da.

Zer da zaintzea? Zer da osasuna? Komeni da bi galdera horiek aldi berean egitea. Zaintzak ongi-zate multidimentsionalaren berreraikuntza gisa ulertuz, eta osasuna oreka multidimentsional gisa ulertuz, zaintzea, nolabait, osasuna bere osotasunean berreraikitzea eta hartzea da. Baliteke ikusmolde hori ez etortzea bat zaintzak ulertzeko beste modu eztabaidatu batzuekin. Horien artean dago, esaterako, bizitza independentearen aldeko mugimenduak egiten duen kritika, zaintzak kontrolerako eta kontentziorako erabiltzearen inguruan. Hausnarketa horiek ez dira ezerezean oinarritzen; aitzitik, borondate onenarekin bada ere problematikoak izan daitezkeen zaintza-moduak ikusarazten laguntzen digute. OPIK ikerketa-taldean, esaterako, jakin nahi izan dute nola transmititzen den osasun mentalaren kudeaketaren ikasketa (zein neurritan dauden lotuta gurasoen eta seme-alaben psikofarmakoen kontsumoa). Ondorioztatu dute aitengandik alabengana ez dagoela transmisio esanguratsurik. Aitengandik semeenganako eta amengandik semeenganako transmisioa ere ez da oso esanguratsua. Amengandik alabenganakoa, ordea, nahiko handia da; harreman horretan, zaintzen narratiba batekin lotuta dago psikofarmakoen kontsumoa.

Zaintzea osasuna berreraikitzea da, baina osasun hori ez dugu ulertzen egun Mendebaldean nagusi den ikuspegiaren arabera: osasuna, guretzat, ez da % 100ean bikaina den egoera bat, gaixotasunari guztiz kontrajarria. Aitzitik, osasunaren ulerkera zikliko bat sustatu nahi dugu, amai-kortasunaren eta mugen onarpenetik abiatzen dena. Eta, horretarako, zaintzen inguruko hausnarketa feministez berrelika gaitezke: haien arabera, zaurgarritasunaz eta heriotzaz arduratzen den bizi-jarrera da zaintza. Zaurgarritasunaren ideiatik, apustu politiko indartsu bat sortzen da interdependentzia aitortzearen alde, eta interdependentzia hori elkarrekikotasunetik eta elkarrekitik zaintzatik kudeatzen ikastearen alde. Era berean, osasunak ere ardura indibiduala eta ardura partekatua izan behar du aldi berean, aurrerago gogoraraziko dugun moduan.

4.2.2. OSASUN MENTALAREN ETA INDARKERIAREN ARTEKO LOTURA SAKONAGO LANTZEA

Emakumeen* aurkako indarkeria matxista eta sexuala ikusezin bihurtzeko eta isilarazteko mekanismo historiko bat emakumeok* erotzat jotzea izan da gure sufrimendua eta ezinegona adierazi izan ditugunean. Ez dago histeriaren kontzeptua denboran zehar aztertzea besterik: hasi antzinako Greziatik, non uste baitzen umetokia mugitu egiten zela emakumeen gorputzean eta horrek hainbat sintoma eragiten zizkiela; eta XIX. mendeko psikoanalisiara arte, non histeriaren jatorria emakumeen fantasia sexualen errepresioarekin lotzen baitzen, zeina, Edipo konplexuaren bidez, neskabilen aitarenganako fantasia eta sentimendu anibalenteekin lotzen baitzen.

Hortaz, premiazkoa da emakumeen* erotasuna politizatzea: nor gara eroak? Edo beste era batera esanda: zer indarkeria salatzen dituzte emakumeek* beren erotasunaren bidez? Beharrezkoa da erotasun antipatriarkal argia duten subjektibitate horiek besarkatu eta sostengatuko dituzten estrategia kolektiboak eraikitzea, eta gaixotu gaituzten eta mundua gaixotzen duten indarkeriak izendatzea eta salatzea.

Estrategia horrek munta handiagoa du haurren aurkako eta bereziki nesken aurkako sexu-indarkeriaren kasuan: lehenbailehen ikusarazi behar dira haurtzaroan sexu-indarkeria bizi izan duten emakumeen* kopuru ikaragarriak, indarkeria mota horrek eragiten dituen kalteak eta ordena patriarkalean betetzen duen funtzio soziala. Neskak eredu patriarkalean sozializatzeko eta diziplinatzeko mekanismo bat da haurren aurkako sexu-indarkeria, emakumeen* gorputzez eta sexualitateaz jabetzeko modu kolektibo bat. Gainera, ikuspegi horrek begirada eta kritika feministaren erdigunean jartzen du berriro instituzio patriarkalean patriarkalena: familia. Zabaldu eta sakondu egin behar da neskek eta emakumeek* familia barruan jasan behar izaten duten indarkeria matxista, eta birdimentsionatu egin behar da indarkeria horrek egungo gizarte-egituretan daukan eragina; horrela, azkenik, argi geratuko da zer indarkeria salatzen dituen emakumeen* erotasunak, eta aitortza eta erreparazio feminista helburu duten prozesu kolektiboak jarri ahal izango dira martxan, erasotzaileen inpunitatea errotik erauzteko.

4.2.3. FEMINISMO EROA ETA CUERDISMOA

Osasun mentala gero eta leku handiagoa ari da hartzen eztabaida publikoan, baina eztabaida hori osasungintzak sufrimendu mental arinekotzat jotzen dituen egoeretara mugatzen da, eta baliteke horren eraginez sufrimendu mental larria deiturikoa ikusezin bihurtzeko beste modu bat sortzea. Erotasunaren estigmatizazio historikoari eta hark eragindako indarkeria-modu askotarikoei, indarkeria epistemikoaren forma berri hau gehituko litzaieke orain. Beldur gara testu honek ez ote dion mesede egingo ikusezintasun horri. Horregatik, azpimarratu nahi dugu premiazko zeregina dela feminismoa, oro har, mugimendu erora hurbiltzea. Beste hitz batzuetan esanda, beharrezkoa da feminismo osoak ikasbidetzat hartzea bere ertzetako bat: feminismo eroa²⁵.

Mugimendu eroak badu beste izendapen bat ere: Lehen Pertsonan Osasun Mentalaren Aldeko Batzordea izeneko mugimendua. “Esperientziadun adituek” eta “psikiatriatik bizirik irten diren pertsonak” osatzen dute, haien hitzetan. Mugimendu honek ahalegin berezia egiten du osasun mentaleko zerbitzuak erabiltzen dituzten eta zituzten pertsona psikiatrizatuen egoera ikusarazteko. Pertsona horiek kolektibo zapaldu gisa definituz, ozen salatzen ditu psi espazioetan (psikologiko, psikoterapeutiko eta psikiatrikoetan) gertatzen diren indarkeria mota askotarikoak. Cuerdismoa menderakuntza-sistematzat jotzen da, eta subjektu politiko ero baten eraikuntza planteatzen da. Hortik, osasun mentaleko bitartekoetatik kanpo garatuko den autogestio baten alde egiten da, baita sistema horren barruan sufritutako indarkeriei modu kolektiboan aurre egitearen alde ere.

Martxan jartzen dira, halaber, zaintza-sareak eratzekeo estrategiak (esaterako, krisi-egoeretarako akonpainamenduaren inguruko aurretiazko borondateak), interdependentziaren eguneroko bizi-penetik teorizatu eta praktikatuak. Ondoez psikiko sakonari aurre egiteko proposamen bat eskain-

25 Lokapedia blogean, hurbilpen gisa balio dezaketen hainbat eta hainbat baliabide daude. Gomendatzekoak dira, halaber, Tina Minkowitzen *Reimaginar el apoyo en crisis. Matriz, hoja de ruta y políticas liburua* (2023, Lilith's Warrior Press) eta Laura Martín López-Andradek emandako “Escuchar el malestar. Apuntes sobre salud mental” ikastaroko grabazioak (2022, CCCB).

tzeaz gain, feminismo eroak irekitasun-dei bat egiten dio feminismo osoari, behingoz berrazter dezan haren parte handi baten oinarri izan den cuerdismoa. Ezin diogu uko egin eztabaida eta azterketa honetan sartzeari, asko baitugu ikasteko.

4.3. Osasun-burujabetza eta buru-ardura

Epe labur eta erdirako neurriak, gakoak eta tresnak eskaintzeaz edota eskaintzen saiatzeaz gain, funtsezkoa iruditzen zitzaigun sufrimendu horren irismen estrategikoaren aurrean dimentsio bereko erantzuna artikulatzea. Egiturazko arazoari, irtenbidea egiturazko terminoetan ezartzea, alegia. Egoera eraldatzeari begira, marraz ditzagun ortzi-muga baten oinarritzko parametroak.

Alde horretatik, mina eta sufrimenduari aurre egiteko zentzu eta praktika kolektibo bat ehuntzea, artikulatzea eta egituratzea da abiapuntu estrategikoa. Osasunaren zentzu kolektiboaren arkitektura erroetatik eraiki behar dugu. Mina eta sufrimendua modu indibidualean pairatu arren, haren esentzia kolektiboa da, haren jatorria soziala delako eta, modu batez, guztiok partekatzen dugulako.

Zentzu komunitario horretatik abiatuz, sistemak gure bizitzan zorientasuna bilatzeko saltzen digun ongizate materialaren eta metaketaren ipuinaren aurrean, ahalduntze indibidual eta kolektiboa ahalbidetuko digun bidean sinesten dugu. Alde horretatik, guk osasunaren jabe izan nahi dugu, bere dimentsio kolektiboan eta baita plano pertsonalean ere. Orain arte gai honekiko oro har izan dugun paper pasiboa gainditu, eta norberak subjektu aktibo bilakatu nahi dugu, osasunaren gainerako kontzeptualizazio neutro eta naturala gaindituz eta norbere osasunaren ardura eta erantzukizuna bereganatuz.

Horrenbestez, uler dezagun osasun-burujabetza bere osotasunean: ahalduntze-prozesua ardaztuko duen, ardurak eta erantzukizunak zentzu eraikitzaile batean sustatuko dituen eta erru- eta frustrazio-sentimenduak alboratuko dituen osasun-burujabetzaren filosofia. Gure bizitza bizitzeko modua eraldatzen lagunduko diguna.

4.3.1. GORPUTZA ETA OSASUNA ULERTZEKO BEGIRADA BERRIA: OSASUN-SISTEMAREN ERDIGUNEAN PERTSONAK ETA EZ GAIXOTASUNAK JARTZEN DITUENA

Sufrimenduari aurre egiteko zentzu komunitario hori sustatzeko, eta era berean osasunaren gaia-aren aurrean ahalduntze pertsonal eta kolektiboari ekiteko, ezinbestekoa da egun barneraturik dugun gorputzaren eta osasunaren ikuskera ulertzea. Zertarako? Ikuskera hori deseraiki eta besselako kontzeptualizazio eta praktika berri bat eraikitzeko.

Alde horretatik, osasuna ikuspuntu integral eta multidimentsional batetik kokatu eta sentitu behar dugu. Horretarako, hasteko, naturalizaturik dugun gorputzaren eta buruaren arteko dikotomia hori

eta horien artean eratu dugun erlazio hierarkikoa gainditu behar ditugu. Gorputza da gure esentziari bere presentzia bermatzen diona, eta gu gorputzean zein buruan bizi gara. Gorputza ez da gure tresna, baizik eta gure etxea. Neurologiak jada frogatu du gorputza eta buruaren arteko konexioa, eta konexio horren simetria. Beraz, gorputza, burua eta bihotza dira gure presentziaren hiru adierazleak, eta horien arteko dialektikan oinarritzen da gure existentzia.

Abiapuntu horrek eramaten gaitu osasuna oreka gisa ulertzera. Gaizki ez egotea edo gaixotasunik ez izatea baino zerbait gehiago da osasuna. Osasuna energia eta bizitasuna izatea ere bada, baina, sakonean, oreka da osasunaren ardatza. Eta oreka hori galtzen dugunean suertatzen dira gaixotasunak. Baina, noski, osasuna ez da beti ehunean ehun egotea. Alde horretatik, ditugun mitoak eta proiektu modernizataileak gure gorputzaren gainean eraiki dituzten espektatibak desmuntatu behar ditugu: gure limiteak onartuz, gure zaugarritasunak aintzat hartuz eta gure zikloak errespetatuz. Eta garen moduan maitatuz.

Osasuna izateko gaixorik egotea ere ezinbestekoa da. Gaixotasuna osasunaren prozesuaren baitan kokatu beharreko elementua da. Noizbehinka sukarra izatea edota “katarro” bat izatea ezinbestekoa da gure osasunerako. Eta, batzuetan, tristea egotea ere normala da. Ezin diegu emozioei ihes egin, eta, oreka berreskuratzeko, emozio horietatik pasatzea funtsezkoa da. Egun batzuetan, psikologorenera jotzen dugu triste gaudelako. Ziur aski, jarrera horrek osasunaren inguruan eraikitako espektatibei erantzuten die, makinak garela pentsatzen dugulako eta, ondorioz, emozioei uko egiten diegulako.

Begirada berri horren egituraketak osasun-sistemaren abiapuntuaren parametroen aldaketa ekartzen du. Gaixotasunei begirada psikosozialetik eta gorputzetik aurre egin behar zaie. Batetik, gure osasunean eta gaixotasunean hainbat faktorek eragiten dute: biofisikoeak, testuingurukoak, sozialek, emozionalek, harremanek... Horiek guztiak kontuan hartu behar dira gaixotasunaren jatorria ulertzeko eta, batez ere, beharrezko interbentzioa bideratzeko. Eta, bestetik, zergatik gorputzetik? Min emozionalak gorputzean kokatzen direlako. Horregatik, norbere sendotze prozesua begirada multidimentsionaletik eraiki behar da, eta zaintzak ikuspegi integrala barneratu behar du. Behar dugun osasun-sistemak pertsonak jarri behar ditu erdigunean, eta ez gaixotasunak.

4.3.2. ERANTZUKIZUN PARTEKATUAK

Sufrimendua politizatu nahi genuen haren izaera sozial, sistemiko eta kolektiboa agerian utzi nahi genuelako. Baina gai honetan guri dagokigun alderdiaz ere aritu nahi genuen. Gu ere sistema horren parte garen heinean, gutako bakoitzak eragiteko dugun gaitasuna ukaezina da. Beraz, norbere arduraz eta dugun ardura kolektiboaz kontziente izatea ezinbesteko ariketa da eraldatze-prozesu horretan. Sistemaren aurkako diskurtso horretatik harago joatea planteatzen dugu, eta guk geuk aldaketarako giltza bilakatzea. Eta horrek eskatzen du bakoitzari dagokion erantzukizuna hartzea.

Zertaz ari gara geure erantzukizunaz jabetzeaz ari garenean? Geure gorputza sentitzeaz, entzuteaz, goxo tratatzeaz, eta ez makina bat bezala; geure emozioak onartzeaz, igarotzeaz eta askatzeaz; geure gabeziak eta joerak lantzeaz; geure oreka zaintzen saiatzeaz... Geure buruarekiko eta gorputzarekiko ardura hartzea ezinbesteko abiapuntua da. Norberak taldean, kolektiboan eta komunitatean duen inpaktuaz kontziente izatea oso inportantea da, eta baita inpaktu horrekiko arduraz jokatzeko ere. Geure arteko interdependentziaz ari garenean, dimentsio hori ere integratu behar dugu. Geure arteko erlazioetan geure proiektzioak, geure landu gabeko emozioak, ezintasunak eta frustrazioak azaltzen dira. Eta ez dugu hau planteatzen geure burua zigortzeko edota erru-sentimendua elikatzeko, ezta pentsatu ere. Espazio osasuntsuak izan nahi baditugu, bakoitzak bere orekaren ardura hartzea ezinbesteko abiapuntua da. Eta, era berean, ariketa hori oso askatzailea da.

Osasuna konpromiso politiko gisa uler dezakegu? Agian bai, agian ardura politiko baten gisa ulertu behar dugu sozialki ere ondo eragiteko. Komunitatearen taupadak norberaren taupaden arteko sinergiaren ondorio dira. Gu osasuntsu hori sortzeko, norberarengandik hasi behar da. Hori guztia planteatzen dugu geure ahalduzko prozesuari begira, benetan geure bizitzaren protagonistak izan nahi dugulako.

4.3.3. GURE ONGIZATEA BULTZATZEN DUTEN TRESNEN SORRERA

Arestian aipatzen genuen sufrimenduari aurre egiteko zentzu eta praktika kolektibo eta komunitarioa ehundu eta artikulatu behar genuela. Zentzu kolektiboari gorputz teorikoa eman diogu: batetik, osasunaren eta gorputzaren inguruko begirada berria eraikitzeke parametroak planteatuz; norbere buruaren eta gorputzaren jabe izateko ardura pertsonal eta kolektiboaren garrantzia azpimarratuz. Baina minari ekiteko filosofia kolektibo horrek bere irudikapen propioak behar ditu. Horrenbestez, filosofia kolektibo hori gauzatuko duten tresna, egitura, ekimen eta espazioak behar ditugu, mina sentitzen eta sufritzen dugunean babestuko eta sendotzen lagunduko digutenak.

Taldean sufrimenduaz aritzea eta partekatze-prozesua bera oso lagungarriak izan daitezke, eta, zentzu komun horretatik, elkarrekin, enpatiarekin, maitasunarekin, aurreiritzirik gabe, epaitu gabe, eskuzabaltasunarekin, bestelako abiapuntu bat eraiki daiteke minari aurre egiteko; eta, are gehiago, bizitzarekiko eta orainarekiko ilusioa eta itxaropena berpizteko. Eta, neurri txikiagoan edo handiagoan, guztiok dugu horren beharra.

Beraz, gure egitura emozional propioak eraiki behar ditugu, geure osasunaz, geure gorputzez, geure emozioez... aritzeko eta lotsagatik isiltzen dugun horretaz aritzeko. Gu horren sorrera eta egituraketa sufrimendu horren aurkako ezinbesteko txertoa dela konbentziturik gaude.

Eta zentzu kolektiboaren esentziaren filosofian oinarriturik, bestelako begiraden, hausnarketan eta dimentsioen aurrean jarrera irekia mantentzea oso interesgarria izan daiteke. Aukera berriak esploratzeko unea da. Baina beti modu komunitarioan integratzeko eta eraikitzeke: antzinako

jakintzen berreskurapena, arimaren eta espiritualismoaren kontzeptuan oinarritzen diren ezagutzak, edo bestelakoak... Kontua da sufrimenduari aurre egiteko palanka kolektiboa gero eta eraginkorrago bilakatzea.

